




Eskola Antzerkia



ESKOLA ANTZERKIA 4



HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1995

Argitaraldia: 1.a, 1995eko abuztua

Ale kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Prestatzaileak: Iñaki Artola, Joxe Mari Berasategi

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington dukea, 2 – 01010 Gasteiz

Fotokonposizioa: FONASA. Antso Azkarraren etorbidea, 26. Iruña

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Cervantesen etorbidea, 51 – 48970 Basauri

I.S.B.N.: 84-457-0651-2

Lege Gordailua: BI-1903-95

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
ESKOLA ANTZERKIRA BIDEAN	11
Yolanda Arrieta	
ANTZEZLANAK	
Afaria prestatzen	
Komedia. Lasarteko Landaberri ikastolako ikasleak, Nekane Galarzaren ardurapean	15
Aintzinakeriak	
Abenturak. Josune Laka. Lekeitioko R. M. de Azkue ikastola	23
Altxor arkeologikoa	
Komedia. Gernikako San Fidel ikastolako ikasleak, Araceli Vallejoren ardurapean	41
Antonino Apreta	
Ipuin antzeztua. Hernaniko Langile ikastolako ikasleak, Itziar Gurmendi eta Itziar Egigurenen ardurapean	49
Aramaioren deabrukeriak	
Komedia. Ebaristo Bustintza (Kirikiño). Elizabeth Akizuk egokitua. Eskoriatzako Almen ikastola	61

Arin-arin erbia

Ipuin antzeztua. Legazpiko Domingo Agirre herri ikastetxe-ko ikasleak, Marga Rodriguez eta Nieves Guillenen ardurapean 69

Arraintxo

Ipuin antzeztua. Angiozarko herri ikastetxeko ikasleak, Anselmo Vegaren ardurapean 75

Azken luzea

Bi ekitaldiko irri-antzerkia. Imanol Elias (Azpeitiko batxilergo institutukoentzat) 87

Bazasor banda

Txotxongiloa. Belen Zubia. Gasteizko Odon de Apraiz ikastola 137

Bederatzi ez da bederatzi

Komedia. Tolosako Laskorain ikastolako ikasleak, Helena Larrañagaren ardurapean 149

Enperadorearen jantzi barria

Ipuin antzeztua. Hans Christian Andersen. Maribel Mentxakak itzulia. Bermeoko Eleizalde ikastola 171

Gaztarik onenak... Arantzazukoak

Komedia. Zumaiako Maria eta Jose ikastetxeko ikasleak, Josu Urrestillaren ardurapean 185

Haragi egosia saltsan

Txotxongiloa. Beasaingo Alkartasuna lizeoko ikasleak, J. Kruz Larrañaga eta Mikel Leundaren ardurapean 203

Herensugearen burua

Ipuin antzeztua. R. M. del Valle Inclán. Elena Egeak itzulia. Duranako Ikasbidea ikastola 215

Itsasoan galduak

Abenturak. Joxe Martin Urrutia. Durangoko Kurutzia ikastola 223

Itsuak	
Komedia. Patxo Landa. Loiuko Lauro ikastola	249
Lortuko ete dogu?	
Hezibidezko antzerkia. Joseba Ormazá. Bermeoko Sagrado Corazón ikastetxea	261
Magia dela medio	
Ipuin antzeztua. Rosa M ^a Acero. Anabel Duandikoetxeak itzulia. Laudioko Lamuza herri ikastetxea	275
Maite, herri txiki bateko neskatoa	
Ipuin antzeztua. M. Luisa Zarrabeitia. Gernikako Barrutia herri ikastetxea	289

HITZAURREA

Hamar urte bete ditu, 1994-95 ikasturtearekin, Eskola Antzerkigintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen deialdiak. Deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan antzezlanak tajutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen frutu da liburu hau. *Eskola Antzerkia 4* du izenburua, 1988an argitaratu zen lehen *Eskola Antzerkia* haren eta 1992ko *Eskola Antzerkia 2 eta 3* liburuen segida baita. 19 antzezlan bildu dira liburu honetan; neurri, molde eta tankera desberdinetakoak: 7 komedia edo irri-antzerki, 7 ipuin antzeztu, 2 abentura, 2 txotxongilo eta hezibidezko 1. Adin eta maila desberdinetan egin, landu eta antzeztuak. Bakoitzaren hasierako aurkezpen orrian azaltzen dira zehaztasunak, gaiaren laburpenarekin batera.

Ikastetxeetako taldeei, laguntza eskuratzekotan, hauxe eskatzen zaie: eskabidearekin batera antzezlanaren testua Hezkuntza Sailera bidaltzea (beraiek asmatua denean Aste Santua arte luza daiteke epe hori); euskara landuz antzezlanaren prestatzea eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak inguruko beste bi ikastetxetan. Ikasturte amaierarako, antzerki lanketa nola egin den azaltzeko galdeki-zuna eta emanaldi bakoitzeko ebaluaketa fitxa bat bete eta bidali behar izaten da Hezkuntza Sailera. Deialdi honen inguruan ikastetxe eta talde asko dabil. Zehatz esanda, 1994-95 ikasturtean 136 ikastetxe eta 333 talde. Deialdiaren helburuez edo jardupideaz gehiago jakin nahi duenak, urtero EHAAn argitaratzen den Agindura, eskola-antzerki liburuen sail honetako beste hiruretara edota *Euskararen Irakaskuntza: 10 urte* argitalpenera jo dezake.

Eskoletatik jasotako antzezlanak ez dira Hezkuntza Sailean gordeta geratzen. Eskoletan horien premia badagoela aipatzen dute irakasleek, behin eta berriz. Premia horri erantzun nahirik egiten da jasotakoen artean aukeraketa eta, ondoren, argitalpena. Argitaratzeko aukeratu ez diren antzezlanak, alfabeto ordenan eta aurretik laburpen fitxa dutela, 15 karpeta osatutako 3 bildumatan daude jasoak. Lehen karpeta aurki-bide orokorra da eta bilduma handitu ahala berritzen da. Bilduma hauek ere ikastetxeen eskura daude eskualdeetako PATetan.

Antzezlanok 1991-92 eta 1994-95 ikasturteen bitartean jasotakoen artetik hautatuak dira (salbuespenezko bat izan ezik: *Enperadorearen jantzi barria*, 1986-87 ikasturtekoa) eta alfabeto ordenan agertzen dira, ez beste inolako lehentasuni begira. Arreta handiegirik jarri gabe ere erraz ikus daiteke alfabeto horren laburra, A-n hasi eta M-n amaitzen da eta. Atzetik gehiago datozela esan nahi du horrek; hauekin batera hautaturiko gainerako antzezlanekin argitaratuko baita, hurrengo ikasturtera begira, *Eskola Antzerkia 5* liburua.

Antzezlan hauek, aurreko liburuetan jasotakoek eta argitaratu gabe PATetan bilduta daudenek bezalaxe, sorkuntza lanera eta testu berriak asmatzera animatuko al dituzte ikasle-irakasleak! Bi arrazoi behintzat badaude, izan ere, horretarako. Lehenengoa: asmazio-sormenean eta ondorengo borobiltze-findueran landu daiteke ikasleekin, beste inola bezain gozo, eta ziurrenera gazi-biziago, euskara freskoa eta aldi berean noranahikoa; oinak ikasgelan, baina buru-gorputzak leihotik aterata, iparraren berdeari eta hegoiaren eroari oreka punttua bilatu-nahi horretako bizipenetan. Bigarrena: emaitzak beste eskolen eskura jarriko dira, argitaratuta ez bada, PATetako bildumetan.

Eskerrik asko antzezlanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei, argitalpen hau gauzatzeko eman dizkiguten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Yolanda Arrieta eta Lurdes Intxaustiri, antzezlanak hautatzen eta prestatzen egindako lanagatik. Hitzazurre honen ondoren datorren *Eskola Antzerkira bidean...* sarrera idazteagatik ere eskerrak Yolanda Arrietari. Beste hainbeste, azkenik, prestakuntzan lagundu diguten lankide guztiei, bereziki Pili Sanchez, Itziar Lizarralde eta Mirari Alberdiri.

EUSKARA ZERBITZUA

**ESKOLA
ANTZERKIRA
BIDEAN...**

Yolanda Arrieta

STOP!

—*Zer* kondatu nahi dugu? *Non* gertatuko da? *Nork* hartuko du parte? *Noiz* jazoko da? Erantzunak zehaztu eta bildu materiala: postalak, argazkiak, garaiko egunkari eta arropak, gertaeraren inguruko txiste, kanta, bertso, bideo-zinta, pelikula eta iritzi desberdinak.

AURRERA!

—Ikasleek ikasleentzat egin behar badute, hots, ikasleak badira egile, eta ikasleak ikus-entzule..., utzi haurrei beraien neurriko munduak sortzen!

A! Eta ez ahaztu dagoenarekin sortzen dela ez dagoena.

BIDEGURUTZEA

—Ikuskizun dotorea ala ikuskizun bizia?

—Antzerkia jolasa da. Antzerkia jokoa da. Antzerkia bizitza arruntari distira eskaintzea da. Baina, batez ere, Antzerkia espresabidea da. Aukeratu zeuek, beraz, bidea.

LANAK

—Nekatuta nago! Berriro gauza berbera? Ala! Pertsonaia berriak asmatu behar! Ala! Testua aldatu behar! *Zer...*? Ondo ahoskatuz, esanahaia agertuz, tresnekin estropozu egin gabe, inori hanka zapaldu barik, bi bider hiru metroko eszenatokian, etxean banengo bezala hitz egin behar dudala...?

—Lasai: gauza handiegirik espero gabe, txarrenari aurre egin, eta emaitza... iritsiko da!

NORABIDE ALDAKETA

—Aurrera goaz? Ala atzera? Batak hau, besteak hura. Denek daukate zeresana. Denek dakite dena!

—Non da zuzendaria?

LAUTADA ASPERGARRIA!

—Testua, ikasita. Mugimenduak, zehaztuta. Arropa, aukeratuta. Zer egin behar dugu, orain, ba?

—Gonbidatu lagunak, atezaina, garbitzailea, jantokiko sukaldaria edo udaltzainak entsaioetara. Antzerkia, berez, puntu biren arteko tentsiotik sortzen da. Komeni da tentsio hori, une oro, mantentzea.

ERREBUELTAK

—Bihar estreinaldia eta hau panorama! Protagonista gaixotu, paperezko zuhaitza galdu eta kaseteko zinta izorratu!

—Je-je-je! Ez da ezer gertatu: argien arduraduna prestatu genuen ordezkaketak egiteko, paperezko lau zuhaitz egin genituen, badaezpada, eta kasetearen hiru kopia dauzkagu apalean, gordeta.

EMAN BIDEA

—Gurasoak egongo dira ikusten. Irakasle guztiak etorriko dira. Behar bada, herriko alkatea ere bai. Hobe genuke esaldi hura... ez esatea...

—Ezta pentsatu ere! Ireki ate guztiak. Eman bidea. Baina ez ahaztu, orain, zeuen gauzak, zeuen erara, erakusteko unea iritsi dela.

NORABIDE DEBEKATUA

—«Ondo» egin dugu? «Gaizki» egin dugu?

—*Disfrutatu* duzue? *Gustora* aritu zarete? Pozik *jolastu* duzue? Horixe da garrantzitsuena!

BIRA ERDI ETA BIDE BERRIA

—Bihar beste leku batera. Nola moldatuko gara?

—Gauza bera egin arren, zeharo desberdin aterako da. Normala! Bizitza ere, etengabe ari da aldatzen, eta antzerkia bizitzako zatitxo bat baino ez da. Animo, beraz, eta aurrera!

ANTZEZLANAK

AFARIA PRESTATZEN

2.,4. eta 5. mailetako ikasleak,
Nekane Galartzaren ardurapean
Komedia
Landaberri ikastola
Lasarte-Oria
1992-93

GAIA

Gurasoak izebaren etxean afaltzera gonbidatu dituzte.
Umeez ere ezin ba etxean bakarrik afaldu, eta laguna
gonbidatu dute. A zer komeriak!

PERTSONAIAK

Kaxkimira (alaba)
Sefepino (semea)
Jaxinta (ama)
Nikolasio (aita)
Prudentzio (laguna)

(Bi haurrak gelan daude, jolasean. Gela jostailuz beterik dago. Mahai gainean liburu pila bat dago. Kaxkimira trizikloarekin dabil. Sefepino konstrukzioak egiten ari da. Kaxkimirak trizikloarekin Sefepinok egindako eraikuntza botatzen du)

Sefepino Begira zer egin didazun! Ez al dakizu trizikloan ibiltzen, tonto halakoa!

Kaxkimira Tontoa? Nor da hemen tontoa?

Sefepino Nor izango da, ba? Beste inor ba al dago hemen?

Kaxkimira Ba, badakizu zer erantzuten dizun tonto honek? Ba... hauxe erantzuten dizu! *(Kaxkimirak pieza guztiak hartu eta Sefepinori gainera botatzen dizkio)*

Sefepino Zer egin didazu? Orain ikusiko duzu! *(Trizikloa hartu eta segika hasten zaio buruan jo nahian, mahai inguruan bueltaka. Kaxkimira lurrera erori eta bestea bere gainera eror-*

tzen da; mahai gainean zeuden paper eta liburuak erortzen dira. Ama korrika sartzen da)

Jaxinta Zer da hau? Zer gertatzen da hemen? (*Lurrean dagoen trizikloarekin txoke egin eta lurrera erortzen da. Bi haurrak barrez ari dira*)

Jaxinta (*Altxatuz*) Zertan zabilzate? Ez al duzue etxeko lanik ekarri? Baina... ikusten al duzue gela nola dagoen? Lehenbailehen gela jasotzen hasi eta gero etxeko lanak egin, entzun?

Kaxkimira eta Sefepino Bai, ama! (*Bi haurrak, gogorik gabe, gela jasotzen hasten dira. Buelta ematen duten bakoitzean elkarrekin topo egin eta lurrera erortzen dira berriro. Ama zerbait esatera doala, telefonoa entzuten da. Amak mantala altxatu eta patrikatik telefonoa ateratzen du. Kable luzea du telefonoak*)

Jaxinta (*Haserre*) Bai, nor da? (*Doinua aldatuz*) O, Kontxesi! Zer moduz? Zer dela eta deitzen didazu? (*Bi haurrek, amari begira, gela jasotzen jarraitzen dute*) Noski! Nikolasio etortzen denean joango gara. Gero arte!... ...Agur! (*Haurrei zuzentzen zaie, telefonoa lurrean uzten du*). Izeba Kontxesik afaltzera gonbidatu gaitu. Aita etortzen denean joango gara. Bakarrik geratuko zarete. Afaria prestatzeko gauza guziak sukaldean prest utziko dizkizuet. Orain, jaztera noa. Zuek, bitartean, etxeko lanak bukatu itzazue.

Kaxkimira eta Sefepino Bai, ama!
(*Ama gelatik atera eta haurrak lanean geratzen dira. Atea entzuten da. Aita sartzen da, trizikloarekin txoke egin eta lurrera erortzen da. Aita gizarajo bat da, dena sinesten du*)

Nikolasio Zer egiten du triziklo honek hemen?

Kaxkimira Nola zer egiten duen? Zeuk bota duzu, ez al zara kon-turatu?

- Sefepino** Hori, hori, aita! Kontu gehiago izan behar duzu! Kon-tu gehi-a-go i-zan be-har du-zu.
- Kaxkimira** Hobe duzu jaso ama konturatu baino lehen.
- Nikolasio** Bai, arrazoi duzue! (*Aita trizikloa jasotzera doa. Irteterakoan amarekin topo egiten du eta biak lurrera erortzen dira*)
- Jaxinta** Baina Nikolasio! Umeak baino okerragoa zara! Zer egiten du zu bezalako gizonak trizikloarekin jolasean?
- Nikolasio** Baina...!
- Jaxinta** Ez baina eta ez baino! Horrelako gizon puska... eta umeen aurrean gainera!
- Nikolasio** Baina...
- Jaxinta** Beno, beno. Ahaz dezagun eta zoaz lehenbailehen dituzun jazkirik ederrenak jaztera. Kontxesik bere etxera gonbidatu gaitu afaltzera.
- Nikolasio** Bai, banoa.
- Jaxinta** Eta zuek, (*Haurrei*) hobe duzue zintzo portatu! Etxeko lanak bukatzen dituzuenean, afaria prestatu. Sukaldean tortila egiteko behar duzuen guztia utzi dizuet. (*Aita sartzen da. Gorbata eta sonbreilua jantzi ditu*)
- Jaxinta** A, prest zaude! Ba, goazen!... Agur!
- Nikolasio** Agur!
- Kaxkimira eta Sefepino** Agur ama! Agur aita! (*Gurasoak desagertu orduko bi haurrak, liburuak itxi eta altxatu egiten dira. Kaxkimira ateraino joaten da eta kanporantz begiratzen du*)
- Kaxkimira** Joan direla dirudi! Beno, zer egingo dugu orain?

- Sefepino** Zergatik ez diogu Prudentziori deitzen? Afaltzera gonbidatuko dugu.
- Kaxkimira** Oso ideia ona!
(Kaxkimirak telefonoa bilatzen du, kablea aurkitu eta tiraka hasten zaio, telefonoa erakarriz. Telefonoa Sefepinoren hanka artean sartu eta hau erori egiten da)
- Sefepino** Kasuen! Zer egin didazu?
- Kaxkimira** Nik ez dizut ezer egin! Telefonoa izan da!
(Sefepino zalantzan dago, telefonoa aztertzen hasten da. Bitartean tinbre hotsa entzuten da eta Sefepinok, telefonoa delakoan, hori hartzen du. Kaxkimira atea irekitzera joaten da)
- Sefepino** Bai, nor da?... A, banekien! telefono honek adarra jo nahi dit! *(Telefonoari)* Orain ikusiko duzu! *(Telefonoa hartu eta lurra jotzen hasten da. Kaxkimira Prudentziorekin sartzen da)*
- Kaxkimira** Begira, Sefepino, nor etorri den!
- Sefepino** Prudentzio!!!!
- Prudentzio** Sefepino!!!!
(Biak besarkatzerakoan bozina hotsa entzuten da; Sefepinok atzeraka salto egiten du)
- Kaxkimira** Kontuz, kamioi bat dator!
- Prudentzio** Ez, Sefepino, *(Poltsikotik bozina bat ateratzen du)* hau da, poltsikoan neraman eta!
- Kaxkimira** Eta, zer da hori?
- Prudentzio** Turuta bat.
- Kaxkimira** Eta, zertarako balio du?
- Prudentzio** Turuta jotzeko.

- Sefepino** Eta, nola jotzen da?
- Prudentzio** Horrela! (*Prudentziok bozina belarri ondoan ipintzen dio eta jotzen du. Sefepinok atzeraka salto bat eman eta belarria igurzten du*)
- Sefepino** Baina, erotu egin al zara edo...?
- Prudentzio** Beno, Sefepino! Ez zara horregatik haserretuko, ez da? Ez da ezer izan eta!
- Kaxkimira** Beno, gurasoak kanpora joan dira eta afaria prestatu behar dugu.
- Prudentzio** Aaa, oso ongi! Neuk lagunduko dizuet! Eta, zer prestatu behar duzue?
- Kaxkimira** Tortila.
- Prudentzio** Beno ba, horretarako zartagia beharko dugu. Ea Kaxkimira, atera zartagia!
(*Sefepino inbutu batekin aurreratzen da*)
- Sefepino** Hemen dago!
- Prudentzio** Baina hori ez da zartagia, hori inbutua da!
- Sefepino** Aa, ez? (*Prudentziori inbutua belarri ondoan ipini eta zarataka*) Tu-Tu-Tu!!
(*Prudentziok atzeraka salto bat eman eta aulkian zeuden arrautzen gainean erortzen da*)
- Prudentzio** (*Negarrez*) Aaaaaa! Begira zer egin didazun, memelo horrek!
- Sefepino** Beno, Prudentzio, ez zara horregatik haserretuko, ez da? Hori ez da ezer!
- Prudentzio** Ez dela ezer? (*Negarrez*) Kaka egin dudala dirudi!
- Kaxkimira** Horregatik horrela jarri? Ene! Ez da ezer izan eta!

- Prudentzio** *(Haserre) Ez dela ezer izan? Oraintxe ikusiko duzu! (Beste arrautza bat hartu eta buruan puskatzen dio Kaxkimirari. Biak korrika hasi, Sefepinorekin txoke egin eta hirurak lurre-ra. Gurasoak sartzen dira)*
- Jaxinta** *Baina, zer da hau? (Hiruren atzetik korrika. Umeak irten egiten dira)*
- Nikolasio** *Ai, ume hauek ezin dira bakarrik utzi! (Eszenatokitik ateratzen da lurrean aurkitzen dituen gauzak jasotzen)*

AINTZINAKERIAK

Josune Laka
4. mailako ikasleek antzeztua
Abenturak
R.M. de Azkue ikastola
Lekeitio
1991-92

GAI

Tabernan agure zahar bat aintzinako istorioak kontatzen ari da. Bat-batean, itsaslamiak batekin gertatu zitzaiona kontatzen du. Ilobek ere bere begiz ikusi nahi dituzte itsaslamiak eta bere abentura biziko dute.

PERTSONAIAK

Aitona zaharra	Ama
Ander	Aita
Olatz	Izeba
Aitona gaztea	Osaba
1. marinela	Itsaslamia gaztea (Uhin)
2. marinela	1. umea
Kapitaina	2. umea
Itsaslamia zaharra	Kazetaria
Txabi	Telebistako erreportaria
Ane	

1. ESZENA

(Eszenatokian taberna zahar bat agertzen da. Mostradore aurrean, mahaian eserita, agure bat. Mahai gainean, botila ardoa eta edalontzia)

Ander Kaixo, aitona! Zu ikustera gatoz!

Olatz Bai, bakarrik izango zinelakoan etorri gara.

Aitona z. *(Aurpegi serio eta pentsakorrarekin)* Benetan eskertzen dizuet nirekin gogoratzea. Eseri zaitetze nire ondoan eta gaur ere zuei hainbeste gustatzen zaizuen istoriotxo ho-

rietako bat kontatuko dizuet. (*Ander eta Olatz, freskagarri bana hartu eta aitonaren ondoan esertzen dira*) Entzun al duzue inoiz sirenei buruzko ipuinik?

Olatz Bai. Amonak negu hotzetan, sutondoan, ipuinak kontatzen dizkigu eta sirenak ipuin horietatik ezagutzen ditugu.

Aitona z. Eta sinestuko al zenukete nik sirena hau ezagutu nuela esango banizue? (*Haseran barrea irteten zaie, baina aitonaren aurpegia ikusten dutenean, begiak zabal-zabal jartzen dituzte*)

Ni orain zaharra naiz, baina gaztea ere izan nintzen. Eta gaztetan marinela trebea nintzen. Munduko itsaso eta bazter guztiak ezagutu ditut. Alajainkoa! Lurrak irents nazi- la gezurra badiot!

Bilbotik deitu zidaten. Itsasontzi handi bat gidatzeko marinela trebeak behar omen zituzten. Merkataritzako unti bat Ingalaterrara eramateko zen. Diru asko eskaini zidaten eta, gainera, beti abenturetarako prest nengoen. Untzira- tu ginen Bilboko portuan eta goiz argitsu batean itsaso urdinera abiatu ginen...

2. ESZENA

(*Aitona hitz egiten ari den bitartean, dekoratua aldatzen da. Itsasontzia eta marinela agertzen dira eszenatokian*)

Aitona z. Goiz batean, marinela ahotsek esnatu ninduten... (*Itsasontziko marinela marmarrean entzuten dira*)

Aitona g. Baina, zer gertatzen da?

1. marinela Ez al duzu ikusten? Begiratu itsaso aldera! Zer ikusten duzu?

2. marinela Ezer ez!
(*Lainoz estalita agertzen da itsasontzia. Marinela guztiak urduri, elkarrekin mintzatzen*)

- Kapitaina** Isilik, mesedez!
- 1. marinela** Baina, kapitaina, ez al duzu ikusten nolako egoeran gauden?
- Kapitaina** Bai, marinel adiskideok!!! Garbi hitz egingo dut! Zuek guztiok itsasgizon trebeak eta ausartak zarete eta zuengan konfidantza osoa dut. Ikusten duzuen bezala, laino arraro honek inguratu gaitu eta egoera larrian gaude. Untziaren gida-tresnak hondaturik daude! Doala bakoitza bere postura! Lasai eta denok lanera!
- Aitona g.** Lasai ez egon arren ez dugu beste irtenbiderik!
- 1. marinela** Aterako al gara inoiz lainope nazkagarri honetatik?
(Bat-batean, kantu bitxi bat entzuten da. Tripulazio guztia, aho zabalik, soinua entzuten gelditzen da)
- Aitona g.** Zergatik ez diogu kantaren soinuari jarraitzen?
- Kapitaina** Oso ideia ona iruditzen zait! Jarri berriro motorrak mar-txan eta ea irteten garen lainope honetatik.
- 2. marinela** E! Han!..... Begiratu han!
(Denek begiratzten dute behatzak seinalatzen duen tokirantz. Harkaitz baten gainean eserita, itsaslamia bat ikusten dute kantari. Bi marinel arineketan doaz sare baten bila...)
Azkar, lagunduidazue, leloak! Ez al zarete konturatzen sirena hau harrapatzen baldin badugu eskuak urrez beteko ditugula?
- Kapitaina** Arrazoia du! Azkar! Goazen laguntzera!
(Denak ari dira itsaslamia itsasontzira igotzen, aitona izan ezik. Bera bazter batean gelditzen da, pentsakor. Denak lamiaren inguruan biltzen dira eta goitik behera aztertzen dute. Bat-batean, lainoa ere desagertu egiten da)
Sirena untziratu dugunean, lainoa ere desagertu egin da! Jarrai diezaiozun geure bideari!
(Lamia kaiola baten barruan sartzen dute eta aurrera jarraitzen dute. Denak lo dauden bitartean, aitona itsaslamiari hurbiltzen zaio)

- Aitona z.** Zergatik zaude hain triste?
(Lamiak ez du aurpegirik aldatzen, ez dio kasurik egiten)
 Ez al duzu gure hizkuntza ulertzen?
(Lamia, aitona kezkatuta dagoela ikustean, begiak malkoz estalita, negarrez hasten da)
- Itsaslamia z.** Zergatik sartu nauzue kaiola honetan? Nik ez dizuet ezer egin! Utz nazazue berriro itsasoan!
- Aitona g.** Lasai zaitez! Nik ez dut ondo ikusten zu kaiola horren barruan egotea! Zure laguna izan nahi dut! Lagunduko dizut ihes egiten.
(Itsaslamia irribarrea etortzen zaio. Aitonak lo dagoen kapitainari giltzak lapurtzen dizkio eta kaiolako atea irekitzen du. Lamia lepoan hartu, muxu bat eman eta itsasora botatzen du)
- Aitona g.** Badakit ez dugula gehiago elkar ikusiko, baina ez naiz sekula zurekin ahaztuko!
- Itsaslamia z.** Ni ere ez naiz inoiz zurekin ahaztuko! Nire esker ona adierazteko, tori iduneko hau! Beti zurekin eraman!

3. ESZENA

(Berriro taberna enfokatzen da. Han jarraitzen dute eserita aitona eta bi ilobek)

- Ander** Benetan sinestezina da istorio hau! Gure lagunek ez digute sinestuko!
- Olatz** Aitona! Ez duzu oraindik zurekin izango sirenak oparitu zizun iduneko hura, ez da?
- Aitona z.** Ez dut izango ba! Hori ez dut inoiz nigandik aldunduko!
(Aitonak eskua poltsikoan sartzen du eta bertatik iduneko distiratsu bat ateratzen du. Txirla, koral eta perlaz egindakoa.)
- Ander** Orain bai sinestuko digutela! Utziguzu iduneko hori!

- Olatz** Baina... nik, neure begiekin ikusi nahiko nuke sirena bat.
- Aitona z.** Beno, hori ezinezkoa da. Lehen, nonbait, sirenak ugari ziren, baina gaur egun, XX. mendean, gutxi batzuk baino ez daude eta hauek, noski, toki izkutueta gordetzen dira. Oraingo untzi modernoek sirenak izutu egiten dituzte.
- Ander** Dena dela, guk sirena hura bizi den ikustera joan nahi genuke!
- Olatz** Bai, eta horrela nola bizi den galdetu eta zure kontuak kontatuko genizkioke!
- Aitona z.** Beno... horrela bada, ez zait hain ideia zoroa iruditzen! Ahal dudan eran lagunduko dizuet! Utziko dizkizuet nire itsasorratza eta orientatzeko behar dituzuen tresna guztiak!
- Olatz** Baina maparen bat ere beharko dugu, ez da?
- Aitona z.** Oraintxe bertan egingo dugu mapa hori!

4. ESZENA

(Mapa marrazten ari dira)

- Aitona z.** Baina... guzti honen truke gauza bat eskatu behar dizuet!
- Ander** Eskatu nahi duzuna! Gure esku badago gustora egingo dizugu eta!
- Aitona z.** Ba... bidaiatik itzultzerakoan, gertatutakoaren berri eman beharko didazue!
- Olatz** Hori baino ez bada...!
(Aitonak emandako gauza guztiak poltsan gorde, aitonari muxu bana eman eta tabernatik irteten dira)

5. ESZENA

(Txabi eta Ane, kolean, euren lagunekin)

- Txabi** Baina oraindik sinesten al duzue tontokeria horietan?
- Olatz** Begira... Hemen dugu sirenak aitonari oparitu zion idu-nekoa. Eta gainera... *(Haserre)* nire aitonak ez du gezurrik esaten!
- Txabi** Egia esan, ez dut gehiegi sinesten istorio horretan, baina niri abenturak beti gustatu izan zaizkit eta guztiok ados bagaude, goazen sirenaren bila!!!
- Ane** Bai. Ados gaude. Baina nola joango gara? Ez dugu untzirik!!!
(Laurak pentsakor)
Ideia bat bururatu zait! Osaba Tomaxek Aulestin duen zerratokitik enbor batzuk hartu eta...
- Txabi** Baina... eta nola hartuko dituzu hain enbor lodiak, ba?
- Olatz** Lasai zaitetze! Denok zure osaba Tomaxen zerratokira joan eta piraten itsasontzi bat egiteko dela esango diegu!!!

6. ESZENA

(Eszenatokian enborrak. Almadia bat egiten ari dira, liburuetan begiratzuz)

- Olatz** Eta aitari eta amari zer esango diegu?
- Txabi** Ba... piratetara jolas egiteko dela!
- Ander** Baina sukaldea eta oheak ere ezarri beharko dizkiogu!!!
- Ane** Eta janari pila ere eramán beharko dugu!

Olatz Begiratu! Liburu horrek, itsasoan nola gidatu ere irakasten du!

Ander Bai... itsasorrazari eta zeruko izarrei ondo begiratu behar zaiela dio!

Ane Beno... Bukatu dugu!

Ander Izen bat jarri beharko diogu orain, ez da?

Txabi Aspaldian ari naiz horretan pentsatzen eta, buruari buelta asko eman ondoren... Txapelgorri izena jartzea pentsatu dut.

Denak Ados!!!

Ander Bihar goizean, eguzkia atera orduko itsasoratuko gara!

7. ESZENA

(Itsasontzian. Mapari begiratu eta norabidea hartzen dute)

Ander Han dago Hartz Txikia. Eta han Iparra. Beraz... horrantz jo behar dugu! *(Behatzez seinalatuz)*

Olatz Nahastuta zaude, Ander, hura Hartz Handia da eta izar distiratsu hori Artizarra...

Txabi Beno, zaudete isilik biok! Gure artean ez dugu haserrerik behar! Bihar goizean gurasoak esnatzen direnean, gu falta garela konturatuko dira, eta pentsatzen dutenean non gauden... Beraz, ezin dugu denborarik galdu. Beti aurrera jo behar dugu!

Ander Beno, gaua ere badator eta txandatu egin beharko gara lo egiteko. Bakoitzak bi orduko txanda egin ondoren, hurrengoa esna dezala!

Txabi Bale! Neu hasiko naiz.

Olatz Ni zure atzetik! Ondoren Ander esnatuko dut eta Ane azkena.

8. ESZENA

(Ander bakarrik gelditzen da. Besteak lo egiteko itxura egiten dute. Denak txandatzan doaz)

Olatz Esna zaitezte! Agudo!

Txabi E... Zer... Aaaaa! Zer duzu, Olatz?

Olatz Zatozte kanpora eta ikusi zer gertatzen den. Lainoak inguratu gaitu eta ez da ezer ikusten.

Ane Eta... orain zer egingo dugu?

Ander Olatz! Gogoratzen al duzu aitonak kontatutakoa? Hone-lako laino batek inguraturik zeudela, kantu bitxi bat entzun zutela eta hark lagundu ziela laino artetik irteten. Gogoratzen?

Txabi Beno, bai! Baina nik ezin dut besoak gurutzaturik itxaron.

Olatz Ideia bat dut!
(Olatzek txirula bat hartu eta jo egiten du. Laino trinkoaren artetik soinu goxo bat entzuten da)
Fiu = Fi = Fi = Fffiuuuuuuuuu...
Azkar! Bakoitza bere postura! Kantu bitxi honi jarraitu behar diogu sirena aurkitu nahi badugu.

9. ESZENA

(Lainoa desagertzen hasten da eta, bat-batean, itsaslamia bat ikusten da harkaitz baten gainean eserita)

Itsaslamia g. Aiba! Egiazko gizonak! Baina zer egiten duzue aho zabalik? Euliak sartuko zaizkizue!

- Ander** Ba... inoiz ez dugu ikusi sirenarik eta...
- Itsaslamia g.** Nik ere ez dut inoiz ikusi benetako gizonik eta... hemen nahiko aspertuta nago! Zuen mundua ezagutu nahi nuke! Hain gauza ederrak dituzuela entzun dut!
- Olatz** Nola duzu izena? Zure lagunak izateko izenez deitu beharko zaitugu!
- Itsaslamia g.** Uhin deitzen didate! Oso saltaria naizelako.
- Txabi** A! Gainera...! Ezagutzen al duzu iduneko hau?
- Uhin** Jope! Ezagutuko ez dut ba? Izeba Hodeik berdina zeukan garai batean eta...
- Olatz** Orduan zure izeba izango zen gure aitona ezagutu zuen sirena!
- Ane** Zatoz gurekin. Gure mundua erakutsiko dizugu. Ikusiko duzu zein ederra den!
(*Itsasontzian sartzen dira*)

10. ESZENA

- Ander** Uhin, sar zaitetz mesedez manta horien artean, portura iristen ari baikara!
- Uhin** Zergatik? Nik dena ikusi nahi dut!
- Ander** Bai, baina oraingoz izkutuan eduki beharko zaitugu! Uler ezazu...
(*Manta baten azpian izkututzen dute. Almadia portuaren iskina batean lotzen dute*)

11. ESZENA

(*Hasierako lekuan, tabernan*)

- Olatz** Aitona, gu gara! Itzuli gara bidaiatik!

- Aitona z.** Zer? Nola? E?... nortzuk zarete? Ene! Bai!!! Itzuli zarete! Eseri hemen. Dena kontatu behar didazue!
(*Lau lagunak aitonaren ondoan esertzen dira, tabernako mahaiaren inguruan. Ahopean dena kontatzen diote. Aitona oso haserre aurpegiz*)
Baina... erotu egin al zarete? Ez al zarete nire istorioaz gogoratzen? Zer uste duzue, gizaki guztiak zuek bezain zintzoak direla?
- Olatz** Beno..., gure laguna da eta hona ekartzeko eskatu digu! Guk zainduko dugu, zaude lasai...
- Aitona z.** Ez nago ados, baina nahi duzue egin, bere gogoz etorri dela badiozue... Hala ere kontuan hartu nik esandakoa: «Nagusiek» ez dezatela inola ere zuen laguna ikusi. Eta nire laguntza behar baduzue, badakizue non nagoen.
- Ander** Eta... bitartean... sirena non utziko dugu?
- Aitona z.** Eraman ezazue irlaren ondoan dagoen hondartzara. Hara ia inor ez da joaten eta sirenak ur gazia behar du bizitzeko!
- Olatz** Eta norbaitek ikusten badu?
- Aitona z.** Ba... sar dezala isatsa ur azpian eta horrela igerian dabilen pertsona normal bat dela pentsatuko dute!
(*Alde egiten dute*)

12. ESZENA

(*Bakoitza bere ohean ikusten da, lo*)

- Ama** Egunooooon!!! Jaiki alferrok, hamaikak dira eta oso eguraldi ona egiten du hondartzara joateko!
(*Ander eta Olatz elkarri begira. Harridura aurpegia jartzen dute*)
- Ander** Ama! Baina gu gara! Olatz eta Ander, berriz ere etxean gaude!

- Ama** Zer diozu, Ander? Ametsetan ibili al zara?
- Olatz** Bai, ama. Anderrek arrazoi du! Itsasoan izugarritzko abentura izan dugu gure almadian. Ez al gaituzu zigortu behar hainbeste egun etxetik kanpo ibili garelako?
- Ama** Ja-ja-ja... Haurrak beti jolas egiteko gogoz. Orain ez dut denborarik, baina gero kontatuko dizkidazue zuen amets horiek.
(Ander eta Olatz, harrituta, elkarri begira daude. Ane eta Txabiri telefonoz deitzen diete)

13. ESZENA

(Hondartzan)

- Ane** Ba... gauza bera gertatu zaigu guri ere! Amak amets bat izango genuela esan digu.
- Txabi** Derrigorrez konturatu behar izan dute. Egun asko pasa dira itsasoratu ginenetik!
- Uhin** Begira! Entzun! Nik ziur ez dakit, baina dirudienez, nire munduan egon zareten bitartean, hemen zuentzat ez da denborarik pasa! Ametsekin gertatzen den bezala!
- Olatz** Hala uste duzu zuk?
- Uhin** Beno... utz dezagun gertatutakoa! Ni zuen ingurua ezagutzera ekarri nauzue eta oraingoz ez dut ikusi hondartza hau eta haitzak besterik. Aspertu egiten naiz hemen!
- Ander** Baina nola eramango zaitugu ba... jendeak ezer susmatu gabe! Gainera ezin zara oinez ibili gu bezala!
- Ane** Badakit! Haurrentzako kotxe batean! Txikiak ginenean baguenen kotxe sendo bat. Oraindik etxean dagoela uste dut!

Olatz Horixe baietz! Kotxean sartu, arrain-isatsa mantatxo batez estali eta Lekeitio erakutsiko diogu. Hori bai dela interesgarria! Iupiiii!!!
(*Alde egiten dute*)

14. ESZENA

(*Ane eta Olatz agertzen dira kotxearekin eta mantatxoarekin. Uhin, barruan*)

Ander Bai dotore dagoela gaur gure haur txikia. Nork erosi dizu txano pinpirin hori?

Uhin Asko axola zait niri daramadan itxura! Hau bai dela ederra! Begira zein etxe ederra! Ikusi han kotxe handi hark daraman habaila! Eta hura, zer da? A, bai, txakur bat! Ez nuen uste hain ederra izango zenik!

Txabi Beno... gaurkoz nahikoa duzu. Zu ez zara nekatzen, baina gu neka-neka egin gara zuri bultzaka!

Uhin Ez! Oraindik ez! Kaia ez dut oraindik ikusi. Tira... ez zaitezte alferrak izan!

Ander Alferrak gu? Baina... zer uste du txotxolo honek? Eramango zaitugu ba... kapritxosoa!
(*Kairantz doaz eta, bertara heltzean, garrasi bat entzuten dute*)

1. umea Sokorro! Laguntza! Nire anaitxoa uretara erori da! Laguntza!

Uhin Banoa! Lasai! (*Manta kentzeko keinua egiten du*)

Olatz Uhin! Baina salto egiten baduzu, denak konturatuko dira sirena bat zarela!!!
(*Uhinek uretara salto egiten du. Inguruan dabilen jende guztia pilatzen da gertatzen dena ikusteko*)

15. ESZENA

(Telebistakoak eta kazetariak Uhini elkarrizketa egiten)

Kazetaria Benetakoa al da itsatsita duzun isatsa? Nondik nora agertu zara? Zer egiten duzu Lekeitioko portuan paseatzen?...

Uhin Guztia jakin nahi baduzue, eraman nazazue telebistara eta hantxe kontatuko dizuet dena. Nire bizitzaz pelikula bat egitea ere proposatzen dizuet.
(Uhin harrotuta dago. Hain panpoxa eta harro ez da inoiz sentitu)

Kazetaria Oso ideia ona deritzat. Famatua egingo zara eta diru asko irabaziko duzu!

Uhin Eta bitartean, non biziko naiz? Aberastasunek ez didate ezertarako balio hondartzatxo horretan sartuta egoteko!

Kazetaria Bale... Donostiako Acuariumera eramango zaitugu. Arrain-ontzi handi bat prestatuko dizugu behar dituzun gauza guztiekin.

16. ESZENA

(Arrain-ontzi barruan ikusten da Uhin. Sekulako etxea prestatu diote: telebista, jantzi dotore, bitxi eta abarrekin. Lagunak datozkio bisitan Acuariumera)

Ane Ene! Uhin, bai bizileku ederra duzula! Egunero zerbait berria duzu! Nik ere nahiko nuke hor bizi!

Ander Bai etxe ederra. Gainera koloretako telebista duzu! Hori da bizimodua, hori!
(Uhin negarrez eta zotinka hasten da)

Uhin Gauza bat aitortu behar dizuet. Erotzat joko nauzue, baina nik hemendik ihes egin nahi dut!

- Txabi** Uhin, burutik zaude ala? Zure munduan ez duzu horrelako jantzi dotorerik, ez eta bitxirik ere. Hemen, zutaz arduratzen diren batzuk ere badituzu. Segituan ekartzen dizute eskatzen duzuna!
- Ane** Guri ere gustatuko litzaiguke zu bezala bizitzea!
- Uhin** Noski, guzti hau oso liluragarria da! Baina nik zertarako nahi dut guzti hau, zertarako bitxiak eta arrain-ontzi honetako apaintasuna, zertarako ospea eta dirua, nire lagunekin jolasean ezin badut ibili, ezin badut bale eta izurdearekin izkutatzera jolasean ibili. Hemen ezin dut horrelakorik egin. Beti dut zerbait, hamarretan telebistan egon behar dudala, hamabi t'erdietan elkarrizketa kazetariekin... ondoren pelikula filmatzen hasi behar dudala!
- Ander** Eta zergatik ez duzu alde egiten?
- Uhin** Ezin dut! Ez da hain erraza! Kontratu asko daukat izenpetuta. Jendeak diru asko irabazten du nirekin eta ez lidakete joaten utziko. Lagundu mesedez, ihes egin behar dut!
- Olatz** Eta gauez, egoten al da norbait Acuarium hau zaintzen?
- Uhin** Bai! Zaindari bat!
- Txabi** Beno, lasai! Orain etxera goaz eta pentsatuko dugu zu hemendik ateratzeko moduren bat. Lasai!

17. ESZENA

(Tabernan agertzen dira denak. Gurasoak ere bai)

- Ane** Badakizue guztiok zer dela eta elkartu garen hemen! Uhinnek laguntza eskatu digu eta denok batera zerbait pentsatu behar dugu. Gauza bat argi dago, Txapelgorrin ihes egin beharko du. Berak ez daki non dagoen bere mundu

lainotsu hura, baina Txapelgorri behin haraino iritsi bazen, berriro ere helduko da. Bi arazo daude: nola atera Uhin Acuariumetik inor konturatu gabe eta bigarren arazoa, ea nork lagunduko dion Uhini bere etxeraino, berak ez daki eta Txapelgorri gidatzen.

Aitona z. Neuk gidatuko dut Txapelgorri. Utzidazue, mesedez. Marinel trebea naiz. Gainera, beti izan dut berriro itsasora itzultzeko gogoia.

Ane Ados! Aitonak gidatu dezala Txapelgorri. Baina nola atera Uhin Acuariumetik?

Olatz Badakit! Pelikula egiteko ateratzen dutenean, jendearekin batera sartuko gara eta engainatu egingo ditugu denak.

18. ESZENA

(Ander eta Olatz dotore jantzita sartzen dira Acuariumera, jendearekin batera. Uhini kolpea eman eta beraiekin ateratzen dute. Txapelgorri dagoen lekura eraman eta han aitona, ama, aita eta denak sartzen dira. Itsasontzian, bere sendiarengana eramaten dute.)

Denak Agur Uhin!!! Agur sirena guztioi!!!

Itsaslamiak Agur eta berriro ikusi arte! Tori bakoitzarentzat iduneko bana, gurekin ahaz ez zaitezten!

Ane Datorren udan berriro itzuliko gara!
(Teloia zarratzen da)

ALTXOR ARKEOLOGIKOA

4. mailako ikasleak,
Araceli Vallejoren ardurapean
Komedia
San Fidel ikastola
Gernika
1992-93

GAIA

Arkeologo batek, aintzinako etxe bat aurkitzean, «altxor» hitza esaten du, horrekin batera dena dantzan jarritz: lapurrak, familia bat, dentista eta laguntzailea... Dena argitu orduko, neskazaharra agertzen da bere txakurtxoari «Altxor» deituz eta berriro hasten da istorioa.

PERTSONAIAK

Arkeologoa	Kontalaria
Atezaina	Dentista
Zorronko	Mamen (bere laguntzailea)
Zirrinki	Fredi
Zurrunka	Maku
Peruki	Petxungo
Ama	Neskazarra
Maria	

1. ESZENA

Arkeologoa	Bai etxe zaharra. Zenbat urte ote ditu?
Atezaina	Uf! Auskalo! Nire gurasoen gurasoen gurasoen gurasoei... bere aiton-amonen aiton-amonen aiton-amonen saldu zieten.
Arkeologoa	Oso interesgarria, bai! Etxe hau «altxor arkeologiko» bat da!
Atezaina	Bai! Altxorra...!!!

2. ESZENA

Zorronko	Altxor bat!!!... Aizue! Etxe horretan altxor bat omen dago!
-----------------	---

Zirrinki Eta nola dakizu hori?

Zorronko Gizon jakintsu horrek esan duelako.

Zurrunka Bai zera. Txorakeriak!... Beno, baliteke hala izatea. Alokatu egingo dugu!

Zirrinki Baita zera ere! Sosik ere ez dugu eta!

Peruki Nik badut dirua!... Nahi baduzue... alokatu egingo dugu!

3. ESZENA

Zurrunka Arratsalde on!... Zera... Logela bat alokatu nahi dugu.

Atezaina Ea, ea... Bilatu egingo dut. (*Ate bat irekiz*) Okupatuaaa!!! (*Beste bat*) Oso okupatuaaa!!! (*Azkenekoa*) Libree!!!... Beno, debekatuta dago zarata egitea. Ados bazaudete... tori giltzak!... O!... Ekaitza dator!

4. ESZENA

Ama Kontuz Maria, putzuetan sartu gabe!

Maria Amatxo! Non sartuko gara ekaitz honekin?

Ama Ez dakit ba!... Ene! Hau zorte ona! Etxe horretan logelak alokatzen dituzte!
Gabon!... Logela bat alokatu nahi genuke.

Atezaina Ea, ea... Bilatu egingo dut... Okupatua!!!, oso okupatua!!!, okupatua!!!, libree!!!... Baina... ez ahaztu debekatuta dagoela zarata egitea!

Ama Eskerrik asko... Etxe hau aurkitzea miraria izan da!

Atezaina Baina.. Zer demontre gertatzen zaio jende guztiari gaur?... Bat batean etxe hau zoragarri bihurtu da?... Aaaaaaaa!... Ohera joan behar dut!

5. ESZENA

Kontalaria Arratsalde on! Hau da Gernikako ikastola?... Kontalari bat behar zutela esan didate eta hona etorri naiz ahalik eta azkarren, baina badakizue nola dabilen trafikoa ordu honetan...
Benoa, lanean hasiko naiz.
Etxe zahar honetan jende asko bizi da. Logela batean Pako, dentista txar eta garestia eta Mamen, bere laguntzaile xarmanta.
Bigarrena mamuz gainezka dago. Hirugarrenean familia oso bat bizi da.
Jende guzti hau oso lasai bizi zen... lapurrak heldu ziren arte...

6. ESZENA

Zorronko Baietz aurkitu! Zera egingo dut: logelaz logela joan eta barnean ea altxor bat ikusi duten galdetu. Hau bai buru azkarra!!!

Kontalaria Esan eta egin!

Zorronko Barkatu... Ez zenuten ikusiko altxor bat hemen barnean?

Dentista eta laguntzailea Altxor bat!!!

Atezaina Ixxxooooo!... Esan ez dizuet ba debekatuta dagoela zarrata egitea? Jendea botatzen hasi beharko dut!... Uhhmmm!

Kontalaria Aaaa... Ze nahastea!... Orain mundu guztiak daki altxorrena!
Zer pentsatuko ote dute logela bakoitzekoek... Ikusteko dago...

(1. logela)

Laguntzailea Altxorra lortu ondoren... bisoi bat... erosiko dut!

- Dentista** Eta ni... jubilatuta egingo naiz!... Baina nola demontre lortuko dugu?
- Laguntzailea** Bizilagun berri horiek jakingo dute!... Galdetu!
- Dentista** Bai... Eta esaten ez badidate... hagin bat aterako diet... «anastasiarik gabe».
- Laguntzailea** Anestesia!!!, gizona, anestesia!!!

(2. logela)

- Fredi** Nik uste dut... altxorra lortzeko... bizilagunak bota behar-ko ditugula lehenengo eta behin.
- Maku** Denak???
- Petxungo** Dentista eta laguntzailea izan ezik!... Beti lagundu digute eta.
- Fredi** Bai zera bota... Izutu... Mamuak garaaa!!!
- Maku** Bai... Sekulako sustoa emango diegu...

7. ESZENA

- Petxungo** Kaixooo!... Ikusi al duzu nire burua... neskatooo?
- Alaba** Buruaaa!... Uaaaaaaa!
- Atezaina** Nork egin du garrasi?... Zuk?... Neskato negarti horrek?... Ba... zu eta zure familiakoak, denak kalera!
- Kontalaria** Horrela gure mamuek familiak alde egitea lortu dute... Baina... lapurrak ere ez dira tontoak eta... mamuek egingakoa ikustean... beraiek ere antzeko zerbait prestatzea erabaki dute.

(3. logela)

- Peruki** Ikusi duzue?... Eta hurrengo, geu kalera!
- Zurrunka** Bai zera, ezta pentsatu ere! Zatozte... ideia bat bururatu zait...
- Zorronko** Dirua lapurtuko diegu!... Eta pagatzekorik ez badute...
- Zirrinki** Atezainak... bota egingo ditu beraiek ere!
- Kontalaria** Eta horrela izan zen!
- Atezaina** Ez didazue pagatu nahi... eeee? Baaa... kalera!

8. ESZENA

- Kontalaria** A zer historia tristea... eta zer lapur azkarrak! Baina... oraindik dentista eta laguntzailea gelditzen dira... eta, noski... altxorra lortu nahian!
- Dentista** Tok-tok-tok!... Zera... Zuekin hitz egin nahi nuen... Zas!... Altxorra non dagoen esaten ez badidazue... hagin bat aterako diot honi... eta... «anastasiarik gabe!!!
- Laguntzailea** Anestesia!... Kontxo!... Anestesia!
- Beste lapurrak** Guk ez... dakigu...
- Laguntzailea** Atera!!!...
- Zirrinki** Ezzzzzzz!... Ezzzzzz!
- Atezaina** Eta orain... Nor ari da oihuka?
- Denak** Horiek!...
- Atezaina** Denak eee???... Kaleraaa!!!
- Zurrunka** Bale, bale, lasai... Joango gara... Baina... lehenengo eta behin, erantzun galdera bati: non demontre dago altxorra?

Atezaina Zer altxor???

Zorronko Ba... Gizon jakintsu hark esan zuen altxorra! Zein ba...?

Atezaina Zer gizon?... Aaa!... Arkeologoa!!! Ja, Ja, Ja!!! Ez dago altxorrik!

Denak Zeeeeer???

Atezaina Altxorra... Etxea bera da!... Arkeologi aldetik begiratuta etxe hau altxorra dela esan zuen. Ja, ja, ja! Eskerrak... guzti hau... bukatu dela...

Kontalaria Ez... ba,... Ez da horrela bukatuko...

9. ESZENA

Neskazarra Txotxi maitea... Zatoz amatxorekin!... (*Publikoari*)... Erosketak egin behar ditut eta... ez dakit non utzi... nire txakur polita bitartean...
A...! Gizon horri esango diot... Egunon...! Zainduko al zenidake nire «Altxor» txikia?...

Atezaina E...! Ezzzzzz! Altxorra!!! Historia berbera berriro? Ezzzzzzzz!!! Ezzzzzz!!!

ANTONINO APRETA

8. mailako ikasleak,
Itziar Gurmendi eta Itziar Egiguren ardurapean
Ipuin antzeztua
Langile ikastola
Hernani
1993-94

GAIA

Zapatari batek zapatak egin behar dizkio digante bati. Honek, bere gustokoak ez direnez, alabaren zapatak lapurtzen dizkio. Horiek berreskuratu nahian, zapataria elefante larru bila joaten da, digantearen gustoko zapatak egin ahal izateko. Edari aparta lortzen du, digantea txikitu egiten duena. Azkenean dena konpontzen da.

PERTSONAIAK

Antonino	1. laguna
Alaba	Elefantea
Bizilaguna	Jirafa
Bonbolino digantea	2. laguna
Txoria	Jendea

1. ESZENA

(Antonino bere alabarekin)

- Alaba** Aita, herri honetako zapatari hoberena zara, oinetako mota guztiak konpontzen dituzu, berdin bota handiak, nola sandalia eta mokasinak; eta ez hori bakarrik, zapatak ere egiten dituzu, eta ez nolanhikoak gero; sekula minik ematen ez duten zapata polit, poxpolin, ponpoxo eta potxoloak.
- Antonino** Bai, eta horregatik erregalo bat egingo dizut, urre eta zilarrezko zapatak!
- Alaba** Urre eta zilarrezko zapatak!
- Bizilaguna** Antonino! Antonino! Oso berri txarra zeukaagu hiretzat.

- Antonino** Zer berri?
- Bizilaguna** Bonbolino datorrela hire bila.
- Antonino** Eta zein duk Bonbolino hori?
- Bizilaguna** Ez al dakik? Bonbolino digante tzar bat duk... etxe hau bezain altua, sagardo upela bezain lodia...
- Antonino** Lasai, gizona, lasai! Zer nahi dik digante horrek nigandik?
- Bizilaguna** Zer nahi duen! Zer nahiko dik ba! Zapata pare bat!
- Antonino** A, hori besterik ez bada, zapatariak horretarako gaudek, zapatak egiteko. Etxe hau bezain altua dela esan duk, ez da?
- Bizilaguna** Bai, eta sagardo upela bezain lodia dela!
- Antonino** Orduan, (*Kalkulatuz*) bere oinak bi metrokoa izan behar dik!
- Bizilaguna** Eta horrekin zer?
- Antonino** Ba, tamaina horretako bi zapata pare egingo dizkiodala Bonbolinori. Bat ez bada, gustatuko zaiok bestea... ez kezkatu, laguna! Segi etxera lasai!
- Bizilaguna** Ondo, Antonino, baina kontuz ibili hadi, digante horrek jenio txit petrala dik eta!

2. ESZENA

(Hiru egun pasa dira. Leku bera)

- Antonino** Hiru egun pasa ditut, lana gogotik eginda, zapatak bukatzeko, alaba.
- Alaba** Lurra ikaran da, aita.

- Antonino** Bonbolinoren pausoak dira; ez, ez da lurrikara.
(*Digantea herrira sartzen da*)
- Antonino** E! E! Hemen naizela! Ni naizela bila zabiltzan zapataria!
- Digantea** Hi al haiz, txatxu zikina!
- Antonino** Zer nahi duzu jauna?
- Digantea** Hiri zer iruditzen zaik, demonio tontoa! Zapatak!
Ekarrizkidak zapatak! Ez al duk ikusten hankautsik nabilela!
- Antonino** Segituan, jauna. Eseri zaitetz txabola horren gainean. Aiseago probatuko dituzu horrela.
(*Zapatak puskatzen zaizkio*)
- Digantea** Kaka zaharra! Paparezkoak egin dizkidak!
- Antonino** Ez, jauna, ez. Larruzkoak dira!
- Digantea** Egon hadi ixilik, txoro alena! Ekarridak beste pare bat!
- Antonino** Hara hemen, jauna.
- Digantea** Horiek? Horiek ekartzen al dizkidak?
- Antonino** Zer ba? Ez al zaizkizu gustatzen?
- Digantea** Ezta kozkorrik ere! Bat ere ez! Zapata gorriek buruko mina ematen zidatek! Kenduizkidak bistatik, babo zorritsua!
- Antonino** Bai, jauna, bai... segituan!
- Digantea** Nazkante zikina! Holakoak dituk hire guztiak? E? Holakoak al dituk?
- Antonino** Ba... bai, jauna!
- Digantea** Ni ez nauk ba zapatarik gabe geldituko! Puskatzen ez diren zapatak egin beharko dizkidak! Horixe baietz!

- Antonino** Zuk hala nahi izanez gero... burdinazkoak egingo dizkizut...
- Digantea** Baina hik zer uste duk? Niri ez zaizkidak zapata gogorak gustatzen! Fuerteak bai, baina gogorak ez!
- Antonino** Halakoak egingo dizkizut. Barka, jauna, zein koloretako zapatak desio dituzu?
- Digantea** Marroiak!
- Antonino** Marroiak izango dira orduan. Nongo larruz egin behar ditut zapata fuerte, biguin eta marroiak?
- Digantea** Heuk jakingo duk hori! Bitartean, ziurtagiri gisa, gauza bat kenduko diat! (*Bonbolinok sartzen du eskua zamarraren sakelean eta txori beltz bat, mikaren antzekoa, ateratzen du*). Esaidak, beltza!... Zer maite dik zapatariak gehiena?
- Txoria** Bere alabak dauzkan urre-zilarrezko zapatak! Bere alabak dauzkan urre-zilarrezko zapatak! Bere ala...
- Digantea** Ixo, beltza! Esaidak orain... zer kenduko zioagu zapatarriari?
- Txoria** Bere alabak dauzkan urre-zilarrezko zapatak!
- Digantea** Ederto! Joan eta kenduizkiok, beltza!
- Antonino** Ez, ez, nire alabari erregalatutako zapatak ez!
- Digantea** Adio, zapatari putza! Hilabete barru etorriko nauk, eta nire zapatak egin gabe bazeudek, orduan akabo hire alabaren urre eta zilarrak! Ene eskuekin txirtxilatuko ditiat eta! (*Alde egiten du*)
(*Antonino negarrez geratzen da*)
- Alaba** Aita, ez tristetu! Badakit trantze honetatik nola atera!

- Antonino** Nola, alaba?
- Alaba** Elefante bat bilatuz, aita! Hala erakutsi didate eskolan, elefanteak duela larrurik fuertena... fuertea eta biguina, diganteak nahi duen bezalakoa!
- Antonino** Eta marroia! Elefanteek larru marroia dute! Arrazoi duzu alaba! Zoologikora joango naiz, edo oihanera..., alaba, eta elefante baten larrua eskatuko diot han daukadan lagun bati...
- Alaba** Joan zaitetz ba, aita. Ni etxean geratuko naiz, zain.

3. ESZENA

(Zooan)

- Antonino** Egun oso bat behar izan diat hona ailegatzeko eta min eman zidak alaba bakarrik uztea, baina...
- 1. laguna** Bai, konprenditzen diat hire kasua, Antonino, baina hemen ez zeukaagu elefanterik!
- Antonino** Non zeudek, ba?
- 1. laguna** Urruti xamar, Antonino. Aurrena itsasoa pasa beharra zegok, eta gero desertua... Horiek biak pasatakoan dauden baso eta oihan handietan bizi dituk elefanteak.
(Hori entzutean, zapatariak izugarrizko nahigabea hartzen du)
- 1. laguna** Begira, Antonino... ez hadi hain triste jarri. Hala nahi baduk, nik lagunduko diat. Bion artean aurkituko diagu elefantea...
- Antonino** Asko estimatzen diat, laguna! Mesede handikoa zaidak hire laguntza!
- 1. laguna** Lehenbailehen abia gaitezen!
(Alde egiten dute)

4. ESZENA

(Oihanean)

- 1. laguna** Azkenean! Elefanteak, Antonino!
- Antonino** Goazen gure kasua esplikatzerara!
- 1. laguna** Ipurdiko ederrak hartzekoak zeudek, gizarajoak!... Basoko animaliek bolada txarrak eta bolada onak baitituzte. Eta hori zortea!
- Elefantea** Aizak hi! Guk nahikoa diagu geure problemekin!
- Antonino** Baina ez al didazue hor nonbait daukazuen larru zaharren bat eman behar?
- Elefantea** Aizak hi! Orain dela gutxi sua izan genian, den-dena erre zuen su latza... nondik jan ez dakigula gabiltzak! Beraz, martxa hemendik!
- Antonino** Nik larru zahar bat besterik ez dizuet eskatzen.
- Elefantea** Aizak hi! Hik ekarriko al dizkiguk landare eta zuhaitz hosto goxoak?
(Antoninok ezetz esaten du buruarekin)
- Elefantea** Aizak hi! Zer nahi duk orduan! Gure larruak musutruk ematea! Ezta pentsatu ere! Nork bereak konpon ditzala!
(Elefanteak alde egiten du. Jirafa ttiki-ttiki bat agertzen da)
- Antonino** Esaidak, laguna, jirafak ez al dituk lepoluzeak eta gu baino hiru bider handiagoak?
- 1. laguna** Bai, noski!
- Antonino** Orduan, hor dagoen hori nola duk hain txikia?
- 1. laguna** Berari galdetzea hoberena!

- Antonino** Aizu, barka ezazu, zuek ez al duzue tamaina dexentea izaten? Eta ez al zarete lepoluzeak?
- Jirafa** Bai, baina, aspertuta nengoen nire itxurarekin. Handi izateak enbarazu asko ohi dakar.
- Antonino** Aizu, askotxo galdetzea ez bada, nola jarri zara hola, nola bihurtu zara txiki?
- Jirafa** Nola? Ba, Txikimizina hartuz!
- Antonino** Txikimizina?
- Jirafa** Bai... ikusten duzu botila hori? Ba, hortik zurrut eginez gero, hamar aldiz txikiagoa egiten zara...
- Antonino** Ez egidazu esan! Oi, zer poza!
- 1. laguna** Baina zertan lagunduko ziguk Txikimizinak, Antonino?
- Antonino** Ez al duk konprenditzen, lagun? Bonbolino etortzen de-nean, honetatik edateko esango zioat, eta orduan...
- 1. laguna** Tamaina normala hartuko dik! Eta orduan...
- Antonino** Eta orduan den-denak pagatu beharko zizkidak!
- Jirafa** Bueno, bueno, ez dut ezer konprenditzen. Baina botila eraman nahi baduzue, eraman, erregalatu egiten dizuet!
- Antonino** Mila esker! Adio! Goazen korrika...
(*Antonino eta bere laguna etxerantz doaz*)

5. ESZENA

(*Etxean*)

- Alaba** Ai, aitatxo! Gehiago ez zinela etorriko uste nuen!

- Antonino** Ai alabatxo! Biaje luzea egin behar izan du aitak! Baina orain, konponduta dago den-dena!
- Alaba** Diganteak bueltatu egingo al dizkit ene urre eta zilarrezko zapatak?
- Antonino** Bueltatu beharko!... Aizu, alabatxo, joan zaitez etxez etxe eta esan denei hona etortzeko! Herritar guztiak bildu beharra daukagula!
(*Alabak aitaren esana egiten du*)
- Antonino** Nire asmoa hauxe duk, diganteari Txikimizina edanaraztea. Edango ez balu, nire alabaren zapatak galduko litizkek!
- 2. laguna** Eta nola lortuko dik hori, Antonino?
- Antonino** Ba, Bonbolinori sekulako errezibimendua eginez, bere etorreraz poztuko bagina bezala, eta gainera...

6. ESZENA

(*Jendea. Digantea sartzen da*)

- Antonino** Biba Bonbolino digantea!
- Jendea** Biba!
- Antonino** Biba Bonbolino digantea!
- Jendea** Biba! Biba!
- Digantea** Jua-jua-jua!
- Antonino** Orain, ene lagun maiteok, gure Bonbolino maitearen ohorez brindis bat egingo dugu! Brindis bat, mesedez eta faborez!
- Jendea** Biba Banbolino!

Antonino Zer iruditzen zaizu, digante jauna? Edango al dugu zure ohorez?

Digantea Edan bai, edan. Jua-jua-jua!

Antonino Baina zeuk ere edan, e?

Digantea Bai, bai, jua-jua!

Antonino Orduan zabal ezazu ahoa.
(*Diganteak zabal-zabalik jartzen du ahoa*)

Digantea Mundua hazi egin da!

Antonino Mundua hazi ez, hi ttikitu eta urritu!

Antonino Tok ostiko hau!

Digantea Aiii! Aiii! Barkatu, Antonino! Barkatu!

Antonino Tok beste hau!

Digantea Atxt, atxt! Barkatu! Barkatu!

Antonino Aizak! Non zeudek urre-zilarrezko zapatak?

Digantea Txoriak dauzka, txori beltzak dauzka!

Antonino Eta non zegok txori hori?

Digantea Basoan, Antonino, basoan!

Antonino Eraman gaitzak txoriak habia daukan tokiraino!
(*Alde egiten dute*)

7. ESZENA

(*Basoan. Ailegatutakoan, txori beltza hiltzen du Antoninok eta zapata politak jazten dizkio alabari*)

8. ESZENA

(*Bonbolino Antoninoren tailerrean, zapatari ikasten*)

ARAMAIOREN DEABRUKERIAK

Evaristo Bustintza (Kirikiño)
Elizabeth Akizuk egokitua
5. mailako ikasleek antzeztua
Komedia
Almen ikastola
Eskoriatza
1992-93

GAIA

Agure batek kontatzen du nola Urkiolako taberna batean gazte talde bat harrokeria eta handikeria ezin nabarmenagoak botatzen ari zen eta nola «Aramaiio» gaitzizeneko agure zahar, mehe eta kaxkar batek izugarrizko jipoia eman eta gainera pixa ere egin zien burutik behera, bere jukutriez eta zaharren jakinduriaz baliatuz.

PERTSONAIAK

Aramaio
Manu (morroia)
2 agure
4 gazte
3 atso

1. ESZENA

(Bi agure berriketan)

- 1. agurea** Hori da agurearen mehea!
- 2. agurea** Nola? Aramaio?
- 1. agurea** Aramaio du izena, hangoa baita... Arroa t'erdi astun ez da bera.
- 2. agurea** Ez, baina horren argal eta horren zahar eta horren zarpail ikusten duzun agure eskale horrek, lehengo gau batean makilaka apurtu zituen laupabost mutil gazte sendo, eta gainera txiz egin burutik behera.
- 1. agurea** Gezur galanta bota duzu ba, gizona, eta borobila bota ere!.

2. agurea Banekien gezurtzat hartuko zenidala, baina ez da gezurra. Gertaera hori ikusi zutenak ez dira urruti bizi; hala ere, beren testigantza gabe ere sinetsiko duzu nola izan zen azaldutakoan.

1. agurea Ea ba. Has zaitetz eta ikusiko dugu sinets daitekeen ala ez.

2. ESZENA

(Urkiolako taberna batean lau mutil gazte mahai batean, harrokeria dariela, nork ausarkeria handiagoa botako. In-dartsu, Nafarroako edari beltzak barrua ongi berotuta, aupadaka ari dira, harroaren harroaz, fraketan ere sartu ezinda.

Beraiekin batera tabernan, entzule, hiru emakume, Manu, hirurogei urte inguruko agure baketsua, ostatuko morroia eta Aramaio, agure zimela)

1. gaztea Ieup! Gaur goizean basora joan nauk eta itzelezkoak egin ditiat: pago enborrak moztu, bizkarrean traktorerraino eramán, kargatu eta gainera gero, baserrira heldutakoan deskargatu, berriz ere bizkarrean binan-binan pilatuta daukagun larrineraino eramán eta ondoren sorora joan eta han ere egundokoak egin.

2. gaztea Hori ez duk gauza handirik. Horrelakoak noiznahi egiten ditiat nik ere! Nik esku bakarrez garraiatzen diat 60 kiloko pentsu zakua eta 100 kilokoa ere garraitzeko kapaz nauk! Bai horixe!

3. gaztea *(4. gazteari zuzenduz)* Hi, Martin, ez dituk makalak bi hauek! Ez ditek bikote makala egiten, ez horixe! Igertzen duk hauek ere gazteak direla, geu bezalaxe! Baina hauek guk baino lanerako joera haundiagoa zeukatek. Bi hauek horretarako zeukatek sasoia. Guk, ordea, juerga eta borrokarako. Horretan bai ez dugula parekorik!

4. gaztea Ez horixe. Oraindik ez duk jaio guri atzera eragingo digun gizonik. Inguru hauetan egin ditugun ekinaldi guztie-

tan atera gaituk garaile. Ez zegok gaztea eta sasoikoa izatea bezalakorik! Orain ere prest nagok ni edozeini irabazteko. (*Tabernan daudenei zuzenduz eta ahotsa aldatuz*) Norbait ausartzen al da frogatzera?

3. gaztea

Hori, hori! Hemen gaude eta, edozertarako prest!

1. gaztea

(*Ukabilaz mahaia joaz*) Aupa mutilok! Ederto esana! Ez litzaiguke bat ere gaizki etorriko horrelako saiotxo bat pixkat dibertitzeko!

2. gaztea

Inguruan ditugun zahar ximel hauekin jai zeukaagu. Hauek beren hanken gainean zutik egotearekin nahiko zeukatek.

Aramaio

(*Aramaio, sukaldean eserita, hainbeste harrokeria ustelekin kokoteraino eginda, Manu morroiari zuzenduz*)

Manu, nahi al duk bero diezaiegun bion artean hauei bizkarra?

Manu

Burutik jota hago ala? Gu zer gaituk ba horientzat? Mutilak zeudek horretarako!

Aramaio

Ba, hik nahi ez baduk, neuk egingo diat.

Manu

Egin ezak, baina segituan egingo diok agur sekulako Aramaio aldeari.

(*Aramaiok alde egiten du sukaldetik. Atariko teilatupean isil-isilik aulki luze bi zeharretara ipini, aupada oihua jaurti, makilaz arrast egin lurrean, eta boza aldatuz, deiadarka*)

Aramaio

Irten hona hor berriketan ari diren oilokumeak!

(*Hau entzun ordukoxe, jaiki mutilak dauden lekuetatik eta, amorratuta, tximistak bezala irteten dira atarira. Aulkietan estrapozu egin eta lurrera jausten dira bata bestearen gainera, aienaka eta erdi arnasagabe, minaren minez. Bitartean, agureak azkar erabiltzen du makila eta errukirik gabe egurtzen ditu. Berriz sukaldean sartzen da. Mutilak zaurituta agertzen dira tabernan, banan-banan. Aramaio sartzen da, txintxo aurpegiaz. Morroia, isilka*)

Manu Hik egin duk, hik, demoniokeria! Jakingo balute, jakin... gizarajoa hi!

3. ESZENA

(Makilatuak zerbait lasaitu direnean, amorru bizian dabil-tza etxe inguruak eta barruak arakatzen, etsaiak aurkitu eta bertan txikitzeko gogoaz, baina... inor ere ez. Aramaio, seriotasun handienaz.)

Aramaio Gizonak, mundu honetan asko ikasteko, asko bizi; bestela, nork esango zigun guri inori horrelako gaiztakeria bururatuko zitzaionik?
(Denak sukaldean biltzen dira odoluneen sendagai onena-ren bila, eztabaidan)

Aramaio Entzuidazue, mesedez, denok! Nik holako gauzetan zuek baino gehiago dakit, zuek baino gehiago ikusia bainaiz, eta neuk esaten dizuet ez dagoela horretarako gizon hel-duen txiza baino gauza hoberik eta txiz hori bero-bero egonez gero, askoz hobeto.

1. atsoa Ahaztuta neukan, baina makinatxo bat zauri sendatu ge-nituen erremedio horrekin etxean, gazte denboran, bai horixe!

2. atsoa Nola demontre ez zait bururatu lehenago! Ez da erreme-dio makala; behin baino gehiagotan erabili izan dut nik ere, eta ondorio ezin hobeekin gainera!

3. atsoa Nik ere sarri askotan entzun nion amona zenari *(Aitaren eginaz)* Jainkoak zeruan gorde dezala. Goazen ba katilu batzuen bila, Manu eta Aramaioren txiza jaso eta bero-tzeko!
(Irteten dira atsoak eta agure-mutilak bakarrik geratzen dira)

Aramaio Mutilak, zertan arraio ibiliko gaituk txiza katilura egiten? Neuk botako dizuet kontuz-kontuz bakoitzari txiz apur bat eta, horrela, hoztu gabe hartuko duzue erremedioa.

- 2. gaztea** Errekontxo, txerrikeria hori ere bai?
- 3. gaztea** Ez zekiat ba... baina hain ona baldin baduk...
- 1. gaztea** Momentu honetan edozein gauza egingo nitek min hau kentzeko, baina horretatik pasatu beharra gogorra duk benetan, demontre!
- 4. gaztea** Zalantzan nagok, ez duk txerrikeria makala ditzosozko erremedio hori!
- Aramaio** Zer txerrikeria? Zer da ba? Sendagai kontuetan txerrikeriarik ez zegok. Hobeki esan, guztiak dituk txerrikeriak, baina ez ditik inork halakotzat hartzen.
- 4. gaztea** Arrazoi pixka bat baduk. Tira ba, tira ba!
(Aramaio jarleku batera igoten da eta egitekoa egiten du. Gero mutilek alde egiten dute. Aramaio sukaldean)
- Aramaio** Harrotxo ibili zarete, baina zeuenak badaramatzazue, gazteak eta sendoak izan arren. Zaharrak ginela eta, horrenbeste aupada entzun behar genuen ala?
Zaharrei utzi bake-bakean... asko dakite eta!

ARIN-ARIN ERBIA

2. mailako ikasleak,
Marga Rodriguez eta Nieves Guillenen ardurapean
Ipuin antzeztua
Domingo Agirre herri ikastetxea
Legazpi
1992-93

GAIA

Erbi baten istorioa da. Aspertuta dago bere etxean eta mundua ikustea erabakitzen du. Bere gurasoek ez diote uzten eta esaten diote zer nolako arriskuak aurkituko dituen. Erbiak ez die kasurik egiten eta esan diotena gertatzen zaio. Arin-arin oso azkarra da eta tranpa egiten die bere etsaiei. Azkenean, abentura pasa ondoren, etxera itzultzen da.

PERTSONAIAK

Kontalaria
Erbia
Aita
Ama
Untxi laguna
4 txakur
4 azeri
4 ehiztari

Kontalaria Arin-arin erbia mendian bizi da. Etxea zulo batean du eta oso ilun dago beti. Gurasoekin bizi da eta lagunekin jolas egiterik ez duenez, asper-asper eginda egoten da.

Erbia Aita, kalera joan nahi dut.

Aita Kalera? Kalean azeriak jango zaitu... ume!!!

Erbia Ez, ez nau jango, oso arina naiz eta.

Aita Ba ez, ez zara joango.

Kontalaria Beste egun batean...

Erbia Ama, kalera joan nahi dut.

- Ama** Kalera? Kalean txakurrak harrapatuko zaitu, ume!
- Erbia** Ez, ez nau harrapatuko, oso arina naiz eta.
- Ama** Ba... ez, ez zara joango.
- Kontalaria** (*Berriro negarrari ekiten dio*) Arin-arinekin berriro aitarekin aproba egitea pentsatu du.
- Erbia** Aita, kalera joan nahi dut.
- Aita** Kalera? Kalean ehiztariak, pun pun! Hilko zaitu!
- Erbia** Ez, ez nau hilko, oso arina naiz eta.
- Aita** Beno, beno... ikusiko duzu.
- Kontalaria** Azkenean zulotik irten eta poz-pezik doa Arin-arin salto-ka eta brinkoka. Bidean doala, untxi lagunarekin topo egiten du eta hizketan hasten dira.
- Untxia** Nora zoaz?
- Erbia** Mundua ezagutzera; etxean aspertu egiten naiz.
- Untxia** Baina... ez egin horrelakorik. Etxetik urrun zaudenean, etsaiek hil egingo zaituzte.
- Erbia** Ez, ni zu baino arinagoa naiz eta ez naiz beldurtzen.
- Untxia** Agur ba, eta kontuz ibili.
- Kontalaria** Gure lagunak korrika eta brinkoka jarraitzen du, baina bat-batean... Zas! Azeri batzuk ikusten ditu zuhaitz baten azpian.
- Untxia** Nortzuk zarete zuek?
- Azeriak** Gu? Azeriak, eta jan egingo zaitugu.
- Untxia** Aaaag! Zer hortz itsusiak dituzuen! Joan eta garbitu ibaian!

- Azeriak** Bai, baina zuk ez inora alde egin, hemen egon, e?
- Kontalaria** Baina Arin-arinek ihes egiten die azeriei. Gero, bidean... Zas! Lau txakur ikusten ditu.
- Erbia** Nortzuk zarete zuek?
- Txakurrak** Gu? Txakurrak, eta harrapatu egingo zaitugu.
- Erbia** Aaaag! Zer mingain zikina duzuen! Joan eta garbitu ibaian!
- Txakurrak** Beno! Baina zuk ez inora alde egin, hemen egon, e!
- Kontalaria** Arin-arinek ihes egiten die txakurrei ere eta aurrera doa bidean. Bat-batean... Zas! Ehiztariak ikusten ditu lurrean eserita.
- Erbia** Nortzuk zarete zuek?
- Ehiztariak** Gu? Ehiztariak, eta hil egingo zaitugu.
- Erbia** Aaaag! Zer begi tristeak dituzuen! Joan eta garbitu ibaian!
- Kontalaria** Bitartean, Arin-arin korrika itzultzen da zulora. Lehenik azeriei egin die agur, sarreratik.
- Erbia** Agur, azeri memeloak! Ni behintzat ez nauzue jango!
- Kontalaria** Gero txakurra agurtu du.
- Erbia** Agur, txakur memeloak! Ni behintzat ez nauzue harrapatuko!
- Kontalaria** Azkenean, ehiztariak agurtzen ditu.
- Erbia** Agur, ehiztari memeloak! Ni behintzat ez nauzue hilko!
- Kontalaria** Eta azeriak, txakurrak eta ehiztariak haserre geratu dira ibai ondoan. Arin-arinek zulo barruan sartu eta gurasoei kontatu die abentura.

ARRAINTXOA

Ikasleak, Anselmo Vegaren ardurapean
Ipuin antzeztua
Angiozarko herri ikastetxea
Bergara
1991-92

GAIA

Arrantzale batek arrain sorgindua harrapatzen du eta, bere emaztearen handinahiak behartuta, arraintxoari bost gurari eskatzen dizkio.

PERTSONAIAK

Arrantzalea	1. soldadua
Alizia (bere emaztea)	Erregina
Arraina	2. soldadua
Andere dotorea	3. soldadua
Morroia	Kontalaria
Printzesa	

Alizia Zer egiten duzu hemen?

Arrantzalea Zer egingo dut, ba? Hemen, pipa erretzen.

Alizia Noiz joango zara ba arrantzara?

Arrantzalea Lasai, joango naiz.

Alizia Zurekin ezin dugu ezer lortu. Baso batean biziko bagina badarik ere, egurra edukiko genuke txabola bat egiteko...

Arrantzalea Baina gu arrantzaleak gara. Basoan ez dago arrainik.

Alizia Ez zaitez geratu hor, gutxienez joan arrantza egitera! Egin zedozer!

Arrantzalea Beno, beno, banoa!
(*Poliki-poliki altxatzen doa; itsasora abiatzen da. Arraunak hartzen ditu eta irten egiten da*)

- Alizia** Aiii...! Zer egingo dut nik gizon honekin?
(*Beste aldetik irteten da*)
(*Marinela hasten da itsasoan aurrera, arraunean; itsasoa bare-bare dago eta abesti bat entzuten da...*)
- Arrantzalea** Sarea botako dut ea arrain asko harrapatzen dudan. (*Sarea botatzen du*) Ea ba! (*Saretik tira egiten du*) Hau zorte txarra! Arrain bat ere ez! Beste aldetik botako dut. (*Sarea botatzen du*)
Oraintxe harrapatuko dut zerbait. (*Sarea jasotzen du*) Ba! Ezer ez! Horrela jarraituz gero ez dut ezer lortuko, egun osoa sarea botatzen eta dena alferrik.
Beste aldetik botako dut. Ea... (*Botatzen du*) Algak egoten diren lekuan arrainak agertu ohi dira. Ikusiko dugu! (*Saretik tiraka*) Zerbait dagoela sumatzen dut. Ene! Arrain bat, arrain gorri bat.
- Arraina** Mesedez, ez nazazu uretatik atera!
- Arrantzalea** Baina... baina... arraina eta hitz egiten
- Arraina** Ni ez naiz benetako arraina, ni printze sorgindua naiz.
- Arrantzalea** Nola?
- Arraina** Bai, sorgin gaizto batek sorgindu eta arrain bihurtu nau. Nire haragia jateak ez du ezertarako balio, mesedez utz nazazu aske.
- Arrantzalea** Ez dakit ba?
- Arraina** Eskatu, eskatu nahi duzuna eta eman egingo dizut. Baina mesedez, utz nazazu aske!
- Arrantzalea** Beno, beno, zoaz! Ez dut sorgin kontuetan sartu nahi.
(*Arraina askatu eta etxera abiatzen da arrantzalea. Ailegatzten denean, Alizia agertzen da*)
- Alizia** Zer, gizona, asko harrapatu duzu?
- Arrantzalea** Bat ere ez!

- Alizia** Ezetz? Gaur ere ez duzula ezer harrapatu? Beno, eta zer egin duzu?
- Arrantzalea** Sarea bota eta bota, eta azkenean arrain gorri bat agertu da.
- Alizia** Arrain gorri bat?
- Arrantzalea** Bai, eta printze sorgindua zela esan dit.
- Alizia** Printze sorgindua!
- Arrantzalea** Bai, andrea, bai! Eta esan dit nahi nuena eskatzeko.
- Alizia** Eta zuk zer eskatu diozu?
- Arrantzalea** Zer eskatu? Ba...
- Alizia** Txotxoloa halakoa! Zoaz eta eskatu!
- Arrantzalea** Zer eskatuko diot, ba?
- Alizia** Ai... zu ere bazara gero! Bizitza osoa daramat etxe berri bat eskatzen eta ez dakizula zer eskatu?
- Arrantzalea** Baina nola emango digu ba etxe bat?
- Alizia** Printze sorgindua bada, zergatik ez? Aide! Aide! Ospa!
- Arrantzalea** Beno, beno, banoa.
(Txalupa hartzen du eta abesten doa)
- Arrantzalea** Arraintxoa!... Arraintxoa!... Arraintxoa!
- Arraina** Zer nahi duzu, arrantzale?
- Arrantzalea** Nik ezer ez, Aliziak, nire andreak, etxe berri bat nahi duela...
- Arraina** Ongi da. Zoaz etxera, zure andreak badauka nahi duena eta.

*(Arrantzalea etxera itzultzen da eta etxe berria ikusten du.
Andrea aurrean du)*

- Arrantzalea** Zelako etxe polita!
- Alizia** Bai, bai, ikusten duzu?
- Arrantzalea** Bai. Orain bai biziko garela pozik!
- Alizia** Bai, baliteke.
*(Musika entzuten da. Andere dotore bat agertzen da,
morroiarekin paseatzen)*
- Anderea** Egun on, arrantzaleok!
- Alizia eta
arrantzalea** Baita zuri ere!
- Morroia** Hemen bizi zarete?
- Alizia** Bai, etxe polita da, ez da?
- Anderea** Baina oso txikia; nireak hogeit hamar logela dauzka eta lorategi
handi bat.
- Alizia** Lorategia?
- Arrantzalea** Hogeit hamar logela? Denak txukun edukitzeko, a zer nolako
lana!
- Anderea** Horretarako daude morroiak!
- Alizia** Morroiak badituzu orduan?
- Anderea** Bai, bai. Beno, agur. Ni banoa. Goazen, mutil!
*(Anderea irteten da; arrantzalea eta Alizia haiei begira ge-
ratzen dira)*
- Alizia** Entzun duzu?
- Arrantzalea** Bai, eta zer?

- Alizia** Ai...! Zelako etxe polita! Hogei logela! Eta lorategia, dena lorez beteta, eta morroiak, noski. Ai...! Eta zer jantzi dotoreak, ez gu bezala, arlote itxura honekin... Niri ere gustatzeko litzaidake...
- Arrantzalea** Baina, gu hemen oso gustora gaude eta.
- Alizia** Ez ezazu tontokeriarik esan, gizona! Zoaz arrainarengana eta eskatu etxe handi bat, eta jantzi dotoreak niretzat.
- Arrantzalea** Baina nola emango digu etxe handi bat?
- Alizia** Lehen eman digun moduan. Aide! Aide! Ospa!
- Arrantzalea** Beno, beno, banoa!
(*Arrantzalea itsasora abiatzen da, abesten*)
- Arrantzalea** Arraintxoa!... Arraintxoa!... Arraintxoa!
- Arraina** Zer nahi duzu orain?
- Arrantzalea** Nik ezer ez. Aliziak, nire andreak, etxe handi bat eta jantzi dotoreak nahi ditu.
- Arraina** Ongi da. Zoaz etxera, zure andreak badauka nahi duena eta.
(*Arrantzalea etxera itzultzen da eta etxe berriaren aurrean topatzen du Alizia*)
- Alizia** Begira! Begira! Ez da harritzekoa? Inoiz ikusi duzu horrelako etxe politik!
- Arrantzalea** Egia esan, inoiz ez. Orain bai biziko garela pozik !
- Alizia** Bai, baliteke.
(*Gorteko musika entzuten da; urrutitik, baina hurbiltzen doa. Arrantzaleak adi*)
- Alizia** Zer entzuten da?
(*Musika hurbilago entzuten da. Komitiba bat sartzen da. Printzesa bat eta bere morroiak*)

- Printzesa** Egun on, arrantzaleok!
- Arrantzalea eta Alizia** Egun on!
- Alizia** Nor zara zu?
- Morroia** Ez duzu ikusten printzesa bat dela?
- Arrantzalea eta Alizia** Printzesa bat!
- Arrantzalea** Nahi duzu etxean sartu?
- Printzesa** Etxe horretan? Ez, ez! Ni gazteluan bizitzen ohituta nago eta ez naiz konpontzen etxe sinple, xume eta arrunt batean.
- Alizia** Etxe hau oso handia da baina.
- Printzesa** Baina gaztelua askoz handiagoa, eta lorategian iturri handi bat daukagu, egun osoan ura dariola.
- Alizia** Iturri bat lorategian!
- Printzesa** Beno, agur. Paseatzera noa! (*Morroiei*) Goazen! (*Printzesaren komitiba irteten da*)
- Alizia** Entzun duzu, gizona?
- Arrantzalea** Bai, eta zer?
- Alizia** Nola gustatuko litzaidakeen printzesa izatea eta gaztelua edukitzea!
- Arrantzalea** Baina gu hemen oso gustora gaude eta!
- Alizia** Zoaz arrainarengana eta eskatu gaztelu handi bat. Eta esan printzesa izan nahi dudala.
- Arrantzalea** Baina nola emango digu gaztelu bat?

- Alizia** Lehen eman digun moduan. Segi! Segi! Segi!
- Arrantzalea** Beno, beno, banoa!
(Arrantzalea itsasora abiatzen da, abesten)
- Arrantzalea** Arraintxoa!... Arraintxoa!... Arraintxoa!
- Arraina** Zer nahi duzu orain?
- Arrantzalea** Nik ezer ez. Aliziak, nire andreak, gaztelu bat nahi du, eta printzesa izan...
- Arraina** Ongi da. Zoaz etxera, zure andreak badauka nahi duena eta.
(Arrantzalea etxera itzultzen da eta gaztelua ikusten du; harrituta dago)
- Arrantzalea** Aiba! Gaztelua! Hau bai dela handia!
(Alizia sartzen da printzesaz jantzita eta morroi batekin)
- Alizia** Ikusten duzu, gizona? Hau bai dela ederra!
- Arrantzalea** Bai, andrea. Eta baso hau?
- Alizia** Hau ere gurea da, orain ehizan egin dezakezu.
- Arrantzalea** Ni arrantzalea naiz!
- Alizia** Zer inporta dio? Orain nahi duzuna egin dezakezu!
- Arrantzalea** Orain bai biziko garela pozik!
- Alizia** Bai, baliteke!
(Errege martxa entzuten da, gero eta hurbilago. Arrantzaleak begira daude. Soldadu bat sartzen da)
- Soldadua** Bidea erreginari! Bidea erreginari! *(Arrantzaleei)* Belau-
niko eta makurtu buruak!
- Arrantzalea** Zergatik makurtu?

- Soldadua** Erregina datorrelako!
(*Arrantzalea eta Alizia lurrean eta burua makurtuta. Erregina sartzen da harro-harro bere soldaduekin*)
- Erregina** Zein zarete zuek?
- Alizia** (*Burua altxatuz*) Ni printzesa naiz.
- Erregina** Zuek ere nire menpekoak zarete eta zergak ordaindu behar dizkidazue.
- Denak** Bai, maiestate!
- Erregina** (*Soldaduei*) Aurrera!
(*Erreginaren komitiba irteten da*)
- Alizia** Entzun duzu, gizona?
- Arrantzalea** Bai, andrea, eta zer?
- Alizia** Zoaz arrainarengana eta eskatu geu izateko errege-erreginak.
- Arrantzalea** Zertarako nahi dugu errege-erregina izan? Gu hemen oso gustora gaude.
- Alizia** Neuk nahi dut, baina! Erregina izatea da munduko gauzarik ederrena eta.
- Arrantzalea** Baina nola emango digu hori?
- Alizia** Beste guztia eman digun moduan. Aide! Ospa! Segi bizkor!
- Arrantzalea** Beno, beno, banoa.
(*Arrantzalea itsasora abiatzen da, abesten*)
- Arrantzalea** Arraintxoa!... Arraintxoa!... Arraintxoa!
- Arraina** Zer nahi duzu orain?
- Arrantzalea** Nik ezer ez, Aliziak, nire andreak, erregina izan nahi du.

- Arraina** Ongi da. Zoaz etxera, zure andreak badauka nahi duena eta.
(*Arrantzalea etxera itzultzen da eta jauregia ikusten du. Bi soldadu irteten dira bera harrapatzera*)
- 1. soldadua** Geldi hor! Nor zara zu?
- Arrantzalea** Ni arrantzalea naiz.
- 2. soldadua** Non bizi zara?
- Arrantzalea** Jauregi horretan.
- 1. soldadua** Gezurra! Hemen erregina bizi da.
- 2. soldadua** Lapurra! Kartzelara!
(*Erregina agertzen da*)
- Alizia** Utzi pakean gizon hau, nire senarra da eta.
(*Soldaduak tente eta geldi geratzen dira atzeko aldean*)
Ikusten, gizona? Orain erregina naiz, hemendik aurrera jaietan ibiliko gara gau eta egun. Ez dugu lanik bat ere egingo!
- Arrantzalea** Orain bai biziko garela pozik !
- Alizia** Bai, baliteke. Baina goazen! Jai bat antolatu dut eta!
(*Arrantzaleak irteten dira errege martxarekin; soldaduak atzetik*)
- Kontalaria** Aliziak denboraldi bat pasatu zuen erregina izaten. Gau eta egun jaietan ibiltzen ziren, baina egun batean...
(*Alizia eta arrantzaleak irteten dira, aurretik arrantzalea*)
- Arrantzalea** Goazen, Alizia! Berandu da eta! Eguzkia irten da eta gu oraindik oheratu gabe.
- Alizia** Zergatik bukatzen da hain azkar gaua jaietan?
- Arrantzalea** Horrelaxe da! Eguzkia agertu eta eguna hasten da.

- Alizia** Ba nik eguzkiari eta ilargiari noiz irten agindu nahi diet.
Zoaz eta eskatu arrainari!
- Arrantzalea** Hori ezin da eskatu.
- Alizia** Joan, bestela kartzelara bidaliko zaitut!
- Arrantzalea** Ba ni ez naiz joango!
- Alizia** Soldaduok! Hartu gizon hau eta eramán bere txalupara!
(*Soldaduek hartzen dute*)
- Arrantzalea** Beno, beno, banoa, baina azkeneko aldia izango da, e!
(*Arrantzalea itsasora abiatzen da, abesten*)
- Arrantzalea** Arraintxoa!... Arraintxoa!... Arraintxoa!
- Arraina** Zer nahi duzu orain?
- Arrantzalea** Nik ezer ez, Aliziak, nire andreak, eguzkiari eta ilargiari
noiz irten agindu nahi diela...
(*Arraina triste eta pentsakor*)
- Arraina** Ongi da. Zoaz etxera, zure andreak badauka merezi due-
na eta.
(*Arrantzalea itzultzen da. Ez dago abesterik, itsasoan olatu
handiak daude. Iristen denean, hasierako txabola ikusten
du. Andrea, jantzi zarpailekin, etxe aurrean negarrez*)
- Arrantzalea** Zergatik egiten duzu negar?
- Alizia** Dena galdu dugu zure erruz!
- Arrantzalea** Nire erruz ez, e!
(*Aliziak negarra fuerteago egiten du*)
Gainera ez dugu ezer galdu, hasieran bezala gaude. Zer-
tarako nahi zenuen hori dena? Ezin genuen pozik bizi.
Orain bai izango garela zoriontsu. Goazen etxera!
(*Arrantzaleak, elkarri eskua emanda, barrura doaz.*)
(*Musika entzuten da*)

AZKEN LUZEA

Imanol Elias
BBB eta UBiko ikasleek antzeztua,
J. Ramon Larrañagaren ardurapean
Bi ekitaldiko irri-antzerkia
Azpeitiko batxilergo institutua
Azpeitia 1993-94

GAIA

On Tiburtzio Artaburutarren etxeko nagusia da. 65 urte ditu eta gaixorik dago. Hil aurretik, senitartekoek berari buruz benetan pentsatzen dutenaren berri jakiteko irrikitan dago. Horretarako, senide guztiak etxean elkartzen ditu eta, heriotzaren zain, On Tiburtziok «amarru» txiki bat prestatzen die.

PERTSONAIAK

On Tiburtzio (Artaburu jauregiko nagusia; 65 urte)

Joxepa (On Tiburtzioren arreba; 50 urte)

Jazinto (Joxeparen senarra; 50 urte)

Patxi (Tiburtzioren semea; 40 urte)

Euxebi (Patxiren emaztea; 40 urte)

Benito (Tiburtzioren seme apaiza; 35 urte)

Karmele (Patxi eta Euxebiren alaba; 20 urte)

Julene (herriko atso zaharra; 65 urte)

GERTAERA Euskal Herrian, XVII. mendean.

1. EKITALDIA

(Artaburu jauregiko garaiko gela nagusia, bertan direla mahai, aulki eta abar, beste zenbait osagarrirekin)

I

Julene eta On Tiburtzio

(On Tiburtzio eseria da mahai ondoan, oherako jazkiak soinean dituela eta beraren ondoan, zutik, Julene, narraz jantzirik)

Julene

Beldur naiz, On Tiburtzio. Beldur naiz...

- Tiburtzio** Nik berriz, konfidantza osoa dut zugan. Esaten ez didazu ba gainera ez dela lehen aldia horrelako zerbait egiten duzula?
- Julene** Horrela da, baina...
- Tiburtzio** Ordaintzat, benetan sari ederra jasoko duzu, esan dizudan bezala.
- Julene** Zure arreba eta beraren senar hori ordea, hurrean ditut benetan. Zure etxera etorri naizenez geroztik, mutur alaiak dituzte gainera...
- Tiburtzio** Ezin ordea beraiek zure aurka ezer egin, edo bestela nire ondasunetan ez dute parterik izango. Nire azken nahian garbi agertzen da etxean beharko duzula izan edo bestela ezer gabe geldituko direla. Mutur luzeak badituzte ere, utzi egin behar zuri nire ondoan... Bai arranoa!
- Julene** Pentsatu duguna egiten badugu, ordea, jipoi ederra hartu gabe ez naiz geldituko.
- Tiburtzio** Hemen sortuko den iskanbila egokia izango duzu ihes egiteko.
- Julene** Beldur naiz ba, On Tiburtzio. Benetan beldur...
- Tiburtzio** Tira, emakumea, lasai zaitetz. Gainera norbait kezkatu izatekotan, nik behar nuke. Betiko lo geldituko naizen edo ez jakin gabe, hemen nauzu patxadan, zuk prestatu behar didazun zikinkeria hori edateko pronto.
- Julene** Zuretzat edari hori prestatzeak ere, On Tiburtzio, ez dit kezka txikia sortzen.
- Tiburtzio** Zeuk hartu behar bazenu orduan, berehala zinateke zorabiatu.
- Julene** Beste batentzat hobeak dira horrelako gauzak norberak hartzeko baino.
- Tiburtzio** Ikusten dut azkenean beldurtu egin behar nauzula.

II

Julene, On Tiburtzio, Joxepa eta Jazinto

- Joxepa** *(Agertzen da etxe barnetik, ondoren Jazinto dela)* Tira Tiburtzio, oraingo nahikoa duzu... Zoaz ohera.
- Tiburtzio** Ez naiz jaiki-zaharra lehen ere.
- Jazinto** Entzun duzu ordea sendagileak zer esan duen. Ez al da horrela?
- Tiburtzio** Hemen izan den gazte horrek sendagile izateko asko behar du oraindik. Ikasketa batzuk egin dituela eta sendagiletzat hartu bere burua? Horren eskuetan sendatuko dela pentsatzen duenak ez du itxaropen txarra.
- Jazinto** Beste zenbaiten ondoan izanda ere, alferrik zuretzat! Beraiiek agindutakoa ez betetzekotan, alfer-alferrik!
- Tiburtzio** Hago isilik, gizona!
- Joxepa** *(Juleneri)* Tira, zoaz honen logela zerbait txukuntzera, ahoa zabalik hemen egon gabe.
- Julene** Zure anaiak eskatu dit berarekin egoteko.
- Joxepa** Zoaz ba orain nik agindutakoa betetzera.
- Julene** Banoa, banoa... *(Alde egiten du etxe barnera)*
- Joxepa** Egunen batean kendu behar diot lotsagabekeriarako gogoa! *(On Tiburtziori)* Hori da oparia ekarri diguzuna etxera.
- Tiburzio** Beste sendagile gazte hori baino hobea, behintzat.
- Jazinto** Horrek sendatuko zaitu ziur asko...
- Tiburtzio** Sendatu ez bada ere, emakumea duk behintzat!

- Joxepa** Zaude isilik! Lasaitasuna... Lasaitasuna eta patxadan ego-
tea agindu dizu sendagileak. Ahalik eta denbora gehien
ohean, bihotza zeharo nekaturik duzulako.
- Jazinto** Eta guztia, alferrik!
- Joxepa** Halako geldialdi bat egin behar dizu egunen batean zure
bihotzak eta plost!, txoria bezala beste mundura.
- Tiburtzio** Zure senarrari ez zaio berehalakoan bihotza nekaturik...
ez eta eskuak eta hankak ere, lanean behintzat.
- Jazinto** Beste egunetan bezala gaurkoan ere? Halako batean...
- Joxepa** *(Jazintori)* Zaude lasai, gizona!
- Jazinto** Lasai? Isiltzen ez bada, aurki botako dut etxe atzean den
putzura. Bai arranoa!
- Tiburtzio** Gerria gehiegi behartu gabe bizi haiz. Bai horixe!
- Jazinto** *(On Tiburtziorengana hurbilduz)* Eman behar dizut gaur-
koan... Eman behar dizut.
- Joxepa** *(Jazintori)* Zaude geldi, gizona! *(On Tiburtziori)* Eta zu
ere isilik! Egunero berdin zarete... Bat zirika eta zirika
isildu gabe eta bestea berriz une batetik bestera muturre-
koak ematen hasteko prest. Madarikatua dut, behin bai-
no gehiagotan, etxe honetara etorri nintzen eguna.
- Tiburtzio** Nahi duzunean alde egin besterik ez duzu.
- Joxepa** Baita zera ere! Hainbeste urte hemen igaro eta orain
gaixorik zarenean alde egitea, ez da egokia. Herritarren
artean kontu ederrak zabalduko lirateke, anaia gaixo dela
bakarrik utzi eta alde egingo banu.
- Jazinto** Eta gainera, nora joan?
- Tiburtzio** Hori duk! Hori duk zuen arrazoirik handiena. Nora joan
nire etxetik alde egin ondoren?

- Joxepa** Eta zuk zer egin behar zenuke gure laguntza gabe?
- Tiburtzio** Nahi dudan guztia! Ez behintzat orain bezala, zuek agindutakoa.
- Joxepa** Bigarren egunerako hankak luzaturik zinateke.
- Jazinto** Bigarren egunean? Gaur bertan ziur asko!
- Tiburtzio** Eta hik lana egin behar, gogo handirik ez baduk ere!
- Jazinto** (*Joxepari*) Isiltzeko aginduiozu zure anaia honi, edo sartuko diot ukabila eztarrian behera. Nire onetik atera nau oraintxe!
- Joxepa** (*On Tiburtziori besotik helduz*) Tira, zutitu agudo! Sendagileak agindu dizunez ohean egoteko, ohera agudo!
- Tiburtzio** Baina...
- Joxepa** Ohera agudo eta txintik ere ez! Tira Jazinto, helduiozu beste aldetik.
- Jazinto** (*On Tiburtziori besotik helduz*) Ohera baino ez al du hobe putzuan? Horrela, honek duen mingaina zerbait garbituko zaio.
- Tiburtzio** Hik duan izerdi usaina ere ez duk garbitasunak sortutakoa! Ez horixe! Lanak berriz, oraindik gutxiago!
- Joxepa** (*Etxe barnera daramatela*) Gaurkoan, eman behar dizut... Eman behar dizut izugarria!
- Joxepa** (*Etxe barnera izkutatzean*) Tira... Utzidazu bakarrik edo astakeria bat egin behar duzu.
- Jazinto** (*Bakarrik gelditzean*) Egunen batean bota behar diat leihotik behera, muturreko bat eman ondoren. Bai hala zangoa! Hori bera nahi ez dik ba gainera beraren arrebak? Agure zahar horrek harrapatzen ez duen gaixotzarik ez duk izango, baina ez dik hala ere bakar batek menperatzen. Nork esaten du katuak zazpi bizitza dituela? Nire

emaztearen anaia horrek, hamalau baditik gutxienez!
(*Esertzen da mahai inguruan*) Bera hiltzean, dituen ondasunak gure eskuetara iritsiko zirela eta zerbait lagundu nahirik etorri gintuan etxe honetara... Zenbat urte? Jainkoak bakarrik zekik! Ikusten ari nauk, guztiok beraren aurrez hartu behar dugula beste mundurako bidea. Oraingo eran ez duk sekula hilko, zartateko bat ematen ez badiot behintzat. Hilero izaten dik halako dardaraldia... Begiak zuri-zuri dituela, erortzen duk une batetik bestera... Baina kaka zaharra! Hamar minuturako, berriro ere lehen bezala. Pentsatzen ari nauk ez diotela sartzen uzten, ez zeruan eta ez infernuan!

III

Jazinto eta Joxepa

- Joxepa** (*Agertzen da etxe barnetik*) Oraintxe, tximetatik gora egin nauzue zuen txorakeriekin!
- Jazinto** (*Zutituz*) Txorakeriak? Mingain motela du ba zure anaia arlote horrek! Hitz egiten duen bakoitzean, zirika eta zirika... Aspertua naiz eta kenduko diot arpa jotzeko go-go!
- Joxepa** Biok ere ez zarete isilik egotekoak.
- Jazinto** Gaurtik aurrera ez diot ezertxo erantzungo, hitzez behintzat. Zerbait esaten didanean, zapla! sudurraren erdi-erdian!
- Joxepa** Hori da! Ondoren, alde egingo du bere semearen etxera eta guk ezer gabe gelditu behar. Ez ditugu alferrik egin hainbeste urte bera zaindu ezinean, une batetik bestera guztia galtzekotan. Sendagileak esan didanez, noiznahi geldi daiteke hilik nire anaia. Gutxien uste den unean, dirudienez... Gure bizitza ba, berehala alda daiteke zeharo.
- Jazinto** Baina, ziur al zara testamentua egina duela zure anaiak? Gure eskuetan izango ditugula beraren ondasunak?

- Joxepa** Galdetu diodan guztian horrela esan dit behintzat berak. Eta ziur naiz gainera, ez didala gezurretan jardun. Bestalde, zer utzi behar dio seme apaizari? Gutxiago berriz, seme alfer horri.
- Jazinto** Ez dakit, ez dakit... Konturatua naiz azkenaldian ez naitzela zure anaiaren begikoa eta halako kezka bat dut.
- Joxepa** Tira, zaude lasai... Guztia aurrez pentsaturik dugun bezala gertatuko da.
- Jazinto** Horrela hobe.
- Joxepa** Gero eta gutxiago gelditzen zaigu eta lasai zaitetz. Beste emakume zahar hori etxean eduki beharrak gehiago kezkatzen nau.
- Jazinto** Jo ostikoz eta berehala aterako dut etxetik!
- Joxepa** Baina, zer astakeriak esaten dituzun konturatzen al zara?
- Jazinto** Bera etxean izateak kezkatzen bazaitu, kalera eta kitto!
- Joxepa** Asto zahar batek baino buru gutxiago duzula ere pentsatzen hasia naiz oraintxe. Ez al duzu gogoratzen nire anaiak atzo bertan esandakoa?
- Jazinto** Gaur bezalaxe, makina bat gauza esan zizkidan!
- Joxepa** Beraren azken nahian idatzia dela, atso zahar hori bere etxean behar duela? Bera etxetik bidaltzen badugu, ondusun guztiak herriko errukietxearen eskuetara joango direla? Nire anaiaren azken nahi hori betetzen ez badugu, ez dela ezer guretzat?
- Jazinto** Eta zure anaiaren azken nahi horren berri, izango du legegizonak?
- Joxepa** Bai horixe! Eta agindu hori betetzen dugun edo ez jakiteko, ez dugu urrutian gainera.

Jazinto Makina bat txoro-irteera egin du zure anaiak, baina oraingoan guztiak hautsi ditu.

IV

Jazinto, Joxepa eta Benito

Benito (*Agertu gabe kanporako ataldean*) Eup! Ba al da inor etxean?

Joxepa Hemen dugu norbait...

Jazinto Legegizon hori ez bada, atso zahar hori etxean den edo ez jakitera etorria?

Joxepa Dena dela, irekiozu atea. (*Alde egiten du etxe barnera*)

Jazinto (*Bakarrik gelditzean*) Etxean dugun atso zahar hori eta ate joka duguna, ostikoz jo eta bidaltzea onena! (*Alde egiten du kanporako atetik*)

Benito (*Agertu gabe*) Kaixo, osaba! Ez naiz nahi baino lehen iritsi! (*Agertzen da kanporako atetik apaiz jantzirik, atzetik Jazinto duela*) Beti etortzekotan eta...

Jazinto Hi bezalako zapelaitz beltzak, zenbat eta urrutiago hobe!

Benito Herritik pasatu behar nuen eta aitari ikustaldi bat egin nahirik etorri naiz. Oraindik ez al da jaiki ohetik?

Jazinto Hik eskainitako laguntzarekin, ez berehalakoan.

Benito Zuek duzuen bezalako bizitza lasaia banu, beraren ondoan izango nintzateke beti.

Jazinto Ez arranopola, ni hemen naizen bitartean!

Benito Tira, osaba...

Jazinto Hire beharrik ez dik aitak.

- Benito** Utzi beharko didazu behintzat bera ikusten, ez da?
- Jazinto** Hire izebak horrela nahi izaten duelako. Ez bestela!
- Joxepa** (*Agertzen da etxe barnetik*) Zoaz, bai. Hor da zure aita bere logelan.
- Benito** Mila esker. (*Etxe barnera alde egiten du*)
- Jazinto** Pizti beltz txoxoloa! Hau ere azken unean, zapla! agertu, zerbait eskuratzeko asmoz...
- Joxepa** Baita zera ere!
- Jazinto** Ezetz? Nolabait jakin du honek bere aitaren berri... Bai hala zangoa! Baina, alferrik dator. Ez du hemendik xentimorik aterako! Ez eta makilkada bat eman eta bertan hil behar badut ere!
- Joxepa** Zaude isilik gizona, horrelakorik esan gabe!
- Jazinto** Aita zaindu behar zuenean ihesi eta orain hemen, zuri-zuri hitz egin eta ondasun guztiak eskuratu nahirik. Ez arranoa! Zer? Zer esaten ari ote zaio gainera unean aitari? Tira Joxepa, zoaz azkar zure anaiaren ondora. Marmorro beltz horrek bestela egin behar digu ezegitekoren bat.
- Joxepa** Inguruan etsaiak besterik ez dituzu ikusten, gizona.
- Jazinto** Etsaiak? Izugarriak gainera! Orain etxeratu zaigun hori, guztien buru egiten duena! Zoaz agudo zure anaiaren ondora... Egin behar digu horrek bestela zerbait.
- Joxepa** Baina...
- Jazinto** Neu joango naiz bestela eta, muturralde berotu ondoren, etxetik aterako dut.
- Joxepa** Banoa, banoa... (*Alde egiten du etxe barnera*)

Jazinto

(Bakarrik gelditzean) Nire emaztea aurrean dela ez ote duk behintzat txorakeriak esaten hasiko edo bestela, oraindik irten duen azkarrena irtengo dik etxe honetatik. Bai hala zangoa! Ezkondu nintzen unetik agure zahar horren txorakeriak entzuten igaro egunak eta... Orain guztia galdu? Ez arranoa! Ez apaizak eta ez etsaiak! Hortarakoxe nauk ni hemen...

V

Jazinto, Benito eta Joxepa

Benito

(Agertzen da etxe barnetik haserre, Joxepa ondoren dela) Kaka zaharra! Baina, ez al dut eskubiderik neure aitarekin hitz egiteko?

Joxepa

Inork ukatu al dik berarekin hitz egitea?

Benito

Ezetz? Zer egiten zenuen ba zuk, logelan?

Joxepa

Ez diat agindu isilik egoteko.

Benito

Eta nik aitarekin bakarrik egon nahi badut? Ez duzu zer entzunik, berak aitortza bat egitea nahi badu ere.

Joxepa

Eta aitorketa egitea nahi duela esan al dik?

Benito

Ez, baina...

Jazinto

Kanpora orduan!

Benito

Hori da! Neure aitaren etxetik, bidali gainera!

Jazinto

Bai azkar asko! *(Benitori bultz eginez)* Alde! Alde hemen-dik agudo!

Benito

Egon zaitez geldi, osaba! Esango al didazue zer egiten duen atso zahar horrek hemen? Zertarako etxeratu duen?

Joxepa

Hire aitaren gogoia izan duk.

- Benito** Aitaren gogo?
- Jazinto** Bai jauna!
- Benito** Aitarekin bukatzeko prestatu duzuen trikimailua, ziur asko. Beraren ondasunak eskuratzeko antolatu duzuen zerbait... Baina gauzak ez dute zuek nahi bezala irtengo. Ez horixe!
- Jazinto** Ez eta hik nahi duan bezala ere! (*Benitori kanporako ate aldera bultz eginez*) Alde! Alde hemendik agudo!
- Benito** Joango naiz, bai. Joango naiz... Baina, berehala naiz hemen berriro.
- Jazinto** Berriro hemen? Ez arranoa! Ez duk zutik irtengo bestela etxe honetatik.
- Benito** Hori, gero ikusiko dugu... (*Alde egiten du kanporako atetik*)
- Jazinto** Zapelaitz beltz nazkagarria! Etortzea dauka berriro honantz eta korapilotu ondoren, zintzilikatuko dut leiho batetik.
- Joxepa** Lehen ere berari tokatzen zitzaiona, bapo jaso du txo-txolo zahar horrek. Urtetan beraren aita bizi denik ere ez eta orain, guztia eskuratu nahirik.
- Jazinto** Ez dio onik egingo!
- Joxepa** Ez dut alferrik jardun bestela nire anaia zaindu ezinean urtetan zehar.
- Jazinto** Ez eta hitz bakar bat ere hurrengoan. Zapla! agertzen den unean eta zapla! berriro, hitz bat esaten duen unean.
- Joxepa** Ikusten ari naiz neuk ere eman behar diodala zaplateko-ren bat.

Jazinto Nik ondo harrapatzen badut ez duzu jo beharrik izango. Zintz egin behar duenean, ez du berehalakoan sudurrik aurkituko... Ez arranoa!

Joxepa Ez dadila behintzat berriro ausartu etortzen. Baina, banoa sukaldera... Gaurkoan lan guztiak atzeratuak ditut. (*Alde egiten du etxe barnera*)

Jazinto Zoaz, bai... (*Bakarrik gelditzean, esertzen da mahai ondoan*) Aita bizi denik ere ez duk gogoratu azken bost urteetan eta orain hasiko ote duk ba, gauza guztiak nahasten? Apaiz ederra duk hori... Aurrez gaixorik izan denean bere aita ez duk sekula azaldu eta orain, itxura denez, benetako larrian denean, zapla! Ez dik gainera ingurutik alde egingo beraren aitak hankak luzatu bitartean...

VI

Jazinto, Patxi, Euxebi eta Karmele

Patxi (*Agertzen da kanporako atetik, ondoren Euxebi eta Karmele direla*) Kaixo, osaba! Atea zabalik duzu behintzat gu etxeratzean, aitari ikustaldi bat egiteko.

Jazinto (*Beretzat*) Hara hemen bestea! Osatu gaituk oraintxe!

Patxi Baina, zer gertatu zaio nire anaiari horrelako presa izateko?

Jazinto (*Zutituz*) Hik ere berdin irtengo duk hemendik!

Patxi Ez, ez. Gaurkoan, lasai antzean etorri naiz. (*Esertzen da mahai ondoan*) Hemen, herrian, egun batzuk igarotzeko asmoz etorri gara.

Euxebi (*Esertzen da hau ere*) Nonbaitean gauza guztiak galdu ez baditugu behintzat.

Patxi Fardela galdu? Ez, ez. Hona iristean eskuetan nuen... Sarrerako ate inguruan utzirik izango dut. Tira osaba, ekarridazu mesedez.

- Jazinto** Zer?
- Patxi** Sarrerako ate ondoan utzi dudan fardela, ekarridazu mesedez.
- Jazinto** Baina, hik uste al duk neure etxean hire aginduak betetzeko naizela?
- Patxi** Ez dizut gauza handirik eskatu behintzat, osaba. Gure fardel hori ekartzeko besterik ez. Gainera hau ez da zure etxea, neure aitarena baizik.
- Jazinto** Heure aitari aginduiok ba orduan!
- Patxi** Itxura denez, oraindik bizi da... Moteilak! Ez du ustela irten!
- Jazinto** Ez dik hire antz handirik!
- Patxi** Osaba, osaba... Niretzat duzun gorrotoak ez dizu alde egiten... Baina, zer egin dizut nik?
- Jazinto** Ezertxo ere ez, eta horrela hobe! Honez gero bestela, muturralde ederra izango huen.
- Patxi** Tira, tira... Deituiozu izebari, etxean bada behintzat eta atera diezagula zerbait mahaira... Egarriak iritsi baikara. *(Karmeleri)* Tira Karmele, eseri zu ere.
- Karmele** *(Etxeratu denez geroztik alde guztietara begira ibili da)* Bai, aita. *(Esertzen da)*
- Patxi** Edariarekin batera, jateko zerbait ere ez da gaizki etorriko.
- Jazinto** Baina hi, aita ikustera etorri haiz edo hau hotela dela uste duk?
- Patxi** Zuretzako hotela osaba eta niretzat, berriz, etxea.
- Jazinto** Etxea?

- Patxi** Aitarena denez, neurea ere izango da behintzat.
- Jazinto** Hago isilik, mesedez... Hago isilik! Odola berotzen hasi zaidak eta kontuz hitz egitea hobe duk, ostikada bat hartu eta berehala hemendik irten nahi ez baduk.
- Patxi** (*Euxebiri*) Tira... Ekar ezazu, mesedez, sarreran utzi dudana fardela.
- Karmele** (*Zutituz*) Neuk ekarriko dut, aita. (*Alde egiten du kanporako atetik*)
- Patxi** Nire alabak joan behar azkenean...
- Jazinto** Zer nahi duk ba? Ni hire atzealdea garbitzen ibiltzea?
- Patxi** Etxeratzen zaizunari ongi etorria egiten ez duzu behintzat sekula ikasiko, osaba.
- Jazinto** (*Beretzat*) Alde egin dezadan hemendik edo bestela leher-tu behar diat. (*Alde egiten du etxe barnera*)
- Patxi** Tira Euxebi... Lagunduiozu Karmeleri edo bestela ez du fardel hori sekula ekarriko.
- Euxebi** (*Zutituz*) Nik joan beharko dut, bai. Zuk behintzat ez diozu lagunduko. Nagiak ezagutu ditut, baina zu bezalakorik ez. Gainera, zertarako ekarri behar duzu fardel hori? Oraingo eran, berehala bidaliko gaitu zure osaba horrek etxe honetatik...
- Patxi** Baita zera ere!
- Euxebi** Hori horrela denean, izeba jarriko da berriz gozoa, gu hemen ikustean. (*Kanporako ate ondora joan eta deika*) Karmele!... Utzi bertan fardel hori eta zatoz.
- Patxi** Norbaitek lapurtzen badigu izango dira kontuak...
- Euxebi** (*Patxiren ondora hurbildu eta eseriz*) Lapurtu, zure osaba-izeba horiek egingo dituzte ederki zure aitaren ondasunak.

- Patxi** Ez gu hemen ingurun garen bitartean.
- Karmele** (*Agertzen da kanporako atetik*) Ate ondoan utzi dut aita, baina etxe barruan. (*Besteek hizketan diren bitartean eser-tzen da mahai inguruan*)
- Patxi** Ederki...
- Euxebi** Honez gero eskuratuak ez badituzte gainera... Tira Patxi, hitz egin ezazu agudo zure aitarekin.
- Patxi** Zaude lasai!
- Euxebi** (*Zutituz*) Lasai? Bi horiek beraren inguruan direla gaine-ra? Azkar eta argi ibiltzen ez bagara, ezer gabe utziko gaituzte.
- Patxi** Ezer gabean, gu? Ez, ez... Ongi dakit nire aitak egin duen testamentuan, niretzat dela guztia.

VII

Lehengoak, Joxepa eta Jazinto

- Joxepa** (*Agertzen da etxe barnetik, ondoren Jazinto dela*) Zer? Hiretzat utzi dituela ondasunak?
- Patxi** Bai horixe!
- Joxepa** Hik bai nahi...
- Patxi** Aitaren legegizonak horrela esan dit, sinetsi nahi ez baduzu ere.
- Joxepa** Ezin zitekek! Ezin zitekek inola ere! Gainera, ez dik ezer esaterik hire aita hil bitartean, berak horrela nahi izan duelako.
- Patxi** Niri esan dit behintzat eta hortik aurrera, hor konpon!
- Joxepa** Oraintxe bertan hitz egingo diat horregatik legegizon horrekin. Bai horixe!

- Patxi** *(Zutituz)* Ez alferrik! Idatzirik dena ez duzu aldatuko.
- Jazinto** Idatzia dena ez, baina hire aurpegia bai horregatik!
- Patxi** Nahi duzuna esan eta egin, baina niretzat da guztia.
- Joxepa** Berehala jakingo diat. Berehala... *(Alde egiten du kanporako atetik)*
- Jazinto** Zaudete hemen, gu etorri bitartean. *(Alde egiten du Joxeparen ondoren)*
- Patxi** Hemen egon? Baita zera ere!
- Euxebi** Egia al da esan duzuna? Zuretzat utzi dituela aitak beraren ondasun guztiak?
- Patxi** Kaka zaharra! Nik zer dakit ba?
- Euxebi** Zertarako esan duzu ba orduan?
- Patxi** Ez duzu ezer ulertzen, emakumea. Ez al duzu ikusten nire osaba eta izebarekin batera joan gintezkeela orain legegizon horrengana eta testamentuaren berri jakin dezakegula? Tira, goazen agudo, beraien ondoren. *(Alde egiten du kanporako atetik)*
- Karmele** Ni hemen geldituko naiz, ama.
- Euxebi** Nahi duzun bezala... *(Alde egiten du Patxiren ondoren)*
- Karmele** *(Bakarrik gelditzean)* Borrokan hasi behar dute oraindik guztiak. Beste konturik ez dut entzuten aspaldian etxean. Aitonaren ondasunak gora eta aitonaren ondasunak behera... Aitaren lagun den sendagile hori etxeratu zenetik berriz, aztoratu dira nire aita eta ama. Oraingoan, gaixotza gogorra duela eta hankak berehala luzatuko dituela esan zuenetik, guztien artean lurperatu behar dute denbora baino lehen... Osaba-izebak jabetuko direla aitonaren ondasunekin... Azkar ibili behar dela... Eta egia esan, ez litzateke gaizki etorriko gure etxean zakukada bat diru... Ez horixe!

VIII Karmele eta On Tiburtzio

- Tiburtzio** (*Agertzen da beldurti etxe barnetik, lehen bezala jantzirik*)
Zer, bakarrik utzi al zaituzte?
- Karmele** (*Zutituz*) Kaixo, aitona!
- Tiburtzio** Pozgarria zait beste horiek bezalakoa ez zarela jakitea.
Pozgarria benetan...
- Karmele** Ez duzu hilzorian zaren itxura handirik, aitona?
- Tiburtzio** (*Mahai ondora joaten laguntzen dio Karmelek eta esertzen da*) Hilzorian ez, baina gero eta gaizkiago aurkitzen naiz.
Indarrak ahultzen egunetik egunera eta arnasa hartu ezinean gehiengan.
- Karmele** Hala ere, nire aitak eta amak uste duten baino indartsuago.
Neuk ere uste nuen hankak luzatua izango zinela honez gero.
- Tiburtzio** Oraindik ez. Oraindik ez, zorionez...
- Karmele** Istilu ederrak sortzen ari zara behintzat azken aldian,
aitona. (*Esertzen da*) Lehenbailehen hilko bazina hobe,
edo bestela...
- Tiburtzio** Zer?
- Karmele** Zure ondasunak guretzat utzi eta bake-bakean, beste mundura.
- Tiburtzio** Zure aitak ez luke bat ere gozatuko, guztia beretzat utziz
gero. Baina, zer esan dut nik? Beste horiek bezalakoa ez
zarela poztu handia hartzen dudala? Horiek baino ere
okerragoa zara, emakumea! Okerragoa!...
- Karmele** Urte asko dituzu, aitona. Urte asko... Hemendik aurrera
bizirik egin behar dituzun egunak, gaixo, narraz, oinazez,

laguntza beharrean... Zure ondasunak gozatu ezinean igarro beharko dituzu. Beste guztiak inguruan, zu noiz hilko zaren zain dituzula... Piztiak bezala, guztiak zuri begira direla.

- Tiburtzio** Piztirik haundiena zeu horregatik, gazteena izan arren!
- Karme**le Zertarako horrela bizi?
- Tiburtzio** (*Zutituz*) Eskerrak nire ondoan gutxitan izaten zaitudan edo bestela jan ninduzun honez gero... Arranopola! Hau da piztia, hau!
- Karme**le (*Tiburtzioren ondoren*) Ez al zaizu egokia iruditzen, aitona, guri bakea eskaintzea?
- Tiburtzio** Eta zuek bakea izan dezazuen hil egin behar dut nik...
- Karme**le Nahi baduzu bizirik jarraitu, baina zure ondasunak nire aitaren eskuetan jarri ondoren.
- Tiburtzio** Ez dun gaizki pentsatzen, ez... Hiri ere, zerbait iritsiko zain horrela.
- Karme**le Itxaropena badut behintzat, aitona.
- Tiburtzio** (*Beretzat*) Baita nik ere, ziri ederra sartu behar dizuedala!
(*Alde egiten du etxe barnera*)
- Karme**le (*On Tiburtzio joan den tokira begira*) Zure gain da guretzako bakea, aitona. Zure gain... (*Bakarrik gelditzean*) Zertarako behar du ba horrek dirua? Etxe honek dituen lurraldeek, berriz, gutxiago oraindik! Ederra da ba nire aitona, lanean hasteko!

IX

Karme

le eta Benito

- Benito** (*Agertzen da beldurti kanporako atetik*) Zer? Baretu al dira gauzak etxe honetan?

- Karmeale** (*Beretzat*) Hara hemen onena!
- Benito** Baina, zer egiten duzu hemen?
- Karmeale** Hori bera galdetuko nizuke, osaba...
- Benito** Bakarrik etorri al zara?
- Karmeale** Ez. Aita eta ama ere ez dira urrutian.
- Benito** Txakur gosetiak bezala orduan, hilzorian denari guztia lapurtzera etorriak.
- Karmeale** Ziur asko, osaba, aitonari azken bedeinkapena ematera etorriko zinen?
- Benito** Beraren azken bidaian laguntzeko asmoan behintzat.
- Karmeale** Eta beraren txanponak patrikaratzeko asmoan ere bai.
- Benito** Lotsagabekeria, ondo amaren antzekoa irten duzu behintzat! Apaiz bati horrela hitz egiten diozunean, aho txukuna izango duzu lagunartean.
- Karmeale** Pentsatzen dudana esan egiten dut behintzat. Zuk, berriz, dituzun asmoak, osaba, jazki beltz horren azpian dotore izkutatzen dituzu.
- Benito** Zaude isilik, txorakeriarik esan gabe!
- Karmeale** Egiak min ematen al dizu, osaba?
- Benito** Nik emango dizudan zaplatekoak ere egin behar dizu zerbait... Bai horixe!
- Karmeale** Gezurra dirudi, apaiz bat...
- Benito** (*Jotzeko keinu eginez*) Eman behar dizut... Eman behar dizut! Tira, esaidazu agudo non den zure aita.
- Karmeale** Aita? Aitonaren legegizonarekin hitz egitera joan da orain dela gutxi, osaba Jazinto eta izebarekin.

- Benito** Legegizonarekin hitz egitera?
- Karmele** Bai, eta ama ere beraiekin joan da. Oraingoan, aitonaren azken nahia jakingo dute...
- Benito** (*Algaraz*) Horiek dira artaburuak sendian dituzunak! Nire aitari galdetzea nahikoa da beraren azken nahiaren berri jakiteko.
- Karmele** Oraintxe une egokia, orduan, horrela egiteko. (*Abiatzen da etxe barnera*)
- Benito** (*Karmeleri heltzen dio besotik*) Zaude geldi! Zuk ez duzu ezer jakin beharrik hemen! Biloba baino lehenago da semea eta seme hori ni naiz.
- Karmele** Nik ere jakin behar dut nire aitarentzat zer utzi duen.
- Benito** Zaude hemen geldi edo emango dizut zaplateko bat! Ez gero nire atzetik etorri... Ez etorri, mesedez! (*Alde egiten du etxe barnera*)
- Karmele** (*Bakarrik gelditzean*) Apaiza dela berehala ahaztu zaio honi. Bai horixe! Besteak bezala hau ere, ondasunak eskuratu nahirik. Noizbehinka bedeinkapena eman eta dirua patrikara...

X

Karmele, On Tiburtzio, Benito eta Julene

- Tiburtzio** (*Etxe barnean agertu gabe*) Alde! Alde nire etxetik!
- Benito** (*Etxe barnean agertu gabe*) Entzuidazu mesedez, aita.
- Tiburtzio** (*Berdin*) Entzun? Hiri entzun?
- Benito** (*Agertzen da etxe barnetik, ondoren On Tiburtzio eta Julene direla. Honek, nagusiari laguntzen dio*) Honela ez nauzu behintzat bidaliko etxetik?
- Tiburtzio** Ez diat ezer entzun nahi. Alde! Alde hemendik!

- Benito** Damutuko zaizu oraindik, aita.
- Tiburtzio** Damutu? Lehen ere bai bapo hi sortutako unea! Alde! Alde agudo nire etxetik!
- Benito** Orandik, aita, zeuk deituko didazu...
- Tiburtzio** Nik deitu?
- Benito** Belaunikaturik gainera.
- Tiburtzio** Ez eta infernura joateko zorian aurkitzen banaiz ere! Alde egizak hemendik agudo!
- Benito** Joango naiz, bai. Baina zure ondasunak, aita, hemen utzi beharko dituzula kontura zaitez.
- Tiburtzio** Ez duk hik asko gozatuko horregatik... Ez arranoa!
- Benito** Mozolo petrala! (*Alde egiten du kanporako atetik*)
- Tiburtzio** Bizi naizenik ere ez da konturatu azken urteetan eta orain nire jiran behin eta berriz... Garai bateko indarrak banitu horregatik, kenduko nizkioke muturreko hotzak!
- Karmeale** Ederki egingo zenioke, aitona!
- Tiburtzio** (*Karmeleri*) Zu ere kanpora, agudo!
- Karmeale** Baina...
- Tiburtzio** Kanpora esan dut eta kitto!
- Karmeale** Baina, eroturik al zara zeharo, aitona?
- Tiburtzio** Kanpora!
- Julene** Kanpora orduan!
- Karmeale** (*Juleneri*) Nor zara zu niri aginduak emateko?

- Tiburtzio** Irten nahi ez baduzu...
- Julene** Makilkada eder bat berehala emango diot.
- Karmelee** Nire aita etxeratzean aterako ditugu kontuak hemen.
- Julene** *(Karmeleri kanporako atera bultz eginez)* Gero gerokoak, baina orain kanpora! *(Alde egiten du Karmelek kanporako atetik)*
- Tiburtzio** Heldu da garaia, Julene. *(Laguntzen dio Julenek mahai ondoan esertzen)* Prestaturik al duzu guztia?
- Julene** Bai, bai...
- Tiburtzio** Ekarridazu orduan. Azken ordua iritsi aurrez, egin behar dut aspalditik erabakia dudana.
- Julene** Eta guk nahi bezala irteten ez badu?
- Tiburtzio** Zerk irten behar du gaizki? Ez al didazu esan lo hartuta bezala geldituko naizela? Nire inguruan esaten den guztia entzungo dudala?
- Julene** Sendagileak hiltzat eman ondoren, baita hitz egiteko eran ere. Baina...
- Tiburtzio** Baina, zer?
- Julene** Gertatu daitekeela nik prestatu dudan edari hori hartu ondoren, gehiago txintik ez egitea.
- Tiburtzio** Tira... Ez nazazu beldurtu garaia heldu denean.
- Julene** Bestalde, berehala bidaliko naute etxetik, zu hilik ikustean.
- Tiburtzio** Ez. Hori bai ezetz. Jakinean da nire arreba, zuk nire etxean behar duzula izan hileta elizkizunak ospatu bitartean. Legegizonak jakinarazia dio.
- Julene** Ekarri egingo al dizut orduan?

Tiburtzio Bai, bai... Orain da une egokia. (*Alde egiten du Julenek etxe barnera*) Pizti zahar horiek etxeratzen direnean, beren nahia beterik aurkituko ditek. Beraientzat hilik izango nauk... Hortik aurrera, ikusiko diagu zer gertatzen den.

Julene (*Agertzen da etxe barnetik, pitxar bat eskuetan duela*) Toriba, On Tiburtzio...

Tiburtzio Ikus dezagun zer nolako azterketa egiten duen nire barnean prestatu didazun edari honek. (*Edaten ari den unean, argiak itzaltzen dira, lehen ekitaldia bukatuz*)

2. EKITALDIA

(*Lehen ekitaldiko gela bera agertuko da, baina aldatua. Zapiz estalitako mahai txukun baten gainean, On Tiburtzio da, hilik balitz bezala, inguruan kandela handiak dituela pizturik. Gainontzeko argiak, indar handiegirik gabe*)

I

On Tiburtzio, Euxebi, Patxi eta Benito

(*Gelaren alde batean da eseria Euxebi, Patxi duela beraren ondoan. On Tiburtzio hilik den mahaiaren ondoan, berriz, Benito, otoitzean belaunikaturik*)

Euxebi Orain zen une egokia zure aitaren legegizon horrekin hitz egiteko, baina alferrik zuri zerbait esatea...

Patxi Testamentuan idatzirik dena ez dute behintzat aldatuko eta zaude lasai.

Euxebi Asmo ederrak eman dituzte horregatik zure osabak eta izebak.

Patxi Ez alferrik! Uste al duzu zerbait esango diela legegizon zital horrek? Lehen ere esan dizut eta berriro esango

dizut, ez duela testamentuaren berririk ematerik nire aitaren hiletak egin aurrez eta bera lurperatu bitartean. Hori izan da aitaren azken gogoia.

- Euxebi** Zure izebak eskupekoa eskaintzen badio legegizonari...
- Patxi** Zaude isilik, emakumea!
- Benito** *(Belaunikaturik jarraitzen duela)* Zaudete isilik biok! Otoitz egiteko garaian, ederki ematen duzue marmarreaan...
- Patxi** Pozik jakingo nitek nolako otoitzak egiten ari haizen, nik bezala hik ere pentsamentua gure aitaren azken nahian jarriarik duala.
- Benito** Hago isilik!
- Patxi** *(Zutituz)* Isilik? Hik ere, nik bezala, asko lagundurik izango diok aitari bizirik zen bitartean. Bai horixe!
- Benito** Hik adinbat laguntzea ez duk zaila.
- Patxi** Hire otoitzetan gogoan izanez... Sekula bera ikustera bada ere etxera etorri gabe. Eta orain, berriz, hemendik alde egin ezin testamentuaren berri jakin gabe.
- Benito** *(Zutituz)* Hik ere hemen jarraitzen duk.
- Patxi** Hik baino behar handiagoa dudalako. Uste al duk gaur erraza dela emaztea eta alaba mantentzea?
- Benito** Hiretzat ez. Ez eta heuretzat bakarrik zerbait etxeratzea ere, lanik egiten ez duan bitartean.
- Patxi** Zerbaitegatik jantzi duk hik ere soinean duan jazki beltz hori... Ez behintzat soroan aitzurrean egiteko. Otoitz eta otoitz, izerdi handirik atera gabe. Pulpitutik guztiak beldurtu eta ondoren, esku bat ezezik, biak luzatu, denen txanponak patrikaratzeko.

- Benito** Bapo igertzen zaik behintzat ez duala elizan denbora gehiegi egiten. Gure aita honen erakutsiak eta baita ama zenarenak ere, ahaztu dituk.
- Patxi** Hik gogoan izango dituk, baina baita aitak egindako testamentua ere. Baina alferrik haiz oraingoan. Beraren ondasun horietatik ez duk ezer eskuratuko. Entzun ezak ondo. Ezertxo ere ez!
- Benito** (*Algaraz*) Ja, ja, ja! Ezer gabe hi geldituko haiz, gehiegi hitz egiten dualako.
- Euxebi** Baina, isilduko al zarete biok?
- Patxi** Esan egin beharko diot azkenean... Esan egin beharko diot. (*Benitori aurrez aurre*) Entzuidak orain esango dudana. Jakin nahi al duk non nintzen aitak testamentua egin zuenean?
- Benito** Sagardotegian ziur asko, beste askotan bezala! Eta ez gainera ezer edan gabe.
- Patxi** Hago isilik, arlotea! Aitak testamentua egin zuenean, hemen ninduan ni. Gela honetan bertan idatzi zian legegizonak aitaren azken gogoia.
- Benito** (*Barrez*) Eta hi hementxe, beraien aurrean, guztia entzuten aho zabalik.
- Patxi** Ahoa zabalik eta luze-luze hik gelditu behar duk, beraren berri jakiteko unea iristean. Barre egiteko gogoek alde egingo diate. Ezertxo ere ez... (*Euxebiri*) Tira Euxebi, goazen hemendik. Guztia jakiten duenean, ikusiko dugu nire anaia honen muturraldea aldatzen den edo ez. (*Alde egiten du etxe barnera, Euxebi ondoren dela*)
- Benito** (*Bakarrik gelditzean*) Lehen ere gezurretan ez zuan makala eta oraingoan ere sartu nahi izan zidak ziri galanta! Eta egia bada? (*On Tiburtzioren ondora hurbildu eta berrari hitz egiten dio*) Egia ote da gero, aita, guztia berarentzat utzi duzula? Ezertxo ere ez niretzat? Baina, ez al

naiz ba ni, zure semea? Berak baino gehiago lagundu dizuna gainera! Bai horixe! Beti gogoan izan zaituena behintzat, etxe honetara etorri ez banaiz ere. Beti gogoan, aita... Beti gogoan! Ez al naiz orain ere zure ondoan, otoitzean? Orain eta beti, otoitzean... Zure testamentuaren berri jakin bitartean, ordea, hobe izangu dut gauzak patxadan hartu. Eta gogoan izan ez baduzu honako seme hau, asmatuko dut nolatan jokatu. Zuk erakutsia dut, aita, odolkiak ordainetan izaten direla! (*Alde egiten du etxe barnera*)

Tiburtzio (*Bakarrik gelditzean*) Moteilak! Gozoa alde egin dik gure apaizak! Ezer gabeen laguntza emateko ez duk makala! Eta beste alfer zahar hori? Hori duk berriz ederra! Ziri txikia sartu ziok ba orain ere, gaztetan egin ohi zion bezala. Hemen zela bera, alajaina, nik testamentua egin nuenean? Baita zera ere! Horrek nahi bai, beste guztien kontura barre egiteko. Hauek dituk zapelaitzak inguruan ditudanak... Bat bestea baino okerragoa!

II

On Tiburtzio eta Julene

Julene (*Agertzen da etxe barnetik, gelan inor aurkitzen den begiratu eta, ondoren, On Tiburtzioren ondora hurbiltzen da*) Zer? Ongi, On Tiburtzio?

Tiburtzio Ongi, bai, izugarrizko egarria badut ere.

Julene Hori bakarrik bada, ez da ezer.

Tiburtzio Ekarridazu mesedez ur pittin bat.

Julene Ez, ez... Ez duzu orain ezer edan behar, edo bestela, gutxien uste duzunean, lo hartuko duzu eta zurrunga bat egitea nahikoa duzu guztiak konturatzeko zer gertatzen den. Lehen ere nahiko larrialdi izan ditut, sendagilea etxeratzean.

- Tiburtzio** Larrialdia nik izan dut, sendagile gazte horrek hanka azpian ukitu didanean... Ez dut asko falta izan algaraz has-teko kili-kili sentitu dudanean. Ez arranoa! Eta gero, ma-hai gainean etzatean? Sentitu dut arrebaren senar buru-gogor horren arnasa aurpegian... Sudurretik koska egite-ko gogo bizia sortu zait barnean...
- Julene** Gogoia bai, baina koskarik egin ezin ahoa zabaldu gabe.
- Tiburtzio** Egia diozu, bai. Orain dela hamar bat minutu bitartean begiak ere zabaldu ezinean nintzen. Ahoa berriz, ezta pentsatu ere!
- Julene** Unerik gogorrena igaro da eta poz hartzen dut, On Ti-burtzio.
- Tiburtzio** Banuen nik zugan konfidantza, Julene. Unerik gogorre-nak, ordea, hemendik aurrerakoak izango dira, dudarik gabe. Alproja ederrak ditut ba inguruan...
- Julene** *(Etxe barnera begiratu ondoren)* Zaude isilik... Hemen duzu horietakoren bat...
- Tiburtzio** Ni, hilik naiz. *(Julene hasten da On Tiburtzioren ingurua txukuntzen)*

III

On Tiburtzio, Julene eta Karmele

- Karmele** *(Agertzen da etxe barnetik eta On Tiburtzio den tokira hur-biltzen da, berari begira geldituz. Julenek, berehala alde egiten du etxe barnera)* Zer, aitona? Non ezin eman guz-tiak bidaia luze horretan? Alde egin behar eta hala ere, ezin utzi gauza guztiak behar bezala eginak... Ezin utzi nire aitari zure ondasunak? Gu zalantza bizian utzi eta alde egin azkenean... Egia bat aitortu behar dizut, aitona. Bizirik zinela, zuri esaten ausartu ez nintzen egia bat... Ez zaitut izan inoiz gogoko. Sekula ere ez! Nolatan ba, gure etxean den egoera ikusi eta sekula laguntzarik txikiena

eman ez badiguzu? Aita eta ama, elkar ikusi ezinik behin eta berriz... Borrokan hasteko zorian, asteen bi edo hiru bider gutxienez... Nik berriz, amak baztertutako jazkia soinean! Inoiz jazki berririk ez dut izan... Eta guzti horren errua, aitona, zuk izan duzu. Zuk eta ez beste inork! Nahi izan duzun guztia esku artean... Behar baino askoz gehiago, eta sekula laguntzarik ez guretzat. Aita edo amaren madarikazioek indarririk izan balute, orain dela denbora asko beste mundurako bidea harturik zinen. Bai horixe! Orain ordea, gure garaia iritsia da. Orain... Begiratu besterik ez duzu aurkitzen zaren tokitik, zer egingo dugun zure ondasunak eskuetan izatean. Begiratu besterik ez, aitona, zenbat gogoratu garen zutaz. Agure zahar arlotea! *(Alde egiten du etxe barnera, hitz egiten duen bitartean)* Horrela nahi izan ez baduzu ere, guztia guretzat orain!

Tiburtzio *(Bakarrik gelditzean)* Hau duk berriz handik honakoa! Eskerrak ez den bera bakarrik aurkitzen etxean, edo bestela su eman eta erreko nindikek!

IV

On Tiburtzio, Joxepa eta Jazinto

Joxepa *(Agertzen da kanporako atetik, ondoren Jazinto dela)* Kaka zaharra! Alferrik oraingoan ere!

Jazinto Jo ez dudanean muturrean, legegizon nazkagarri hori...

Joxepa *(Beste baten eran hitz eginez)* «Zure anaiaren elizkizunak ospatu eta ondorengo egunean jakingo duzue beraren azken gogoaren berri. Bitartean, ezertxo ere ez». *(Beraren eran)* Sartzea dauka ba orduan, bildu-bildu egin ondoren...

Jazinto Atzeko aldean!

Joxepa Jakin ezin inola ere ordura bitartean zer egin duen nire anaia zahar honek?

- Jazinto** Bakean utzi baninduzu lepotik heldu diodanean legegizon arlote horri, honez gero jakinean ginen.
- Joxepa** Eta guztia galtzeko zorian, bera jo ondoren.
- Jazinto** Baina, zertarako asmoan joan gara berarengana? Zertara? Zerbait jakiteko asmoan, ez da horrela?
- Joxepa** Bai, baina...
- Jazinto** Onean edo txarrean jakin ondoren bihurtu behar genuen orduan etxera.
- Joxepa** Zaude isilik, astakeriarik esan gabe! Ezin dezakezu pentsa gauza guztiak muturrekoak eman ez eskura ditzakegula.
- Jazinto** Bakar bat eman ez diodalako, ezer gabe bihurtu gara etxera.
- Joxepa** Muturrekoa eman ondoren, gutxiago ziur asko.
- Jazinto** Testamentuaren berri jakingo genuen horregatik. Bai arranoa!
- Joxepa** Zaude isilik!
- Jazinto** Beste horiek harrapatu behar digute oraindik aurrea, azkar ibiltzen ez bagara.
- Joxepa** Beste horiek? Non dira gainera?
- Jazinto** Ikus dezakezu behintzat norainoko maitasuna dioten aitari. Inor ez, alajaina, hemen! Apaiz horrek ere...
- Joxepa** Tira, Jazinto...
- Jazinto** Ez du horregatik xentimorik aterako etxe honetatik. Ez halazangoa!
- Joxepa** Nire anaiak zerbait utzi badio, ezin dezakegu galarazi.

- Jazinto** Ezetz? Bai arranoa! Alferrik aginduko didazu muturreko-rik ez emateko... Zapla! bat eta zapla! bestea. Eta zerbait esaten hasten denean, zapla! hirugarrena.
- Joxepa** Eta ondoren, gu espetxean garen bitartean, horiek gozatu...
- Jazinto** Zure anaia hau bezala hankak luzatuta gelditzen ez badi-
ra betiko!
- Joxepa** Ezin naiz egon zure astakeriak entzuten. (*Alde egiten du etxe barnera*)
- Jazinto** (*On Tiburtzioren ingurura hurbilduz*) Astakeriak, ez ditiat nik bakarrik egiten... Hik egin duana duk ederra! Urteak eta urteak egin ditiat hiri laguntzen eta oraindik ere erre-
guka ibili behar testamentuaren berri jakiteko. Pentsatu banu legegizon hori etxeratu zenean hire azken nahia ezagutzera etorria zela, nire aurrean idatzi beharko zian horregatik. Bai halazangoa! Orain honela ibiltzea egokia dela iruditzen al zaik? Hire txorakeriei erantzun ezinean ibili urtetan zehar eta orain ezertxo ere jakin ezinean? Eskerrak iruditzen zaidan gureak izango direla hire onda-
sunak, edo bestela ez huke hor etzanda egoten lanik izan-
go. Ez arranoa! Hartu bizkarrean eta etxe atzeko putzura agudo!
- Joxepa** (*Agertzen da etxe barnetik, pitxar batean edaria duela*) Bere seme apaiz horren tokian zeu hasi al zara orain otoitzean?
- Jazinto** Otoitzean ez, baina, bizirik zela esaten nizkion gauza ba-
tzuk gogorarazten.
- Joxepa** Orain bai ez dizula petralkeriaz erantzungo.
- Jazinto** Ez hobe! Bigarren aldiz hilko nuke bestela!
- Joxepa** (*Pitxarra eskainiz Jazintori*) Tori txurrut bat edo bestela edan gabe gelditu beharko duzu.
- Jazinto** Edaria, emakumea, aurkituko dut nonbaitean.

- Joxepa** Bai, aurrez guztia edaten ez badute beste horiek...
- Jazinto** Horixe behar dute!
- Joxepa** (*Esertzen da gelako alde batean den aulkian*) Alfer zahar horrek edango luke, gizona, batek mahaira ateratako guztia! Mingaina, potolotzen hasia du bapo horregatik! Eta beraren emaztea ere, berdina dela esango nuke...
- Jazinto** Zapelaitz beltz hori ere, berriz, ez da atzera geldituko? (*Esertzen da Joxeparen ondoan*)
- Joxepa** Bata eta bestea, ez dira asko gogoratzen honekin.
- Jazinto** Ez lukete bat ere gozatuko horiek aitaren ondasunak eskuratuko balituzte.
- Joxepa** Beldur naiz ez duen astakeriaren bat egin nire anaia honen.
- Jazinto** Gure ondasunak horientzat utzi?
- Joxepa** Gure ondasunak, edo bereak behintzat.
- Jazinto** Horixe behar du, zure anaia arlote honek!
- Joxepa** Horrela bada, kitto gure ametsak. Zer egin behar diozu ba hilik izanda?
- Jazinto** Hildakoari ezer ez, baina bizirik direnak astindu ederra hartu gabe ez dira geldituko! Ez arranoa! Eta hau, putzura agudo!
- Joxepa** Jakin nahi al duzu zer pentsatzen ari naizen unean?
- Jazinto** Guztia belarri bihurtua naiz.
- Joxepa** Zer gertatuko litzateke edari pozoindu bat emango bagenie beste horiei?
- Jazinto** (*Zutituz bat-batean*) Zer?

- Joxepa** Pozoina eman ardoarekin nahasturik eta plost...
- Jazinto** Beldurtu behar nauzu, emakumea... Zaude isilik, horrelakorik esan gabe. Nahi duzun hainbat muturreko banatzeko prest naiz, baina horrelakorik ez zait burutik pasatu ere egin.
- Joxepa** Bide egokia, ordea, guztia eskuratzeko.
- Jazinto** Baita gelditzen zaizkigun urteak espetxean igarotzeko ere.
- Joxepa** Nork jakin dezake ezer?
- Jazinto** Ez, ez. Hori ez, inola ere. Hori ez!
- Joxepa** (*Zutituz*) Baina zuk, gizona, nahi al dituzu eskuratu nire anaiaren ondasunak?
- Jazinto** Nahiko ez dut ba? Baina, zergatik uste duzu etxe honetan egin ditudala hainbeste urte? Behin eta berriz zure anaiaren irteera txoroak entzuten? Zerbait esan beharrean, mingainari koska egin eta isilean geldituz? Muturreko bat emateko gogoia izatean, etxe atzeko putzura joan eta ukabila uretan sarturik? Zertarako bizitza hori aukeratu bestela, zure anaiaren ondasunengatik ez bada?
- Joxepa** Eta zer jasoko duzu ordaintzat, beste horientzat utzi badu guztia?
- Jazinto** Ezer ez, baina ez eta beste hildakorik ere etxean. Eta zuk ere hobe duzu horrelako gauzak ahaztea...

V

Lehenagoak eta Euxebi

- Euxebi** (*Etxe barnerako atean agertzen da*) Zer? Isilikako kontuak al dituzue?
- Joxepa** (*Beretzat*) Hara hemen, pizti bat.

- Euxebi** Nik ere jakin nahi nuke zerbait...
- Joxepa** Besteen kontuak jakitea baino hobe zenuke zure senarra-ri lana eginaraztea.
- Euxebi** Lana? Ez hark eta ez nik, hemendik aurrera! Horretara-ko eskuratuko ditugu zure anaiaren ondasunak.
- Jazinto** Hitz egin ezazu mesedez behar bezala edo... Irakiten ha-sia dut oraintxe odola...
- Euxebi** Zer uste zenuten ba zuek? Guztia hartu eta ihes egitea ni konturatu gabe? Baita zera ere!
- Joxepa** Ihesi zuek egin duzue, hemen den hau laguntza beharrean izan denean. Orain berriz, bele zaharrak bezala, beraren inguruan...
- Euxebi** Zuk nahiago ziur asko ahoa zabalik ilargira begira egon banintz. Baina, ez. Garaian iritsi naiz, guztia jaso eta alde egiteko. Baina, lasaitu zaitezte... Etxe honetan jarrai de-zakezue orain artean bezala, baldin ordaintzen baduzue behintzat urteko errenta.
- Joxepa** (*Jazintori*) Baina, entzuten al diozu honi?
- Euxebi** Ez dizuet handia jarriko errenta, baina aurrez ordaindu beharko duzue, hemen bizitzen jarraitu nahi izanez gero behintzat.
- Jazinto** Ez dakit oraintxe bertan ez duzun kobratuko zerbait...
- Euxebi** Ez, ez. Oraindik ez. Senarrarekin hitz egin ondoren era-bakiko dut ordaindu behar duzuen errenta hori.
- Jazinto** Zaude isilik, mesedez... Zaude isilik!
- Joxepa** (*Jazintori*) Zaude geldi, kirtenkeriarik egin gabe! Itxura denez honi burura igo zaio edan duena eta ez da kontu-ratzen zer esaten duen.

- Jazinto** Oraintxe dut une ederra orduan, zaplateko bat emateko! Ikusiko duzu zer azkar konturatuko den txorakeriak esaten ari dela eten gabe.
- Joxepa** Zaude geldi, gizona!
- Euxebe** *(On Tiburtziori begira egon ondoren)* Bai, aita. Horrela egingo dut. Urteko errenta ordaintzerik nahi ez badute, eta aurreratuz gainera, kalera agudo!
- Jazinto** *(Euxebiri)* Eman behar diot... Eman behar diot!
- Joxepa** *(Jazintori helduz)* Zaude geldi! Muturrekoak ematen has-tea baino hobe dugu nik esan dizudana egin.
- Jazinto** Honek bezalako asmoak badituzte beste horiek, zerbait eginda hobe ahalik eta azkarren.
- Joxepa** Zatoz nirekin... *(Eskutik helduz etxe barnera eramaten du Jazinto)*
- Euxebe** *(Konturatu ere egin gabe, On Tiburtziori hitz egiten dio)* Zure ondasunak eskuratzean lehenik egingo dudana, aita, zure alde meza bat ordaintzea izango da. Baina kontuz, aita, ez pentsa hilean behin berdin egingo dudanik... Bakarra nahikoa izango duzu, betiko atsedena iristeko. Urtean behin beste meza bat, baldin eta zure arrebak etxe honen errenta behar bezala ordaintzen badu... *(Gozoki zaplateko batzuk emanaz On Tiburtziori)* Mila esker, aita. Mila esker! *(Alde egiten du kanporako atetik, hitz egiten duen bitartean)* Haize pixka bat hartzea ez zait gaizki etorriko eta atarira irtengo dut...
- Tiburtzio** *(Bakarrik gelditzean)* Hau ez duk nire ondasunen zati batekin bakarrik betetzen... Guztia beretzat, alajaina! Eta nire arreba eta beraren senarra berriz?... Egin behar di-tek izugarrizkoren bat. Ausartuko ote dituk ba, guztiei pozoina ematen? *(Usain eginaz)* Arkuxun! Hauxe bakarrik behar nian oraintxe! Hago isilik, Tiburtzio... Hago isilik! Edo bestela gaur, benetan hilko haute! Arkuxun!... Konturatzen badira bizirik eta guztia entzuten naizela, ez zi-

datek utziko mahai honetatik zutitzen. (*Isilunearen ondoren*) Hemen duk beste norbait...

VI

On Tiburtzio eta Patxi

Patxi

(*Agertzen da etxe barnetik erdi mozkorturik eta botila eskuan duela. Tarteka, zotin egiten du*) Kaixo aita! Nahi al duzu txurrut bat egin? Honez gero, egarritua zara bapo, hainbeste denboran geldi-geldi eta gora begira zarela. Bai horixe! Tira, tori txurrut bat... (*Eskaintzen dio botila*) Zer? Ez duzula nahi?... Nahi duzun bezala. Ardo ederra zenuen behintzat izkutuan, aita. Jakin izan banu aurrez, sarriago etorriko nintzen. Bai, bai... Egia diot. Gustu ederrekoa, edaten erraza... Ederra ardoa benetan! Gaur bezalako egun handia ospatzeko, benetan egokia. Tira aita, tori txurrut bat... (*On Tiburtzioren erantzuna jaso ondoren bezala*) Ez diat nahi... Ez diat nahi... Ondo burugogorra zara behintzat, aita. Lehen ere pentsatzen zenuena bakarrik egin behar eta hil eta gero ere berdin jarraitzen duzu. Hor konpon ba orduan! Egarritzen zarenean, alferrik eskatuko didazu... (*Gelan begira*) Baina, non da nire emaztea? Atarira irten ez badu... (*Alde egiten du kanporako atetik*)

Tiburtzio

(*Bakarrik gelditzean*) Arkuxun! Ia ito ninduan oraingoan! Doministikun egin behar eta heldu ezinean, larri egon nauk. Eta beste hori, ardoa eskaintzen, alajaina, nire ondoan. Orain den eran, berehala duk mahai honen gainean nire tokian. Nire arrebak pozoindurik izango dik edaria ziur asko...

Patxi

(*Agertzen da kanporako atetik*) Nahi duena egitea zeukak ba emazteak! Etxeratuko duk aspertzen denean! (*On Tiburtziori*) Agur, aita! (*Alde egiten du etxe barnera*)

Tiburtzio

(*Bakarrik gelditzean*) Arkuxun!... Kaka zaharra! Ezin nintzekek honela egon inola ere. Norbaiten aurrean arkuxun-

ka hasiko nauk bestela, usterik gutxienean. (*Esertzen da mahai gainean*) Hau duk gerrialdea dudana berriz! Asmatuko al dut ibiltzen? (*Gainean dituen zapiak kendu ondoren zutitzen da eta gimnasia pixka bat egiten du*) Moteilak! Belaunak ere gogortuak ditiat zeharo. Arkuxun! Honela arkuxunka naizela, ezinezkoa duk afal ordura bitartean hemen egotea. Zerbait edan eta gutxienez sudur zuloak garbitu behar ditiat. Ni hemen ez naizela norbait etortzen bada, pentsa dezala nahi duena. Arkuxun! (*Hitz egiten ari dela, bere tokia zerbait txukuntzen du*) Zerbait freskatu eta berehala etorriko nauk... (*Alde egiten du kanporako atetik*)

Patxi

(*Agertzen da etxe barnetik, oraingoan botila gabe*) Barkaidazu, aita, baina pixa egitea ere ahaztu egin zait lehen atarira irten dudanean. Berriro joan beharra dut... (*Mahaira hurreratzen da*) Eta zu, isilik hor, gaizki iruditzen bazaizu ere. Isil-isilik... (*Konturatzten da On Tiburtzio ez dela bertan*) Zer? Zer gertatu da hemen? Non duk ba aita? Hildakoa?... Gehiegi edanik izango diat ziur asko... Gehiegi. Bestetan gehiegi edaten dudanean, baten tokian bi ikusi ohi ditiat eta gaur berriz bakarra ere ez. (*Begiratzten du ondo mahai gainean*) Baina, begiak ez zidatek gezurrik esaten... Ez horixe! Hemen, ez duk inor! (*Erortzen da lurrera, hilik bezala*)

Tiburtzio

(*Agertzen da kanporako atetik*) Ez ote nauk behintzat berriro arkuxunka hasiko! (*Patxi lurrean ikustean*) Arranapola! Konturaturik izango duk honako hau ez nintzela hemen. Edo edari pozoinduak lurreratu dik bestela. (*Berriro lehen bezala mahai gainean etzaten den bitartean, hitz egiten du*) Hauek dituk istiluak sortu ditudanak! Benetan hiltzen ez banaute gaurkoan...

VII

Patxi, On Tiburtzio eta Julene

Julene

(*Agertzen da etxe barnetik*) Baina, zer zabilta, On Tiburtzio?

- Tiburtzio** Larrialdi ederra igaro dut...
- Julene** Eta beste hau? Zer gertatu zaio honi? (*Laguntzen dio On Tiburtziori mahai gaineko zapiak txukuntzen*)
- Tiburtzio** Hankaz gora eroririk izango da, ni hemen ez naizela konturatzean.
- Julene** Baina, non ibili zara, gizona?
- Tiburtzio** Aurpegia zerbait freskatu eta sudur zuloak garbitzen. Ia ito nintzen, behin arkuxunka hasi naizenean. Doministikuari aurka egin ezinean, hobeto esanda.
- Julene** Eta orain, zer?
- Tiburtzio** Zer egingo dut ba? Ahalegin guztiak afaltzeko ordura bitartean hemen egoten.
- Julene** Hemen den honek horregatik izutu ederra hartu behar du berriro mahai gainean ikusten zaituenean?
- Tiburtzio** Ez du besterik merezi! (*Patxiren eran hitz egiten duela*) «Agur, aita!... Kaixo aita!...» (*Beraren eran*) Jo ez dudanean ostikoz. Ziur da gainera berarentzat utziko ditudala ondasunak. Gutxiagok on egin behar zio horregatik. Bai arranoa!
- Julene** Tira, zaude isilik edo berehala konturatuko dira zer gertatzen den.
- Tiburtzio** Zain ezazu behintzat nire arreba eta baita beraren senarra ere, edo bestela izugarritzoren bat gertatu behar du.
- Julene** Lehen ere ez dira txikiak gertatzen ari.
- Tiburtzio** Ez dezatela behintzat ezertxo ere edan etxean diren horiek edo bestela berehala dira mahai gainean ni bezala... Ni bezala ez. Hilik... Hilik guztiak!
- Julene** Orain arte bezala edaten jarraitzen badute, ez da harritzekoa!

- Tiburtzio** Edaria pozointzeko asmoan da nire arreba.
- Julene** Zer?
- Tiburtzio** Entzun duzuna. Ikaragarria egin behar du...
- Julene** Oraintxe bertan edari guztiak izkutatuko ditut.
- Tiburtzio** Bai, bai... Egin ezazu horrela, guztiak haserretzen badira ere.
- Patxi** (*Lurrean, zutitu nahirik bezala*) Hau duk kaka harrapatu dudana gaurkoan!
- Tiburtzio** (*Isil antzean Juleneri*) Zoaz agudo... (*Julenek alde egiten du etxe barnera*)
- Patxi** Bapo edanik izango diat... Lehen aldia izango duk gaurkoa, edariak lurreratu nauena. (*Zutitzen da*) Edariak lurreratu nauela esan al dut?... Ez jauna! Orain gogoratzen nauk... (*Begiratzan du On Tiburtzio mahai gainean den*) Hemen duk bai, aita. Iruditu zaidak ordea, ez zela hildakorik mahai gainean eta plost! lurrera. Hil eta gero ere arpa jotzen jarraitu behar al dik ba berak? Bizirik zela nahiko lan eman zidaan! (*On Tiburtziori hitz egiten dio*) Zu hortxe, aita... Geldi-geldi eta patxadan, nik beste txurrut batzuk egiten ditudan bitartean... Geroago etorriko naiz berriro. (*Alde egiten du etxe barnera*)
- Tiburtzio** (*Bakarrik gelditzean*) Arkuxun!... Hau duk aldia hau! Ito behar diat heldu ezinean! Berriro ere muturraldea freskatzea izango diat onena... (*Zutitzen da eta estalkitzat duen zapi bat bizkarretik behera hartu*) Hobe izango diat honekin estaltzea edo bestela izugarrizko katarroa harrapatu behar diat... (*Alde egiten du kanporako atetik*)

VIII

Benito eta Patxi

- Benito** (*Agertzen da etxe barnetik, Patxiri lagunduz*) Nahikoa duk Patxi... Nahikoa duk...

- Patxi** Guztiak edan dituk eta...
- Benito** Guztiak edan? Emakume zahar horrek jaso ditik ezer esan gabe, mahaian ziren edari guztiak. Esan behar, moitel, bereak direla.
- Patxi** Zaplateko bat eman behar.
- Benito** Egokia haiz hi norbait jotzeko... (*Esertzen laguntzen dio Patxiri gelaren alde batean diren aulkietako batean eta bera ere esertzen da*) Euliak baino ere indar gutxiago duk. Edaria gainezka duala ederki ematen duk alaba gaztearen aurrean... Oso ederki.
- Patxi** Eskerrak ez nauen ikusi lurreratu naizenean.
- Benito** Berriro ere eroriko haiz, hainbeste edaten baduk.
- Patxi** Oraindik ezin diat sinetsi edariak lurreratu nauenik. Iru-ditu ez zaidak ba, hildakoa ez zela bere tokian?
- Benito** Tira, Patxi...
- Patxi** Eta plost, lurrera.
- Benito** (*Zutituz*) Nahikoa diagu! Aita txintik egin gabe eta geldi, hor izango duk bihar goizean ere. (*Mahaira hurbilduz*) Baina, hik uste al duk hildako bat... (*Konturatzen da ez dela bertan On Tiburtzio*) Zer? Non da aita? Jainkoa! Ez duk hemen! Ez duk hemen!
- Patxi** Nik esan dudana!
- Benito** (*Deika etxe barnera*) Osaba! Izeba! Zatozte azkar!
- Patxi** (*Zutituz*) Nik bakarrik ez ditiat ikusten hemen gertatu ezinezko gauzak...
- Benito** Baina, hildako batek nolatan alde egingo dik ba?
- Patxi** Hori bera pentsatzen diat nik ere... Janari bila joan ez bada...

Benito Hago isilik, astakeriarik esan gabe! Miraria... Mirari bat gertatu duk hemen! (*Belaunikatuz*) Jainkoa! (*Otoitzean bezala gelditzen da*)

Patxi Miraria? Nire aitaren asmakizun berriren bat, ziur asko!

IX

Lehengoak, Joxepa, Jazinto eta Karmele

Joxepa (*Agertzen da etxe barnetik, ondoren Jazinto eta Karmele direla*) Zer gertatzen da hemen?

Patxi Hildakoa ez dela hilik, itxura denez.

Jazinto (*Mahai ondoan*) Arranopola! Ez dago hemen!

Benito Miraria... Mirari bat gertatu da!

Joxepa Jainkoa! Guri gertatu behar honelakoak ere...

Jazinto Oraindik bizirik bada, ez da urrutian izango!

Joxepa Aurki dezagun orduan...

Jazinto (*Joxepari*) Begira zuek etxean.

Joxepa Eta zuk, etxe inguruan.

Jazinto Hasi agudo! (*Alde egiten du Joxepak etxe barnera, Karmele ondoren dela*) Eta hik, Patxi, jarraitu horiei.

Patxi Nik? Ez, ez... Ez dut lurreratu nahi berriro.

Jazinto Alde agudo, hemen bertan lurreratzea nahi ez baduk.

Patxi Aspertzean etxeratuko da berriro aita.

Jazinto Alde egizak agudo nire begien aurretik. Alde agudo!

- Patxi** Hau duk hau... Nahi ez badut ere, joan egin behar...
(*Alde egiten du etxe barnera*)
- Jazinto** (*Etxe barnera*) Eta hire aita hori ikusten baduk, heldu azkar! (*Benitori*) Eta hi, zutitu agudo! Ez al didak entzun?
- Benito** Miraria... Mirari handi bat gertatu da!
- Jazinto** Hire otoitzen ordaina, ziur asko... Tira, zutitu azkar eta hator nirekin.
- Benito** Zurekin? Zertara, osaba?
- Jazinto** Zertara izango duk ba? Hire aita non den begiratzera.
- Benito** Baina, osaba...
- Jazinto** (*Heldu eta zutituz*) Hildakoa aurkitu behar diagu nonbait. Hildakoa!... Zeinen hileta ospatu behar diagu bestela bihar? Eta bestalde, nolatan eskuratu ondasunak, hildakoa bizirik bada?
- Benito** Hori gainera! Noiz eskuratu aitaren ondasunak?
- Jazinto** Hator nirekin etxe inguruan begiratzera.
- Benito** Goazen, bai... (*Alde egiten dute biak kanporako atetik*)

X

On Tiburtzio, Julene eta Jazinto

- Tiburtzio** (*Unetxo baten ondoren agertzen da kanporako atetik*) Eskerrak ez duten ate atzean begiratu... Hau duk istilua! Ezin etzango nauk berriro mahai gainean edo bestela nireak egin dik. (*Etxe barnera begiratzen du*) Hemen duk norbait... (*Ate ondoan gelditzen da zutik, Aitaren egin ondoren*)

Julene *(Agertzen da etxe barnetik eta mahai ondora hurbiltzen da konturatu gabe On Tiburtzio gelan dela)* Egin du azkenean kirtenkeria ederra! Neuri esan ez dit ba afaltzeko ordura bitartean hemen egon behar duela? *(Etxe barnerako sarre-rara begiratzean ikusten du On Tiburtzio beregana datorre-la eta, izaturik, halako garrasi bat egiten du)* Aaaa!...

Tiburtzio Zaude isilik, emakumea! Ni naiz...

Julene Hau da ikara eman didazuna! Baina, zoaz... Zoaz hemen-dik lehenbailehen! *(On Tiburtziok alde egiten du etxe bar-nera eta, beraren ondoren, baita Julenek ere)*

Jazinto *(Agertzen da kanporako atetik, makila bat eskuetan duela)* Garrasi bat entzun dudala iruditu zaidak, baina ez duk hemen inor... Non demontre sartu duk ba gure hildako hori? Gure etxean gertatzen direnak ez dituk beste inon gertatzen! Hildakoak ihes, alajaina! Askotan pentsatu izan dudan bezala, nire emaztearen anaia horrek, izan ere, katu batek baino bizitza gehiago ditik. Itxura denez, sartu zioke ziri ederra sendagile gazte horri ere... Bai galanta! Hilik zela? Beste askotan bezala, orain ere azken arnasa eman zuelakoan eta hau duk burubidea. Makilkada ederra hartu behar dik horregatik oraingoan... Arranopola! Oraintxe, beraren ondasunak eskuetan genituelakoan eta ihesi, alajaina!

XI

Jazinto eta Benito

Benito *(Agertzen da kanporako atetik)* Ez zait gaizki iruditzen. Ez jauna! Ni etxearen jiran naizen bitartean, osaba, zu he-men lasai.

Jazinto Oraintxe sartu nauk, garrasi bat entzun dudala iruditu zaidalako. Zer? Hor kanpoan, arrastorik ez?

Benito Etxe inguruan ez da ageri behintzat.

- Jazinto** Barruan izango duk orduan. Berehala aurkituko diat... Hago hemen, honantz azaltzen bada ere.
- Benito** Eta zer egin behar diot, ikusten badut?
- Jazinto** Zer egingo diok ba? Muturreko bat eman!
- Benito** Aita jo?
- Jazinto** Hilik bada, moteil, ez dik minik hartuko.

XII

Lehengoak, Joxepa, Karmele, Patxi eta Julene

- Joxepa** (*Etxe barnean, agertu gabe*) Tiburtzio! Tiburtzio!
- Karmele** (*Berdin*) Bizirik!... Aitona, bizirik!
- Jazinto** Bizirik? Berehala lurreratuko diat. Bai arranoa! (*Alde egiten du etxe barnera*)
- Benito** (*Bakarrik gelditzean*) Zer egin behar dut nik hilik zen aita aurrez aurre agertzen bazait? Hortzak ere ihes egin behar zidatek, beldurraren beldurrez.
- Joxepa** (*Etxe barnean*) Zure atzean, Jazinto! Zure atzean!...
- Jazinto** (*Etxe barnean*) Orain geldituko dut... Bai hala zangoa!
- Benito** Hilik zela? Itxura denez, ez da makala oraindik aita...
- Patxi** (*Etxe barnean, oinazez*) Ai! Ai!
- Jazinto** (*Etxe barnean*) Arlotea! Orain ere behar ez den tokian. Tira Joxepa, ez utzi ihes egiten! Ez utzi!...
- Benito** Nire osaba horrek jolaserako gogoak kenduko dizkio oraingoan.
- Patxi** (*Agertzen da etxe barnetik, buruari heltzen diola*) Hau duk zartatekoa eman didana asto zahar horrek. Hau duk zartatekoa!

- Benito** *(Laguntzen dio esertzen Patxiri)* Mozkorrak berehala alde egingo dik osabaren ondoan. Zutik egon ezinean eta nola daiteke aitaren atzetik joan?
- Patxi** Osabak agindu didalako. Ez bestela!
- Benito** Hik harrapatuko dualako aita?
- Patxi** Hik ere ez, oraingo eran.
- Julene** *(Agertzen da presaka etxe barnetik, eskuetan paper bat duela)* Ni banoa etxe honetatik... Lurperatuko nau bestela arlote horrek. *(Papera emanaz Benitori)* Tori hau eta konpondu zaitezte nahi duzuen bezala!
- Benito** Zer da hau? *(Hartzen dio papera)*
- Julene** Zure aitaren testamentua... *(Alde egiten du presaka kanporako atetik)*
- Benito** Baina... *(Kanporako ate aldera joanez)* Nondik atera duzu ba zuk, testamentu hau? *(Alde egiten du kanporako ate ondotik)* Kaka zaharra! Esan behar tximista bat duela beraren ondoren atso zahar horrek!
- Patxi** *(Benitoren ondora hurbilduz)* Ongi entzun al dut atso horrek esan duena? Gure aitaren testamentua dela hori?
- Benito** *(Irakurtzen duela)* Horrela zirudik, bai.
- Patxi** Eta zer?
- Benito** Hago isilik behintzat irakurri bitartean! *(Jarraitzen du beretzat irakurtzen)*
- Patxi** Irakur ezak mesedez, nik entzuteko eran... *(Benitok, lehen bezala jarraitzen du)* Ez al didak entzun?
- Benito** Jainkoa! Egin ziguk ederra gure aitak! Etsaiak!... Emakume zahar horri utzi, alajaina, ondasun guztiak.

- Patxi** Zer? Zer esan duk?
- Benito** Korrika irten duen atso zahar horrentzat utzi duela guztia.
- Patxi** *(Benitori papera eskutik kenduz)* Ezin zitetek! Ezin zitekek! *(Beretzat irakurtzen hasten da)*
- Benito** Baina, ez duk honela geldituko guztia. Ez horixe! Orain-txe bertan joango nauk emakume horren ondoren... *(Alde egiten du presaka kanporako atetik)*
- Patxi** *(Irakurriz)* «Garbi ikusirik nire semeak ezezik, arreba ere ditudan ondasunak bereganatu nahirik direla, dudan guztia aspalditxotik ezagutzen dudan Julene Arbiondori uzten diot...» *(Haserre)* Kaka zaharra! Nire ametsak, joan dituk pikutara! Azken unean ere egin behar zian astakeria aitak... Nolatan ez ba? *(Gogoraturaz)* Baina, oraindik bizirik bada, alda lezakek testamentu hau... Eta aldatu beharko dik!
- Joxepa** *(Agertzen da etxe barnetik, Karmelek laguntzen diola)* Ero-ri behar dut une batetik bestera... *(Esertzen da)* Bihotza. Ahotik irteteko zorian dut, nire anaia aurrez aurre ikusi dudan unetik. Baina, nola daiteke hildakoa piztu?
- Patxi** *(Papera emanaz Joxepari)* Hilik baino bizirik beharrezkoa-goa dugu une honetan nire aita. Irakur ezazu bestela beraren azken nahi hau...
- Joxepa** Ederra nauk oraintxe, zerbait irakurtzeko...
- Patxi** Hori duzu nire aitaren testamentua eta ez zuk eta ez nik nahi bezalakoa, zoritxarrez.
- Joxepa** Baina, nondik nora eskuratu duk? *(Irakurtzen hasten da beretzat)*
- Jazinto** *(Agertzen da etxe barnetik, eskuak igurtziz)* Ez da berriro piztuko. Ez arranoa!

- Patxi** Zer?
- Jazinto** Zapla! buruaren erdi-erdian eta plost! lurrera, txintik egin gabe...
- Patxi** Hilik?
- Jazinto** Oraingoan ez duk berriro piztuko!
- Patxi** Kaka zaharra, osaba... Guztia galdu dugu!
- Jazinto** Bizirik jarraitu izan balu bai.
- Joxepa** (*Zutituz*) Jainkoa! Hau da arpa jotzea egin diguna nire anaiak!
- Patxi** Oraindik bizirik bada, beraren azken nahia alda dezake aitak.
- Jazinto** Hire aita bizirik? Ez arranoa!
- Joxepa** Atso zahar horren ondoren joan behar dugu orduan.
- Jazinto** Noren ondoren? Zertarako?
- Patxi** Bizkor asko irten du etxetik...
- Joxepa** (*Jazintori*) Baina, ez al duzu ezer ulertuko? Nire anaiak, Julene edo delako emakume zahar horri utzi dizkio beraren ondasun guztiak. Hara hemen, beraren testamentua...
- Patxi** Etxetik irten duen abiadan, bide luzea egina du honez gero.
- Joxepa** Zer? Alde egin duela?
- Patxi** Nire anaia apaiz hori atzetik duela...
- Joxepa** Goazen ba gu ere! (*Alde egiten du kanporako atetik, beraren ondoren Karmele dela*)

Jazinto Ez dik urrutira ihes egingo, beste hori bezala jotzen badut... (*Alde egiten du kanporako atetik*)

Patxi (*Bakarrik gelditzean*) Azkenean, ezer gabe etxekoak... Aitaren azken astakeria, txikia izan duk...

XIII

Patxi, Euxebi eta On Tiburtzio

Euxebi (*Agertzen da kanporako atetik*) Baina, zer gertatzen da hemen? Norako asmoan dira beste horiek korrika?

Patxi Sinetsiko al dizkidazu azkenaldian etxe honetan gertatzen direnak?

Euxebi (*Konturatzean mahai gainean ez dela On Tiburtzio*) Jainkoa! Zer egin diozu aitari? Non da bera?

Patxi Nire aita, bizirik da.

Euxebi Zer?

Patxi Gaizki esan dizut. Nire aita hilik zen, baina piztu egin da.

Euxebi (*Dardarka beldur*) Zaude isilik, gizona...

Patxi Piztu eta berriro hil egin du gure osaba arlote horrek.

Euxebi Gehiegi da niretzat... (*Lurrera erortzen da zorabiatu*)

Patxi Nik esan dudana... Sinetsi ezinezkoa dela gaur hemen gertatu dena. Sinetsi ezinezkoa! (*Makurtzen da Euxebiri laguntzeko*) Hau piztuko al duk berriro behintzat edo bestela alargundua nauk... (*Astintzen du Euxebi*)

Tiburtzio (*Etxe barnean agertu gabe*) Arkuxun!...

Patxi Zer? Oraindik ere gelditu al da norbait etxean?

- Tiburtzio** (*Etxe barnean*) Arkuxun!...
- Patxi** (*Zutitu eta etxe barnerako ate ingurura joaten da*) Atso zahar hori bihurtu ez bada berriro etxera...
- Tiburtzio** (*Agertzen da etxe barnetik larrian eta kopeta odolez egina duela*) Arkuxun!...
- Patxi** Etsaiak!... Aita! (*Erortzen da lurrera zorabiatu-rik*)
- Tiburtzio** (*Hitz egiten duen bitartean, mahaira hurreratzen da larrian*) Oraingoan bai azken unea iritsi zaidala... Burua lehertze-ko zorian dut. Lehertzeko zorian... (*Mahai gainera igo nahi badu ere, ezin du eta, doministikun bat egin ondoren, lurrera erortzen da. Unean, argiak itzaltzen dira, gertakizuna bukatuz*)

BAZASOR BANDA

Belen Zubia
3. mailako ikasleek antzeztua
Txotxongiloa
Odon Apraiz ikastola
Gasteiz
1991-92

GAI

Sorginak, zaldunak eta Basajaunek gaiztoen banda bat osatzen dute. Beraien lehen helburua: Iletsuk duen mapa lapurtzea. Mapa honetan ate guztiak irekitzen dituen giltza non dagoen jartzen du. Mapa kentzen diote eta, giltza eman beharrean, txinatarrak, hitz majikoak esan ondoren, egurra ematen die. Baina ez da gauza bera gertatzen Iletsu giltzaren bila doanean, bera ona baita. Azkenean Iletsuk, garaile, Bazasor bandako hiru partaideak zakarrontzira botatzen ditu.

PERTSONAIAK

Sorgina
Basajaun
Zalduna
Pantxita
Iletsu
Txinatarra

1. ESZENA

Sorgina, Basajaun eta Zalduna

- Sorgina** Oso zozoak gara. Ez zaigu gaizakeriarik bururatzen...
- Basajaun** Oraintxe bertan pentsatzen hasita nengoen, banda bat egin edo...
- Sorgina** Noski! Ez dago gaizki, ez! Gaiztoen banda bat!
- Basajaun** Noski, neskak zirikatzeke, txikiak jotzeko eta beldurtzeko, animaliak hiltzeko...
Luma eta kapeladun zaldunari esan diezaiokegu gure bandakoa izateko, guk bezalako gustuak ditu eta.
- Sorgina** Oso ondo! Inork ez du bere susmorik. Ez da zu eta ni bezalakoa; gu denek ezagutzen gaituzte.

- Basajaun** Jauregian sar daiteke, markesa dela esan eta printzesa amorrarazi. Deitzera noa. (*Deika*) Zalduna! (*Zalduna agertzen da*)
- Zalduna** Zure esanetara, Basajaun. (*Erreberentzia*) Zure esanetara, sorgin maitea (*Erreberentzia*)
- Basajaun** Nahi duzu gure bandakoa izan?
- Zalduna** Zer ondo! Gustazen zait zuen banda! Egia da katu bati sua eman zeniotela?
- Sorgina** Bai! Oso dibertigarria izan zen. Hiruron artean ea nork asmatzen duen astakeriarik handiena! (*Hirurak burua esku artean, pentsakor*)
- Zalduna** Aurkitu dut!
- Sorgina eta Basajaun** Zer? Zer?
- Zalduna** Ezagutzen duzue Iletsu?
- Sorgina** Bai, tontolapiko bat.
- Basajaun** Bere txakurra maite du. Zer tontoa den!
- Sorgina** Txakurra hilko diogu?
- Zalduna** (*Misterio handiz*) Xxx... Hori gero etorriko da. (*Begiratu egiten du inork ez diela entzuten ziurtatzeko*) Iletsuk plano sekretu bat du. Plano sekretu horretan ate guztiak irekitzen dituen giltza non dagoen ageri da.
- Sorgina** Ziur al zaude?
- Zalduna** Egongo ez naiz ba! Pantxitak esan dit. Eta Pantxitak ez daki sekretuak gordetzen. Limoizko izozki bat erregalatu nion eta den-dena atera nion.
- Sorgina eta Basajaun** Lapurtuko diogu?

Sorgina Hori izango da gure bandaren lehen abentura. Bandak izena ere beharko du, ez da?
Zu Basajaun izango zara. (*Garrasika*) Baaa!
Zu, zalduna. Zaaa!
Eta ni, sorgina. Soor!
Badaukagu izena: Ba-za-sor.

**Basajaun
eta zalduna** Bazasor banda gara!

Denak Gora, Bazasor banda gara!

Sorgina Musika jarriko diogu.
(*Abestu, dantzatu eta desagertu egiten dira*)

2. ESZENA Pantxita eta Iletsu

Pantxita (*Negarrez*) Ai, Iletsu, bazoaz! Zer pena!

Iletsu Ez izan negartia! Oso garrantzitsua den zerbait aurkitu behar dut. Halako pena baduzu, zatoz nirekin.

Pantxita Ai, ez! Abenturek beldur handia ematen didate!

Iletsu Ez dago arriskurik. Zuk eta nik bakarrik dakigu sekretua. Ezin da ezer gertatu.

Pantxita Ai, Iletsu... Ileluze... Ilegogor. Beldur handia dut, ai, ai!
(*Negarrez*)

Iletsu (*Pantxitari kasurik egin gabe, gauzak prestatzen ditu*)
Mapa... poltsa... (*Gauza biak ateratzen ditu*) Bokatak sar-
tu al dituzu?

Pantxita Bai, Iletsu... Ileluze... Ilegogor...

Iletsu (*Haserre*) Nahikoa da! Ez itzazu nire abizen guztiak esan.

Pantxita Baina ez diozu giltza ez dela zuretzat izango, ba... ez zaitez joan!

Iletsu Baina abentura neuretzat izango da. Giltza, bere jabearentzat. (*Maitakor*) Ea, emaidazu besarkada bat. (*Elkar besarkatzen dute*) Lagunduidazu poltsa egiten. (*Pantxitak laguntzen dio, negarrez*) Eskerrik asko, Pantxita. Eta orain, zain ezazu gure txakurra eta... sekretua gorde, e! Ez inori esan. Eta ez ireki atea luma eta kapeladun zaldunari. (*Iletsu desagertzen da. Pantxitak negarrez jarraitzen du. Berehala isiltzen da*)

Pantxita Zalduna ez da bat ere gaiztoa. Limoizko izozki bat erregalatu zidan. Eta ziur nago ez diola inori ezer esango. Iletsu exajeratu bat da. (*Desagertu egiten da, abesten*)

3. ESZENA

Iletsu eta gero Bazasor banda

Iletsu (*Planoari begira*) Zer motza egiten ari zaidan bidea! (*Ahoa zabaltzen du eta nagiak ateratzen ditu*) Zer logura... (*Planoa gordetzen du, laztanduz, eta lurrean uzten du. Burua bere gainean jarri, loak hartu eta zurrungaka hasten da. Bazasor banda agertzen da, abesten; lehenengo oso isilean eta gero altuago, Iletsu lotan dagoela ziurtatzeko*)

Basajaun Basajaun naiz, baaa!

Zalduna Zalduna naiz, zaaa!

Sorgina Sorgina naiz, sooor!

Hirurak Bazasor banda gara gu (*Abestuz*)

Basajaun Ez dago dudarik, lotan dago.

Sorgina Ba goazen lanera! Nik burua jasoko diot; zuk poltsa ireki eta plano atera. Ados?

- Zalduna** Ea ba! (*Bakoitzak berea egiten du eta karpeta bere lekuan gelditzen da, ezer gertatu ez balitz bezala*)
- Basajaun** (*Iletsuri*) Lelo hori!
- Sorgina** Kirtena halakoa!
- Zalduna** Tontolapiko alena! (*Abesten desagertzen dira. Iletsuk zurrungaka jarraitzen du. Esnatzen da, majiak atera, poltsa hartu eta abesten desagertzen da*)

4. ESZENA

Banda eta gero txinatarra

- Basajaun** (*Planoari begira*) Hau da tokia.
- Zalduna** Iritsi gara.
- Sorgina** Hirurok batera, esan ditzagun hitz majikoak. Neuk kontaktuko dut: bat, bi eta hiru...
- Hirura** Eguzkira doan barraskilo hark, adartxo bakoitzetik lora-txo bat. Gora maitasuna, gora maitasuna! Barraskiloaren maitasuna! (*Txinatarra agertzen da; ulertezina den hizkuntzan hitz egiten du, baina keinuengatik, badirudi buruak jaisteko adierazi nahi diela*)
- Basajaun** Burua makurtzeko esaten digu.
- Sorgina** Erreberentzia egiteko dio (*Egiten dute. Txinatarrek bere hizkuntza ulertezinez eta keinuen bitartez, buruak makurtzeko eta ez igotzeko esaten die*)
- Zalduna** Buruak behean edukiz egoteko esaten du. (*Hirurak jaitzen dituzte. Txinatarrek egurra ateratzen du, buruan jotzen ditu hirurak eta desagertzen da, hizkuntza ulertezinean hitz eginez*)
- Sorgina** (*Aienaka*) Ai! Ez dut ezer ulertzen!
- Basajaun** Gaizki esan ote ditugu hitzak?

- Sorgina** Ez, txinatarra agertu da eta.
- Zalduna** Noski! Badakit zer egin! Planoa Iletsuri itzuliko diogu eta honela bera joko dute.
- Sorgina eta Basajaun** Horixe! Horixe! Itzuliko egingo diogu emandako «saria».
- Basajaun** Basajaun naiz, baaa...!
- Zalduna** Zalduna naiz, zaaa...!
- Sorgina** Sorgina naiz, sooor...!
- Denak** Bazasor banda gara gu! (*Abestu eta dantzatzen desagertzen dira*)

5. ESZENA

Iletsu eta gero banda

- Iletsu** (*Alde batetik bestera ibiliz, bide luzea egiten duen itxurak eginez; poltsa ireki eta planoak falta zaiola konturatzen da*)
Baina, baina, baina... Hau burua! Ez dut ba garrantzizkoena etxean utzi?... Beno, lasai! Buelta erdi eskuinetara! Ja! (*Buelta ematen du eta abesten desagertzen da. Banda agertzen da bere pistari jarraituz*)
- Sorgina** Bera konturatu gabe aurreratu behar dugu.
- Basajaun eta Zalduna** Konturatu gabe. (*Iletsu eta banda agertzen dira, bata bestearen aurretik, atzetik, aurretik. Gero bandak Iletsu aurreratzen du. Banda lehenago heltzen da eta zaldunak planoak uzten du*)
- Zalduna** Ajaja!
- Basajaun** Itzuli lapurtutakoa, haur onek egiten duten bezala...
- Sorgina** Ole, ole eta ole! Gora txinatarra, Iletsuri joka!

- Denak** Gora!
- Sorgina** Alde egin dezagun hemendik! Iletsuk ez gaitzala aurkitu! Tabernara joango gara ospatzera, ardo gorriarekin, eta txintxoiak Iletsuri aterako zaizkio, ez guri!
- Basajaun** Oso handi eta mingarriak izan daitezela!
- Zalduna** Eta gero atzetik jarraituko diogu nolako makilkadak hartzen dituen ikusteko.
- Sorgina** Horixe! Horixe! Hori ez dugu galdu behar! Ez horixe!
(*Barrez desagertzen dira*)

6. ESZENA

Iletsu eta gero txinatarra

(Banda noizean behin agertuz)

- Iletsu** Eguzkira doan barraskilo hark, adartxo bakoitzetik loraxto bat. Gora maitasuna, gora maitasuna! Barraskiloaren maitasuna!
- Txinatarra** (*Agertuz*) Inoiz ez zinela «etoliko» uste nuen! Hemen daukazu giltza. «Zeulea». «Zeulea» eta ez beste «inolena». (*Giltza ematen dio*)
- Iletsu** Baina, ez al da oso urruti bizi den gizon batena?
- Txinatarra** «Olain» mende asko bizi izandako gizon batena izan zen. «Olain», «zeulea». «Zeulea» eta ez beste «inolena».
- Iletsu** (*Giltza hartuz*) Eskerrik asko, txinatartxo! Zer pozik jarriko den Pantxita.
- Txinatarra** «Belalila» «sekletu» bat esango dizut. (*Iletsuri belarrira hitz egiten dio. Banda agertzen da beraiek konturatu gabe*)

Iletsu (*Barreari ezin eutsiz*) Zirkoan baino hobeto! Eskerrik asko, txinatartxo. (*Desagertzen dira*)

7. ESZENA **Bazasor banda**

Zalduna Zer zorte txarra!

Basajaun Zer zorte txarra! Atzetik dator!

Zalduna Iletsu madarikatua eta txinatar madarikatua!

Sorgina Lasai. Ez dugu berehalakoan etsiko, ez da?

Basajaun Baina, ez duzu ikusten Iletsu gorrotagarria garaile atera dela?

Sorgina Baina, ez duzu ikusten giltza lapur diezaiokegula eta txinatarrak eman ez dizkion kolpeak eman?

Basajaun Arrazoia.

Zalduna Baina, gure sorgintxo sorgintxo, nire bihotzeko sorgintxo! Bandako talentua zara.

Basajaun Basajaun naiz, baaa!

Zalduna Zalduna naiz, zaaa!

Sorgina Sorgina naiz, sooor!

Denak Bazasor banda gara gu! (*Desagertu egiten dira, abestuz*)

8. ESZENA **Iletsu eta gero banda**

Iletsu (*Zakua bizkarrean etxera heltzen da*) Zer agudo bukatu den abentura hau!.. Beno... bukatu... bukatu ere ez, oraindik ez! Oraindik barre asko egin behar dugu! (*Aho-zabal-*

ka) Zer logura! Ezin dut gehiago! (Lokartu egiten da)

- Basajaun** *(Sorgina eta zalduna sartzen) Basajaun naiz, baaa!*
- Zalduna** *(Altuago) Zalduna naiz, zaaa!*
- Sorgina** *(Garrasika) Sorgina naiz, sooor!*
- Denak** Bazasor banda gara gu!
- Zalduna** Lotan dago. Su emango diogu.
- Sorgina** Baina lehenengo orratzekin zazt! egingo diogu.
- Basajaun** Ba ez litzateke bat ere gaizki egongo lotzea eta hanketan kilikiliak egitea, eta horrela barrez hil...
- Zalduna** Baina lehenengo makilkada bat emango diogu, esnatzeko. *(Makilaz kolpe handi bat ematen dio)*
- Sorgina** *(Berari emango baliote bezalako makilkada sentitzen du; eskuak burura eramaten ditu) Ai, ai...! (Zaldunari) Leloa halakoa! Niri eman didazu makilkada! Alde!.. Ekarri! (Makila kentzen dio eta Iletsu gogor jotzen du)*
- Zalduna** *(Kolpea hartu izan balu bezala, aienaka) Ai, ai! Akabatu egin behar nauzu! (Basajaunek makila botatzen du. Iletsuri emandako makilkadak beraiek jasotzen dituzte. Lurrera erortzen dira, konortetik gabe)*
- Iletsu** *(Esnatu, nagiak atera eta bandari begiratzen dio) Arratsaldeon. (Denak jaiki eta berari begiratzen diote) Zuek ez zarete mutil maitagarriak... Basajaun, baaa? Zalduna, zaaa? Sorgina, sooor?... (Denak beldurturik ateratzen dira) Bazasor banda zarete!!! (Sustoarekin bandakoak lurrera erortzen dira, konortetik gabe. Iletsuk, abestuz, banan-banan botatzen ditu hirurak barrurantz) Zakarrontzira! Zikinkeriekin batera!.. (Abesten desagertzen da)*

BEDERATZI EZ DA BEDERATZI

BBBko 1. eta 2. mailetako ikasleak,
Helena Larrañagaren ardurapean
Komedia
Laskorain ikastola
Tolosa
1991-92

GATA

Bi detektibe hiltzaile baten bila dabiltza. Etxe oso bat arakatu ondoren, atariko zenbakia oker dagoela konturatzen dira.

PERTSONAIAK

Atezaina	Aingerua
Jhovaren testigua	2 emagaldue
Esnezalea	Ama
Detektibea	Fermintxo
Martxelo	Josetxo
(haren laguntzailea)	Pantxika
Ikaslea	Gregoria
4 neska	2 atso

ATEZAINAZA

(Atezaina lurra garbitzen ari da. Garbitu berria dagoen lekutik haur bat pasatzen da patinetean. Atezaina haserretu egiten da, baina garbiketekin jarraitzen du. Jhovaren testigua sartzen da foileto batzuk eskuetan dituela)

Jhovaren testigua

Ederra Jhovak eskainitako egun eguzkitsu hau, ez da? *(Atezainari ez dio erantzunik ematen uzten)* Jhovak emandako aukera zoragarri hau aprobetxatuz, foileto hauek...

Atezaina

Bai, gure Jesusitok ere egun zoragarria eman digu gaurkoan!

- Jhovaren testigua** Bai, foileto hauek oso baliagarriak gertatuko zaizkizu...
- Atezaina** Aizu! Ni nire Jesusitorekin oso gustora nago eta ez dut beste inoren beharrik! Ezetz, Jesusito? (*Goilareari musu eman ez eta jendea erakutsiz*)
- Testigua** Aspergarria iruditzen bazaizu, sistema berri bat dugu jendeak foileto hauek errazago irakur ditzan: «Foileto Light»!!!
- Atezaina** Zer light eta zer loight! Nire figura oraindik ondo dago! (*Baldea hartu eta testiguari ura botatzen hasten zaio*) Testiguak, ur bedeinkatua delakoan, Aitaren egiten du. (*Atezainak etxetik bidaltzen du*) Alde egin ezan hemendik, bestela hire foileto light-ak sartuko dizkinat «por donde te quepan»! (*Esnezalea sartzen da*)
- Esnezalea** Zer dun, Marimaxuxta?
- Atezaina** Hemen, Testikulo de Jehova horietako bati haizea eman nahian. Nire Jesusito beste bategatik aldatu nahi ez zidan ba!
- Esnezalea** (*Bere bularrei eutsiz*) Ene marmitak testigu!!! Hori esan al din? Nire J. R. hemen balitz, eramango zinan Jehova hori ipurdiz gora! (*Tartetxo bat*) Aizan, ez hintzen atzo pelukeriara joan!
- Atezaina** Ez... ejem... a... atzo... senarrarekin... siesta mugitu bat bota ninan... (*Gorputzaren mugimenduekin adieraziz*)
- Esnezalea** Pillina, pillina... orain ulertzen dinat hire buruko ruloena! (*60. hamarkadako itxuraz jantzitako neska xarmant bat sartzen da atezaintzan eta igogailurantz joaten da ipurtaldeak ongi mugituz. Igogailua etortzen denean, hartu eta gorantz doa*)
- Esnezalea** Ikusi al dun zer piura!
- Atezaina** Bai, neska! Gaur gainera gehiago ikusiko dinat, ze festa bat emateko baimena eskatu zidaten.

- Esnezalea** Jo, nik horrelako jantziak erabiltzen nizkinan, baina hauek (*Bularrei eutsiz*) txikiagoak zirenean...
- Atezaina** Beno, eseriko al gaitun? Gauza batzuk kontatu behar dizkinat eta!
- Esnezalea** Beno, ongi (*Eseri eta hitz egiten hasten dira*)
- Atezaina** Kontatu ninan ba Joxeparen haizpa haurdun gelditu zela...
(*Kanpoan oihu bat entzuten da*) Esnea!!!
- Esnezalea** Beno, lana zeukanat eta gero kontatuko didan...
(*Esnezalea igogailurantz doa*)
- Atezaina** Aizan! Ez ezan astoa igogailuan sartu, e!
- Esnezalea** Lasai, emakumea, eskaileretatik gora zoan eta!
(*Atezainak garbiketekin jarraitzen du, argiak pixkanaka itzaltzen doazelarik. Aldi berean, Henry Mancini-ren «Pantera Rosa» musika entzuten hasten da.*
Atzeko aldeko ate batetik, bi pertsonaia, detektibez jantzirik, misteriozuzki sartzen dira jende artean. Suspentse handiz, jendartea miatzen dute eta pixkanaka eszenatokira igotzen dira, atezaina dagoen tokira hurbilduz)
- Atezaina** Geldiiiiiiii!!!
- Martxelo** Jode, hildakoa honez gero esnatu da!
- Detektibea** Isildu hadi, motel! (*Atezainari hitz eginez*) Ni Ritxard Kolonbus, detektibea naiz eta...
- Martxelo** Eta ni Super Martxelo!
(*Aurkezpen tarjeta mordo bat ateratzen du detektibeak eta atezainari ematen dizkio, irakur ditzan*)
- Detektibea** P.Q.R.S.T.ko poliziak gara. Hilketak bat egon dela eta P.Q.R.S.T.ko zuzendari bikainak hona bidali gaitu.
(*Atezaina barrez algaraka hasten da tarjetak irakurtzen dituen heinean, bertan azaltzen diren esaldi batzuk aipatuz*)

- Detektibea** Esaten ari nintzen bezala... P.Q.R.S.T.tik etorri gara hildakoaren bila eta ziur gaude hiltzailea hemen nonbait dagoela, eta zure baimena behar dugu etxea arakatzeko... Baina P.Q.R.S.T.ko... (*Atezainak ez dio bat ere kasurik egiten*)... Beno, ekarri nire kartera! Martxelo, egin ezak zerbait, bil ezak kartera gutxienez! (*Berriro atezainari*) Beno, orduan araka dezakegu etxea?
- Atezaina** Beno, aurrera. Zertara etorri zareten esplikatu beharko didazue, ez da?
- Detektibea** (*Nahiko haserre, aurretik esan duen guztia alferrik izan baita*) Hilketak bat egon da eta zure baimenarekin... etxe hau arakatu nahi genuke.
- Atezaina** Egia esan, txartelak ez dirudite gezurrezkoak... baina ni oso erlijioso naizenez... eta gauzak ongi egitea gustatzen zaidanez... ba... belaunikaturik eskatu beharko didazue!
- Detektibea** Kaguen diez! Orain ere jefeari deitu beharko diogu... bestela emakume honek ez digu pasatzen utziko... (*Walkia hartuz, isilean, ahopeka hitz egiten du*) Nagusi, nagusi... orain ere jaten? (*Serioski hitz egiten du, alde batera eta bestera begiratzuz, inork ez diola entzuten ziurtatzeko*) Gure misioko XJ kokagunetik eskumara gaude... Zer?... (*Martxelo bitartean, detektibearen atzeko aldean jolasean ari da, detektibeak egiten duen guztia imitatuz*)... Bai, bai... ziur gaude... izan ere... atezain bat daukagu hemen... ez, ez, atso handia... «Un, dos, tres»en ateratzen direnak bezalakoa ez! (*Atezainak fregonarekin mehatxu keinuak egiten dizkio. Detektibea beldurtu eta bere esatekoa aldatzen du*)... Beno, antzik badu... Rulo batzuk ditu, baina... Emakume honek ez digu pasatzen utzi nahi! Beno, nagusi, esaten ari nintzen bezala... belauniko jartzeko agintzen digu emakume honek! Zer egingo dugu? Zer?... Belauniko jartzea onartu egiten duzu?... Bale, bale, jarriko gara... baina, eta nire andrea zer?... (*Erdi negarrez hasten da*)... Gaur jantzi ditut galtza berriak eta andreak neu jarriko nau galtzak garbitzen!

- Atezaina** Aizu, kontuz esaten duzunarekin! Oraintxe garbitu dut gero! Eta gainera... lehia eta «Mistol con olor a limón» erabili ditut. (*Hau eszenatoki erdian esaten du, «Profiden irifarra» jarriz eta telebistako iragarkiak imitatuz*)
- Detektibea** Belauniko jarri behar dut? (*Negarrez*)... Ongi da, kanbio eta zierro! (*Belauniko jartzen da eta Martxelo belaunikarazten du*) Ea, zer esan behar dugu?
- Atezaina** Beno ba... utzidazue pentsatzen... ederra naizenez... piro-po batzuekin eta noski... edukazioz hitz egin beharko didazue... Ja! (*Kronometroa martxan jartzen du*)
- Detektibea** Andere polit, eder, galant, txit goren honen baimen sakratua eskatzen dugu, arren!!! (*Izugarrizko abiadaz*)
- Atezaina** Toma rekorra!!! Beno, kortejatzea lortu duzue, baina ez pentsa neska erraza naizenik gero, e! Hor goiko pisuko batzuk bezala...
- Martxelo** (*Bat-batean altxatzen da*) Non, non? Zein pisu? (*Indiana Jones-en musika entzuten da. Gure detektibeak, heroiak bailiran, igogailuan sartzen dira*) (*Lehen esketxa bukatu eta bigarreneko dekoratua aldatzen da*)

1. SOLAIRUA

(*Detektibeak igogailutik irten eta ateko tinbrea jotzen dute behin eta berriz, baina inork ez du aterik irekitzen. Denbora pasatzen da eta detektibeen ezinegona gero eta nabariagoa da. Martxelo, txirrinarekin jolasean hasten da. Bitartean, eszenatokian, ikasle gazte bat lo dago ohean. Jira eta biraka dabil; ez du txirrinik entzuten. Azkenekoa bai, eta iratzargailuko alarma delakoan, itzali eta ohetik jaikitzen da. Erdi lo dago oraindik eta alde batetik bestera balantzaka doa atea zabaltzera*)

- Ikaslea** (*Atea ireki eta*) To, bi litro! (*Marmitarekin detektibeari barrabiletan jo eta barrura sartzen da*)

- Detektibea** Aizu! Ni ez naizela esnezalea!
- Ikaslea** *(Haserre etortzen da; marmita kendu eta arrautza-ontzia ematen dio)* Dozena bat!
- Detektibea** Aizu, andere, ni goizeroko esnezalea ez, baina Ritxard Kolonbus detektibe ospetsua naiz, e!
- Martzelo** Eta ni Martxelo!
- Ikaslea** Pasa, pasa... eta barkatu e... pasa, pasa... baina pasaaaa! Ohean harrapatu nauzue.
- Detektibea** Hilketa bati buruzko itaunketa egiten ari gara eta galdera batzuk egin beharrean gaude. Ezagutzen al zenuen hildakoa?
- Ikaslea** *(Martxelo ziztu bizian apunteak hartzen ari da)* Bai, azkenaldi honetan itxura txarreko zebilen, alargundu zenez geroztik ez zuen salda berorik hartzen... eta badakizu zer gertatzen den... gorputza hozten da...
- Detektibea** Ba al zenuen harremanik hildakoarekin?
- Ikaslea** Bai, atzo zinemara joan nintzen eta bere alabarekin egin nuen topo. Hura bai ederra! Eta berandu etorri nintzenez... ohera sartu nintzen zuzenean. Baina Karlos I 1519an Alemaniako inperioko errege izendatu zutenean, Gaztelako herria bere aurka altxatu zen eta honegatik ez dakit frantsesez...
- Detektibea** Eta zer zerikusi du honek hildakoarekin?
- Ikaslea** Ba..., bera alemana bazen ere, frantseseko klase partikularrak ematen zizkidan.
- Martxelo** Beno, beno... honek ez daki ezertxo ere.
- Detektibea** Bai, goazemak hemendik.
- Ikaslea** Orain ez zarete ba joango? Kafetxo bat hartuko duzue, ez da? Beno, gatzik ez daukat, baina ozpin pixka bat botako diogu.

Martxelo Honek ez ditu behar diren gauzak bere tokian.
(*Detektibeak igogailurantz doaz eta ikasleak agurtu egiten ditu mukizapiaz*)

Ikaslea Agur, agur, agur, agur, aguuurrr!!!

2. SOLAIRUA

(60. hamarkada. Eszenatokiaren alde bakoitzetik bina neska azaltzen dira, guateke bat ospatzeko asmoz. Hippy antzera jantzita daude. Algaraka eta jai giroan, kopatxo batzuk edaten ari dira. «Shake a'tail feather» musika entzuten da eta dantzan hasten dira. Detektibeak igogailutik irten eta, atera hurbiltzean, musika entzuten dute. Tinbrea jotzen dute)

1. neska Hello, darling!

Martxelo I'm very well, but your father is a policeman.

Neskak (*Guztiak batera buelta emanaz eta oihuka*) Elvis, Elvis, Elvis!

Martxelo Bai, egia esan, nire amak ere esaten zidan...

2. neska Nahi al zenuke gurekin «dancing» bat egin? (*Keinu eginez*)

Detektibea (*Haserre*) Ez, ezta pentsatu ere! Lanera etorri gara gu hona. (*Martxelo baita Elvistzat jo dutena eta ez bera*)

Martxelo Bai, arrazoi du... geroago behar bada...

Neskak Oh, please! (*Erregutuz*)

Detektibea Ez plis eta ez plas... (*Gero eta haserreago*) Has gaitzen galdeketarekin. (*Martxelo bitartean orrazten ari da eta detektibeari inork ere ez dio kasurik egiten. Ritxard Kolonbus urruntzen hasi orduko, neskek Martxelo ez dute pakean uzten. Detektibea haserre bizian dago. Martxelori besotik*)

heldu eta, apartatzeko, marra bat egiten du beraien eta nesken artean) Metro batera!

(Neskek atzera egiten dute). Beno, gu P.Q.R.S.T.ko poli-ziak gara eta hildakoari buruz informazioa jaso nahian gabiltza, baina... (Aztoraturik)... ez al didazue kasurik egin behar! (Eszenatokiaren alde batetik bestera doa neskengandik urrunduz) Mekaguen la puuu.....erta!!! Martxelo, ea hiri kasurik egiten diaten!

- Martxelo** *(Eztulka) Zer harreman zenuten hildakoarekin?*
- Neskak** *(Guztiak batera hitz egiten hasten dira).*
- Martxe** Banan-banan, girls!
- 1. neska** Ez dun bat ere enroilatzen!
- Detektibea** Zigarro bat ez duzue edukiko ba? *(Neskek ez diote kasurik egiten)* Martxelo! Eskaiak zigarro bat!
- Martxelo** Cigarette bat, please!
- Neskak** *(Denek zigarroa ateratzen dute)* Mine, mine, mine!!!
- Martxelo** Bat besterik ez, girls! *(Zigarroa hartu eta detektibeari ematen dio)*
- Detektibea** Surik? *(Kasurik ez. Desesperaturik, zigarroa bota, lurrean eseri eta lo gelditzen da. Martxelok galdeketarekin jarraitzen du)*
- Martxelo** Noiz ikusi zenuten azkenengo aldiz?
- 3. neska** Lehengo astean festa bat eman genuen eta gonbidatu egin genuen. Nik galtza marroi «pretty-pretty» batzuk jantzi nituen, baina galdu egin zaizkit.
- Martxelo** What a pity!
- 4. neska** Baina beste batzuk erosi ditu, lasai.

Martxelo Beno, baina «cut, cut». (*Eskuekin keinu hori eginez*)

2. neska Ba, gonbidatu genuen, baina ez zen agertu. Oraindik ez dut ikusi. (*Detektibea dagoeneko lo dago, ametsetan. Eszena hau dagoen-dagoenean mantentzen da eta ametsak eszenatoki guztia hartzen du. Ritxard Kolonbus James Bond dela amets egiten ari da*)

AMETSA

(Aingeru bat ateratzen da «AMETSA» dioen kartel batekin. 007 agentearen musika entzuten da. Eszena guztia kamara geldoan da. Bi neska dotore azaltzen dira, bitxiz josita. Halako batean, lapur bat, zakua bizkarrean. Neskez ohar-tzen da eta berauek atrakatzea erabakitzen du. Gainean dituzten diru eta bitxi guztiak kentzen dizkie eta beste alde-rantz doa. Halako batean, James Bond pertsonaia ospetsua azaltzen da. Neskek detektibeari gertatu zaiena kontatu eta Bondek nesken ohorea salbatzea erabakitzen du. Lapurra-rengana hurbildu eta borrokan hasten dira. Borroka guztia kamara geldoan. Azkenean, Bond irteten da garaile, noski. Lapurrari eskuburdinak jarri eta eszenatokitik botatzen du. Garailearen keinua egin, neskak hurbildu eta hirurak irte-ten dira. Aingeruak, lurrean gelditu diren arma guztiak jaso eta alde egiten du. Ametsa bukatuta, Ritxard Kolonbus de-tek-tibea, pixkanaka-pixkanaka esnatzen ari da, eta «geldi-rik» zeuden Martxelo eta neskak berriro «bizirik» daude)

Martxelo Hiltzailearen susmorik ba al duzue?

Detektibea Oraindik galdeketarekin? Ondoriorik atera al duzue?

Martxelo Hauek ez dute ideiarik ere.

Detektibea Goazen ba hemendik. (*Detektibeak igogailurantz abiatzen dira. Neskak, Martxelo-Elvis agurtzen dute*)

Neskak Bye, bye, darling, sweet-heart...!!!

3. SOLAIRUA

(Putetxe bat da. Bertan bi emagalduta azaltzen dira, asper-asper eginak, denbora nola pasa ez dakitela. Detektibeak igogailutik irten eta putetxeko tinbrea jotzen dute. Emagalduta, bezeroak direlakoan, apaintzen hasten dira. 1. emagalduta atera hurbiltzen da mugimendu erotikoaz eginez)

1. emagalduta Egunkariko iragarkiagatik etorriko zineten, ez da? *(Eran-tzunaren zain gelditu gabe, Martxeleri korbatatik tira eginez, barrura sartzen du)*

Becky, jar ezan musika piska bat!

(Becky musika tresnarantz hurbiltzen da eta pizten du. Joe Cocker-en «You can leave your hat on» entzuten da. Becky eta detektibea iskina batean eseri eta denbora guztian jolasean daude. Ritxard Kolonbus horrelako «operazioetan» ohi-tuta dago eta gustora dabil, txanpaina edan eta edan, Becky musukatu eta laztantzen. Martxelo, bien bitartean, lotsa-lotsa eginda dago. Bera ez da horrelako trantze batean sekula egon eta ez daki nola jokatu. 1. emagalduta, musikarekin batera, Martxeloren aurrean, strip-tease egiten hasten da, Martxelo ere jokuan sartzen duelarik)

Martxelo Igogailua igotzen ari zait!

Detektibea Nirea dagoeneko ganbaran zegok, motel!

Becky Zein igogailu, laztana?

Detektibea Eta zu profesionala zara? Zein igogailu izango da, ba?

Becky Lasai, gizona, nik... zeuk erakustea besterik ez nuen nahi...

Detektibea Goazen ba, logelara, segituan erakutsiko dizut!
(Biak gelara joaten dira, eta Martxelo beldur-beldurturik dago bakarrik gelditu behar duela eta)

Martxelo Nagusi, ez utzi ni hemen bakar-bakarrik!

- 1. emagaldua** Lasai, maitea, geu ere joango gara eta!
- Martxelo** Bai, baina... ejem... nik, nire orduak eta...
- Detektibea** Etor hadi azkar! Jodeee!!! Honetan ere lagundu egin behar zaio!!!
(1. emagalduek Martxelori galtzak kentzen dizkio eta soinean duen «boa» Martxeloren lepo inguruan jarri eta gelara eramaten du. Musika ozenago entzuten da eta atzeko aldean intziriak, hasperenak... Denbora piska bat igaro ondoren, bi emagalduek eszenatokian azaltzen dira. Kontentu daude. Atezko aldeko soinuek jarraitu egiten dute. Detektibeen poltsikoetan miatzen hasten dira; karterak hartu eta dirua lapurtzen diete)
- 1. emagaldua** Garbitu zizkienagu patrika zuloak!
- Becky** Merezi izan din behintzat! Honekin «Rio de Janeiro»ra ere erretira gintezken!...
- 1. emagaldua** Aizan eta... argia piztuko bagenie?
(Geletara hurbildu eta Beckyk logelako argia pizten du. Bi emagalduek traste guztiak hartu eta korrika batean alde egiten dute)
- Detektibea** Martxelo! Zer egiten duk hik nire gainean? Mesedez, altxa azkar!
- Martxelo** Nik... jauna... barkatu... uste nuen... aizu, eta esku honek zer egiten du hemen?
- Detektibea** Beno, beno... utz ditzagun txorakeriak. Aldegin dezagun hemendik! *(Kortina atzetik irteten dira)* Aizak! Nire kartera?
- Martxelo** ... Eta nirea! Nire kartera?
- Detektibea** Emagalduek alen horiek izan dituk. Zer esango zidak emazteak?
- Martxelo** Nire kartera, nire dirua!!! *(Erdi negarrez)*

Detektibea Aizak, lasai e! Behintzat merezi izan dik eta!

Martxelo Merezi, merezi... merezi (*Negar zotinka*)... Beno... bai!
(*Guzti hau janzten ari diren bitartean esaten dute eta pre-
saka, handik alde egin eta igogailuan sartzen dira*)

4. SOLAIRUA

(*Detektibeak igogailu barruan gorantz doaz, eta bat-batean gelditu egin dela konturatzen dira. Bitartean, eszenatokian, gauza guztiak prest daude umeen urtebetetze festa bat ospatzeko. Lau ume dira, bi neska eta bi mutiko, lau-bost bat urtekoak, zein baino zein bihurriagoak. Ama ere hortxe dabil, alde batetik bestera, lan eta lan*)

Martxelo Nagusi, trabatuta geratu da!

Detektibea Zer?

Martxelo Ba hori, trabatuta geratu dela!
(*Umeak mahai inguruan erdi eseririk daude. Abesten ari dira batzuk; besteak, kamioi batekin jolasean. Ama sartzen da*)

Ama Zer moduz zaudete?

Fermintxo Ama, ama, Josetxok, e..., e..., e... jo egin dit!

Fermintxo Gezurtero, bera hasi da!

Ama Beno, utz itzazue txorakeriak. Gaur Josetxoren urtebetetzea da eta ez zarete haserretuko, ez da? Benga, eser zaitzete mahaiaren behar den bezala, oraintxe ekarriko diuzet eta txokolatito goxo-goxoa.
(*Ama sukaldera joaten da eta umeak, amak esaten duenaren alderantzizkoa egiten hasten dira. Ama txokolatearekin sartzen da eta umeak lurrian daude elkarrekin borrokan bata bestearen gainean; algarak, barreak eta negarrak nahasten dira*)

- Ama** Baina zertan ari zarete? Josetxo, Pantxika, Fermintxo, Gregoria!!! Eser zaitezte oraintxe bertan bakoitza bere lekuan, afaldu gabe gelditu nahi ez baduzue! Qué petardos! *(Txokolatea mahai gainean jartzen du eta tartaren bila joaten da sukaldera. Umeak txokolatea jaten hasten dira, baina behatza katiluan sartu eta indio marrak egiten hasten da Fermintxo)*
- Josetxo** Ala! Nik ere nahi dut! Goazen indioetara jolas egitera. Ni naiz indioa eta zu zaldia, bale?
(Fermintxo ez dago ados eta berriro ere biak lurrera. Ama tarta handi bat eskuetan duela agertzen da, «Zorionak zuri...» abestuz. Tarta utzi eta sukalderrantz doa. Umeak, gero eta haserreago, buila handiagoak ateraz, elkarri tarta zatiak botatzen hasten dira. Ama itzultzean, dena hankaz gora topatzen du. Bere desesperazioa ere gorantz doa. Ama guzti hori garbitzeko tresnen bila sukaldera joaten da. Umeak, oraindik erdi haserre, erdi jolasean, botaka hasten dira)
- Detektibea** Eta orain zer egingo diagu?
- Martxelo** Zu zara nagusia!
- Detektibea** Sokorroooo!!! Deitu poliziarri!
- Martxelo** Baina, baina... tontoa al zara? Sakatu alarmari!
(Alarmari eman orduko, txokolatadako ume guztiak amari deika hasten dira)
- Umeak** Ama, ama, ama, ammmmaaaaaaaa!!!
- Ama** Zer gertatzen da oraingoan?
- Fermintxo** Igogailuko tinbrea jo dute, norbait egongo da barruan!
(Ama igogailura gerturatzen da eta zailtasunik gabe atea irekitzen du)
- Ama** Zer? Jendeari adarra jotzen, ala?
- Detektibea** Aizu! Trabatu egin da!

- Ama** Bai, horregatik ireki dut nik hain erraz atea!
(*Detektibeak pisura sartzen hasten dira, amaren atzetik*)
- Martxelo** Aiba, festa bat!
- Detektibea** Barkatu festa hondatzeagatik, baina poliziak gara eta geure lana betetzera gatoz.
- Ama** Zer gertatu da ba? Josetxo, zer egin duzu orainoan?
- Josetxo** Nik ez dut ezer egin! Beti ni!
- Detektibea** Ez, ez... lasai. Hildakoari buruz galdera batzuk egitera besterik ez gara etorri.
- Martxelo** E... txokolate pixka bat sobratu al zaizue?
- Ama** Zer? Hasi al da galdeketa?
- Detektibea** Ez, orain goaz hastera. Zer harreman zenuten hildakoa-
rekin?
- Martxelo** Baina nik txokolatea nahi dut!
- Detektibea** Utziozu erantzuten! (*Umeak jolasean dabilta, gela guztian zehar korrika*)
- Josetxo** Ama, ama, pixaaaaa!!!
- Ama** Zaudete, pixa eginarazi beharko diot eta. Berehala nator.
(*Umeari*) Goazen azkar.
- Fermintxo** Meontzi, meontzi...!
(*Martxelo txokolatea jatera esertzen da. Ritxard Kolonbus zutik, zain dago. Umeak detektibearen inguruan indioarena egiten hasten dira, oihuak botaz, eskuetan arkuak eta geziak dituztela. Ondoren soka bat hartu eta detektibea goitik behera lotzen dute*)
- Detektibea** Ume mukizu hori! Geldirik egon hadi!
- Umeak** Uuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuu!!!

- Detektibea** Gelditzeko esan diat, lerdo hori! Martxelo, egin ezak zerbait!
- Martxelo** (*Txokolatea jaten ari da eta soinuak egiten ditu*) Ezin dut, lanpetuta nago!
(*Detektibea eta umeak garrasika jarraitzen dute. Ama eta Josetxo sartzen dira. Martxelo altxatu egiten da eta ezpainak garbitzen ditu. Umeak bere txokolatea desagertu dela ikusten du. Fermintxori joka hasten da*)
- Josetxo** Nire txokolatea! Non dago nire txokolatea? Nork jan du? Zeu izan zara! (*Fermintxori*)
- Fermintxo** Ni ez naiz izan!
- Josetxo** Gezurtero, zeu izan zara! (*Joka hasten dira. Martxelok bitartean disimulatu egiten du; amak detektibea askatzen du*)
- Ama** Barkatu e, barkatu, ume hauekin ez dago gauza onik! (*Amak bi umeak banatzen ditu*) Beno, geldituko al zarete?
- Josetxo** Baina ama, txokolatea jan dit!
- Fermintxo** Gezurra!
- Ama** Beno, berdin dio, hartu ponpa bana eta utz gaitzazue pakean hitz egiten. (*Umeak ponpekin jolasean hasten dira*)
- Ama** Barkatu nire semearen harrera. Zer behar zenuten?
- Detektibea** Ni Ritxark Kolonbus detektibea naiz...
- Martxelo** Eta ni Martxelo! (*Umeak bitartean Martxelorekin borrokan hasten dira, honek ponpak hautsi dizkielako*)
- Ama** Beno, zaudete geldi! (*Zaplaztakoak banatzen hasten da eta Martxelo ere jotzen du*) Ai, ai, ai... Barkatu, ez nauzu hilko, ez da? (*Beldurrez*) Nahi gabe izan da.

- Martxelo** Kontuz gero!
(*Amak detektibearekin hizketan jarraitzen du*)
- Detektibea** Hilketak bat egon da eta, axola ez bazaizu, galdera batzuk egin behar dizkizugu (*Umeak eta Martxelo amari gonak altxatzen hasten dira*)
- Ama** Utzi pakean! Hasi ba!
- Detektibea** Jakingo duzunez, etxe honetan hilketak bat egon da, eta hildakoarekin zer harreman zenuen jakitea gustatuko litzaike. (*Umeek ez dute ama pakean uzten*)
- Ama** Beno ba... (*Buelta eman eta garraxika*)
Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!! Pakean uzteko esan dizuet!!! (*Zaplaztakoa ematen dio Josetxori. Umeak, bata bestearen ondoren, negarrez hasten dira*)
- Detektibea** Beno, Martxelo, goazen hemendik! Hemen ezin da lanik egin eta!
- Ama** Hori, hori, joan zaitezte! Begira nola utzi dizkidazuen umeak! Ez duzue errukirik! (*Detektibeak joan egiten dira*)

5. SOLAIRUA

(*Hilkutxa baten inguruan, hiru atso zahar hildakoari erreztatzen ari dira. Detektibeek tinbrea jotzen dute. Nekez, atso bat altxa eta atea irekitzen du*)

- 1. atsoa** Pasa, pasa... Eskerrak gazteak ere etorri direla gaixo hau agurtzera. (*Barrura sartzen dira; denak hildakoaren inguruan eserita daude. Atso guztiek erreztatzen jarraitzen dute eta Ritxard Kolonbus eta Martxelo, bitartean, zer egin ez dakitela*)
- Martxelo** Nagusi, ez gara hemen meza guztia entzuten geratuko, ez da?

- Detektibea** Eta orain nola demontre hasiko gaituk ba galdeketarekin! Pixka bat itxaron beharko diagu!
(Denak hildakoari begira daude. Atsoek erreztatzen jarraitzen dute, begiak itxita. Halako batean, hildakoak besoa luzatu eta ondoan dagoen mahaitik zerbait hartzen du. Martxelok ikusi egiten du)
- Martxelo** Nagusi, nagusi! Hildakoa mugitu egin da!!! *(Oso urduri)*
- Detektibea** Mesedez, Martxelo! *(Erreztatzen jarraitzen dute eta berriro hildakoak besoa luzatu eta botila ardoa hartzen du. Martxelok berriro ikusten du)*
- Martxelo** Nagusi, nagusi! Hildakoa berriro mugitu dela! *(Urduriago)* Oraingo honetan botila ardoa hartu du!
- Detektibea** Mesedez, Martxelo! Nola hartuko zian ba botila ardoa!
- Martxelo** Benetan, begira, begira *(Martxelo hilkutzara hurbiltzen da, eta eskua luzatuz, botila ardoa hartzen du)* Nagusi, hutsik dago! *(Beldurturik)*
- Detektibea** Martxelo, erori egingo zian! *(Atsoak ez dira ezertaz konturatu eta halako batean erreztatzen bukatzen dute)*
- Martxelo** Nagusi, aprobe txatu une hau galdeketa egiteko. Oso beldurturik nago eta lehenbailehen alde egin behar dut zeren... *(Eskua ipurdian jarriaz)* Irten egingo zait!!!
- Detektibea** Mesedez, Martxelo! Ez hadi umea izan eta aguanta ezak piska bat! *(Ritxard Kolonbus galdeketa hasi nahian, atso batengana hurbiltzen da)* Entzungo didazue une batez, mesedez?
- 1. atsoa** O! Diskurtso bat botako digu bere omenez. *(Hildakoari begiratzuz)*
- Detektibea** Ez, ez, barkatu baina, guk ez dugu hildakoa ezagutzen, gu hona, ba... zerera etorri gara...
- 2. atsoa** Lapurretara! Ez al dizue lotsarik ematen horrelako egun batean etortzea? *(Oso haserre)*

- Martxelo** Aizu, gu ez gara lapurrak!
- 2. atsoa** O, bortxatzaileak orduan! Zer ikusi behar ote dugu mundu honetan, Jauna!
- Detektibea** Entzun, mesedez, gu poliziak gara. P.Q.R.S.T.ko poliziak.
- 1. atsoa** Guk ez dugu ezer lapurtu!
- Detektibea** Ez, begira, atzo hilketa bat egon zen etxe honetan eta horri buruz galderatxo batzuk egin nahian gabilta.
- 2. atsoa** Hilketa bat! Ez genekien ezer. Atzo nahikoa izan genuen gure Frantxiskarekin. (*Negarrez hasten da, besoak aldame-neko atsoaren sorbaldan jarriz*)
- Detektibea** Beno, orduan, axola ez bazaizue... galdeketarekin hasiko gara...
- Martxelo** Nagusi!... Irten egingo zait (*Eskua ipurdian duela. Orduan bertan puzker hots sendo bat entzuten da. Bat-batean, hildakoa zutitu eta nazka aurpegiz jendeari so gelditzen da*)
- Atsoak** Miraria, miraria, miraria!!! (*Hildakoa luze-luze erortzen da berriro hilkutxara*)
- Atsoak** Zuek, zuek hil duzue, berpiztu egin da eta zuek hil duzue!!! (*Poltsak hartu eta detektibeenganantz doaz, haserre, izugarrizko jipoia emateko asmoz. Poltsekin zizti-zazta ematen hasten zaie. Detektibeek korrika batean alde egiten dute*)
- Detektibea** (*Ertz batean*) Oraingoan ere egin duk hirea, e?
- Martxelo** Bai, barkatu! Baina dena den, atso horiek ez zekiten deus ere!
- Detektibea** Bai, arrazoia duk. Eta orain zer egingo diagu? Pisu guztiak miatu ditiagu. Zerbait egin beharko diagu, ze horrela ezin joan gintezkek jefearengana!

- Martxelo** Nagusi, nik behintzat badakit zer egin!
- Detektibea** Zer?
- Martxelo** Komuna aurkitu lehenbailehen!!!
- Detektibea** Beno, goazemak atezaintzara eta han pentsatuko diagu zer egin. Ondo estututa eraman ezak e, ze... irteten ba-
zaik, giro izango duk hemen!!!

ATEZAINTZA

- Detektibea** Kaixo! (*Atezainari*)
- Atezaina** Zer, aurkitu al duzue behar zenutena?
- Detektibea** Ez, oraindik ez, baina nik dakidan batek ez badu laister behar duena aurkitzen... itoko gara guztiok hemen! (*Martxelok eskua ipurdian duela, ezin jasanezko aurpegiaz begiratzen dio atezainari eta azken hau ohartzean...*)
- Atezaina** Hor ezkerrean, gizona. A, aizu, bonbari tira egin e? (*Ba-
doa Martxelo komunarentz eta atezainak lurra garbitzeari ekiten dio berriro ere*)
- Detektibea** Aizu eta... ez al zaizkizu gerriak izorratzen?
- Atezaina** Ke ba! Ekaitza hasi arte ez! Eguraldi txarra eta trumoiak etortzean, orduan izorratzen zaizkit! (*Orduan bertan beste izugarritzko puzker hotsa entzuten da*)
- Detektibea** Zer, zer moduz gerriak orain? Badirudi ekaitza badatorre-
la! (*Gora begiratzean, ateko zenbakia oker dagoela kontu-
ratzen da*) Ai, ai, ai, aaaaiiiii!!! (*Altxa eta atezainaren
erratza erabiliz, zenbakiari buelta ematen dio. Martxelo ko-
munitik irteten da, galtzak lotzen dituen bitartean*)
- Detektibea** Martxelo, hator! Etorri hadi hona! Begira ezak!!!

Martxelo *(Ohartzean)* Aaaaaaacccccchhhhhhhh!!!

**Hirurak
batera** Bederatzi ez da bederatzi!!!!

ENPERADOREAREN JANTZI BARRIA

Hans Christian Andersen
Maribel Mentxakaren itzulpena
8. mailako ikasleek antzeztua
Ipuin antzeztua
Eleizalde ikastola
Bermeo
1986-87

GAIA

Jantzi berriak eta ederrak estreinatzea atsegin zitzaion enperadore bati. Iruzurti batzuek, pertsona argi eta azkarrek soilik ikus zezaketen jantzia egingo ziotela esanez, ziria sartu zioten. Ume batzuen egiazaletasunak begiak irekitzen dizkio enperadoreari eta bere jarrera erabat aldatzen du.

PERTSONAIAK

Aurkezlea	Morroia
3 gizon	Sukaldaria
Tabernaria	Enperatriza
2 kanpotar	Herritarrak
Enperadorea	Umeak
Aholkularia	

1. AGERRALDIA

Aurkezpena

(Agerraldi hau oihalaren aurrean egitea litzateke egokiena; holan atzean hurrengoia legokelako prestaturik. Girotzeko musikea: xirulea edo kitarrea. Aurkezleak ikuslegoari begira urtengo dau, eskutan daroan kartela erakutsiaz. Kartel honetan zera dakar: BAZAN BEHIN...)

Aurkezlea

Bazan behin enperadore bat. Enperadore harro baino harroago bat. Hain zan harroa, egunean-egunean jantzi barri bat jazten eban. Herri haretan jostunak beti eukien zeregina, josi ta josi, josi ta josi. Jantziak egin eta egin. Enperadore eta aitonen semeentzat, eurak ziran ordaindu eikean bakarrak eta. Une guzti eta lipar orotarako jantziak, jantzi berezi, bakan, garestiak. Baina hori bai, bere izerdiaz ogia irabazi behar ebenak, adabakiz beteri-

ko jantzi zarpailak jazten ebezan. (*Hau esatean, eperdian dauzan adabakiak erakusten dauz. Turutotsa entzuten da. Behearen gainetik kartela altxatu eta zera irakurtzen da: ENPERADOREAREN JANTZI BARRIA. Gero kartela itzi eta dino*)Baina adi, hastera doa eta!
(*Oihal atzetik antzezlari guztiak...*)

Danak Tararaaaa...

Aurkezlea Enperadorearen jantzi barria!!!

2. AGERRALDIA

Tabernan

(*Herriko tabernan dagoz. Hiru-lau mahai, jendea aulkietan jesarrita dagoala. Tabernan dagozanak abestia jarraitzen dabe ukabil eta edalontziz. Zaratea. Barrea. Tabernaria batetik bestera dabil, ardaua atarez*)

1. gizona Arin tabernari, samea siku dogu ta!

Tabernaria Banoa, banoa! Ez da amaituko eta!

2. gizona Berori baino ez genduke behar, ardaua bukatutea.

3. gizona Dirua ez jakunez heltzen kanpotik bero egoteko, berotu gaitezan barrutik behintzat.

Tabernaria Eutsi, eutsi, badakart pitxar bat!
(*Kanpotar bi sartu eta jesarleku bila dabilz*)

1. gizona Ez zaiteze zutunik geratu, kanpotarrok! Jesarri. Ardaua hobeto sartuko jatzue jesarrita. Eup andrea! Edalontzi pare bat atzerritarrontzat.

2. gizona Aupa! Gure enperadoreagaitik eta gaur estrenatuko dauan jantziagaitik egin daigun topa! (*Kanpotarrei isilean*)
Ikusi izan bazendue zelako jantzia eroan!

- 1. gizona** Seguritik zuek ez dozuela holango jantzi apainak daroazan enperadorerik.
- 2. gizona** Ez eta egunero jantzi barri bat jazten dauanik!
- 1. kanpot.** Ez, benetan! Gure herrian, hasteko eta oraingoz behintzat, ez dogu enperadorerik. Genduana hil egin zan...
(*Barreak*)
- 2. kanpot.** Oso aberatsa izan behar dau zuen enperadoreak urteko egun bakoitzean jantzi barri bat egin ahal badau.
- 1. gizona** Bai, horixe! Galdetu jostunei eta etxe honetako ugazamari. Aberastu egin dira enperadorearentzat josten eta edaten dogun ardaua uraz bustitzen.
- Tabernaria** Atzamarrak ziztatzen dirua irabaztea ez jako inori gustatzen eta ez zaitez uraz kexatu. Arda hutsaz ez zintzatekez bat be ondo egongo eta sudurra gorri-gorri eginda eukiko zenduke.
- 2. kanpot.** Ea, andrea, eta enperadorea ordaintzaile ona da?
- Tabernaria** Horixe baietz! Ez dot inoiz entzun inor bere lana ordaindu barik itzi dauanik. Eta ereduak gustatu ezker, aurretiaz ordaintzen be badaki.
- 1. kanpot.** Hori entzuteak pozten nau. Bihar goizean joango gara zuen enperadorea agurtzera eta gure zerbitzuak eskeintzera.
- Tabernaria** Jostunak zarie?
- Kanpotarrak** Zera gara...
- 1. kanpot.** Nire laguna ehungilea da eta orratzaren erabileran aditua.
- Danak** O!

1. kanpot. Tabernari, neuk be zuen enperadorearen osasunerako topa egin gura dot. Ardaua danontzat, neure sakeletik ordaintzen dot eta.

(Abestuten hasten dira)

Ardaua edanda mozkortzen naz
pipia erreta zoratzen naz
kortejatzian lotsatzen naz
zelan demontre biziko naz

(Abestia errepikatzen daben artean oihala itxiten da)

3. AGERRALDIA

Enperadorearen jauregian

(Enperadorea bere gelan dago paperak ikustatzen. Bere alboan aholkularia eta morroia. Kanpotarrak aurrean. Azken papera izenpetu ostean, idazlumea izten dau)

Enperadorea Tira, tira... Esaidazue barriro. Ez dakit ondo ulertu dodan eta. Beraz, zuek egin daikezuen oihal bereziaz jakin daikeket nork engainatzen nauan, eroakeran ez daualako ikusten?

2. kanpot. Zure zerbitzari leialak baino ez dira haren edertasunaz konturatuko.

Enperadorea Leialak besterik ez...

1. kanpot. Eta ez da hori egin daikegun bakarra...

2. kanpot. Gainera, jakingo dozu nor dan artaburua, nor ez dan bere kargurako egoki, nortzuk aberastuten diran zure lepotik...

(Pausaldia. Enperadorea kaiku aurpegiko morroiari begira geratzen da eta gero aholkulari tripaundiari)

Enperadorea Zuen oihalak liluragarriak izan behar dabe. Pozten naz pentsatzean nire jantzi barria iminikeran nortzuk diran nire lepotik aberastuten diranak *(Aholkulariari begira)*, nortzuk moldabakoak *(Morroiari begira)* jakingo dodala. Adizue, jakingurean nago orain arte nortzuk ibili diran

nire ezkutuan. (*Boltsa bete diru emoten deutse*) Eutsi boltsa hau mailegu gisa eta eskatzen dozuen guztia neure aholkulariak eskuratuko deusue.

1. kanpot. Ahalik eta arinen egingo dogu, baina ez uste erreza danik egitea. Edozelan be, jakinaren ganean egongo zara eta ahal dala gaur bertan hasiko gara irunean.

Enperadorea Zoaze, ba, joango jatzuez nire aholkularia eta nire morroia zuen lana zelan doan ikustera.
(*Kanpotarrak urteten dabe eta oihala zarratuten da*)

4. AGERRALDIA **Jauregiko sotoetan**

(*Ehundegia. Bertan lilaia. Kanpotarrak nagikerian behearen ganean etzunda, txistuka*)

1. kanpot. Zelako iturria, e?

2. kanpot. Erarik inuxenteenean sartu dogu partikaran.

1. kanpot. Bere jantziak estreinatzeke maniaz.

2. kanpot. Baina kontuz morroiagaz, ez daiten gertatu artaburu itxura izatea eta gero...

1. kanpot. Eta batez be aholkulariagaz!

2. kanpot. Xxxx! Nor edo nor dator.
(*Atea joten dabe. Altza eta lanean balegoz lez jartzen dira. Morroia sartzen da, erretilu baten afaria dakartsela. Itsu-mustuan dator eta ez da kanpotarrak eratutako trikimailuaz konturatzen. Behin erretilua bazterrean itzita, ikusten dau ez dagoala ez hari, ez ehodura, ez irazkirik*)

Morroia Jaunok, mahaian prest dozue, enperadoreak agindu bezala, afaria.

- 1. kanpot.** Ederto! Baina orain lan asko dogu eta ezin dogu alde batera itzi.
- 2. kanpot.** Eta begira nondik zoazan, gizona! (*Sakakada bat emoten deutso*) Ez dozu ikusten ehuna zapaltzen zagozana? Begira zelan lohitu dozun! (*Ehuna garbitzen dagoanarena egiten dau*)
- 1. kanpot.** Ikutu oihal hau! Ez deritzozu fina? Zelako ikutua daukan eta pisurik be ez dauka!
- Morroia** Nik ez dot ezer ikusten. Ene!
- 2. kanpot.** A! Ez badozu ezer ikusten, horrek esan nahi dau artaburua zarala edo enperadoreari lapurretan egiten deusazula. (*Bere lagunari begiratu eta begi keinua egiten deutso*) Eta kontuz, gizona! Barriro be zapalduten zagoz eta!
- Morroia** (*Tonto itxurea ez izatearren*) Ah, bai. Uste dot ikusten dodala (*Besoak luzatu eta iruzurtiak egindako keinu berberak egiten dauz*) Polita, bai, benetan! Sartzean, badakizue, argiaz itsuturik geratu naz, baina orain zelan ez dot ikusiko, ba! Ze arina dan!
- 1. kanpot.** Ba, orduan, eta oihala benetan zoragarria dala ikusi dozunez, zoaz zure enperadorearengana eta esaiozu beste boltsa bat bete diru behar dogula haria amaitu jakulako. Eta ikusi daikezunez, asko behar dogu. Ala! Zoaz lehenbailehen esatera, bestela ezin dogu egin.
- Morroia** Banoa, banoa.
(*Morroiak urten ahala, barrezka hasi eta etzun egiten dira*)

5. AGERRALDIA

Sukaldean

(*Sukaldaria lapiko eta burduntzali handi bategaz. Batetik aholkularia zahato bategaz. Bestetik morroia, oraintsu ikusitakoaz arduraturik*)

- Morroia** Sukaldari, sukaldari! Gose naz! A, behi bat jango neuke, adar eta guzti!
- Sukaldaria** Badoa, gizona, badoa. Beti aldarrika eta prisaka. Baina enperadoreak jakin daitenean bere jakitegira zatozela, ez dot pentsatu be egin gura.
- Morroia** Brr! Zelan protestatzen daben tripak! (*Eszenategiko beste muturreraino doa, ia-ia estrapozu eginez han dagoan aholkulariagaz*)
- Aholkularia** Nondik zatoz izterrak dardarka?
- Morroia** Hemendik, sotoetatik esan gura dot.
- Aholkularia** Kanpotarrak zelan egiten daben lan ikustetik? Lana aurreratuta eukiko dabe, ez? Ikusi dozu oihalak politikak diran?
- Sukaldaria** Honi galdetzen deutzazu? Ziur ez dauana ikusi.
- Morroia** Ez dodala ezer ikusi? Ez dot ikusiko ba! Ze politikak! Zoragarriak! Ezin arinagoak! Honegaz, besteagaz... (*Oihala esku artean baleuka lez egiten dau*)
- Aholkularia** Beraz, amaitzear dagoz?
- Morroia** Badaukie zati on bat, baina beste boltsa bat bete diru eskatzeko esan deuste.
- Sukaldaria** Hara! Ba niri artaburuak ez dabela ezer ikusten esan deuste.
- Morroia** (*Aholkularia beste edalontzi bat ardau hartzen dagoan bitartean*) Bai horixe! Ikusiko dozue leloren bat doanean! Ziur oihala zapaldu eta ez dala konturatu be egingo.
- Aholkularia** Beste boltsa bat... Tira, ikusiko dogu. Enperadoreak agindu deust bihar ni neu joan naitela. Asko poztuko nau nik neuk jakinarazotea zelan doan beharra.

- Sukaldaria** Baina ez joan burua nahasturik, ez dozu ezer ikusiko eta. Ez litzateke ondo egongo enperadoreak ezgauzatzat hartu zaizan.
- Aholkularia** Itzi eidazu beste apurtxo bat betetzen, holan penak joaten dira eta.
- Sukaldaria** Penak bai! Enperadoreak baleki bere zahatoetatik edaten dozula, ederrak hartuko zendukiez biok biotara. Eta zuk (*Oraintxe bertan jaten emon deutson morroiari*) ez horrenbeste jan, lehertuko zara eta. Ai, ene! Lo? Eta hau ere... (*Aholkulariari*) Ala, etxera, lo egitera!
- Morroia** Brr!
- Aholkularia** Beste boltsa bat, beste boltsa bat... (*Bakoitzak eszenatokiko manda banatatik urteten dau. Gero sukaldariak*)

6. AGERRALDIA

Barrero sotoetan

(Kanpotar biak etzunik. Oinotsak asmakeran altza eta bat ehundegi aurrean jartzen da eta besteak josteko itxura egiten dau)

- Aholkularia** (*Gutziz ziur sartzen da, baina han ez dagoala ezer ikustean, izterrak dardaraka hasi eta bere buruarekiko*) Mila arraiota trumoi! Nire begiak ez dabe ezer ikusten! Non dago enperadorearen jantzi barria? Oraindino ardauagaitik izango dodaz begiak lausoturik?

1. kanpot. Uste dot begiak lausotu jatzuzala.

- Aholkularia** (*Berarentzat*) Burutik laburra ez naz, baina ai koitaua enperadoreak baleki bere zahatoetatik edaten dodala! (*Kanpotarrei zuzenduz*) Itzi eidazue apur bat gehiago hurreratu naiten. Badakizue, nire adinean ikusmena ez da lar ona eta begiak lainoturik daukadaz.

- 1. kanpot.** Ikusten dot ez dozula inoiz ezer antzekorik ikustatu.
- Aholkularia** (*Komediari jarraituz*) Inoiz ere ez! Ederra! A zer itxura! Enperadoreari kontatzea gustatuko litzakit.
- 1. kanpot.** Eh..., gauza danetaz berba eginaz... Zer dakizu eskaturiko diruaz?
- Aholkularia** Eutsi, eutsi! Eta esaidazue nahiko dan ala gehiago behar dozuen.
- 1. kanpot.** (*Zenbatzen hasten da*) Bederatzi... hamar... hamaika... (*Besteak eskuak igurzten dauz*) hoge, hogeita hamar...
- Aholkularia** Ez da bat be falta.
- 2. kanpot.** (*Aholkulariarengana hurreratu eta partikaratik bost txanpon gehiago ataritzen deutsoz*) Hogeita hamaika, hogeita hamabi, hogeita hamahiru, hogeita hamalau, hogeita hamabost.
- 1. kanpot.** Orain bai dagozala danak. Joan zaitekez eta honelango beste bat eskatu. Eta ez dakizula gehiagotan gu engainatzea bururatu!
(*Aholkularia ikaraturik doa ikusiaz eta ez ikusiaz. Iruzurtiak barrez*)

7. AGERRALDIA

Enperadorearen jauregian

(*Aulki bi dagoz eta enperadorea eta enperatriza sartzen dira. Enperadorea irakurtzen hasten da*)

Enperadorea «Andereño bat ikhusi nuen igande goizño batez, bista berian agradatu nintzan haren begiez; ez dut uste baduela parerik ez-titasunez: ene bihotza tristerik dago harekin izan beharrez.»
Hau bai hizkuntza ederra!

Morroia Jaun goren, aholkulari jauna.

- Aholkularia** Ez neuke gura zu molestatzea.
- Enperadorea** Ez, ez. Pozten nau zu ikusteak. Zer dakizu nire jantziak?
- Aholkularia** Zoragarria da! Zoragarria!
- Enperadorea** Beharbada ni neu be hurreratuko natxake zelan doazen ikustera. Badakizu? Danak egiten dabe gauza berberaz berba. Eta zelakoa dan jakin gura neuke. Zelan poztuko nintzatekean Jai Handirako jantzi ahal izango baneu.
- Aholkularia** (*Morroiari zuzenduz*) Zoaz arineketan eta esaiezu kanpotarrei dakarriela eredu pare bat. (*Enperadoreari zuzenduz*) Benetan pozik nago lehen barriak emon ahal izateaz. Bildurrik nengoan aholkulari kargurako ez ete nintzan egoki. Baina sartu baizen laster; edertasun ha ikusi...
- Enperadorea** (*Bere emazteari, guztiz hunkiturik*) Entzun dozu, Maria?
- Morroia** (*Kanpotar biekaz*) Hementxe dagoz, gorentasuna. (*Kanpotarrak zamea daroelako itxura eginez, bata eredu biekaz eta bestea gakoagaz, erdijosirik dagoan jantzia bale-roa lez. Enperadorea konturatzen da ez dauala ezer ikusten. Konortea galtzekoa egiten dau*)
- Enperatriza** Ur apur bat! Enperadoreak konortea galdu dau!
- Enperadorea** (*Bere emaztearen belarrira*) Ez esan ezer. Segi, segi komedia. Bestela inuxente bat nazala eta ez dodala enperadoretarako balio esango dabe. (*Morroiak ura dakar*)
- Enperatriza** Gauza miresgarriok ikustean sena galdu dau. Ez dago halango gauzetarako egina.
- Enperadorea** (*Komedia jarraituz*) Benetan hunkiturik geratu naz. Inoiz ez dot holangorik ikusi. Zelako oihala! Liluragarria benetan. Lan ederra egiten zagozena eta horregaitik «Orratz

eta Hariaren Zaldun» izendatzen zaituet eta «Trapu Zaharraren Dominea» emon. Zer egunetan estreinatu daiket jantzia, jaunok?

1. kanpot. Bihar.

Enperadorea Bihar?

2. kanpot. Bihar.

Enperatriza Ai, ene! Zer gertatuko ete da?
(*Oihala itxiten da*)

8. AGERRALDIA

Plaza nagusian

(*Zaratea. Dana prest enperadorearen desfilerako. Musikea, pajeak, aholkularia, morroia; gero, enperadorea kaltzontzilo eta kamiseta hutsean eta pajeetatik txikiena kapearen buztana daroalako eginez. Jendea txaloka*)

Herritarrak A! O! Zelako jantzia! Zelako trajea!

1. gizona Hara! Hori bai jantzi bikaina!

Tabernaria Zelako oihala! Zelako jauskerea!
(*Zarata artean ume bi sartu dira eta barrez lehertu beharrean dagoz*)

1. umea Begira! Enperadorea kaltzontzilo hutsean doa!

2. umea Kaltzontzilo eta kamiseta hutsean kaletik! Ja,ja,ja!

Herritarrak Kanpora, kanpora! Zer dinozue!

Enperadorea Danok ixilik! (*Era batera isiltasun osoa*) Halan da! Kaletik noa kaltzontzilo eta kamiseta hutsean. Ume honeek zintzoak izan dira, zintzo bakarrak, eurei bardin eutsielako bata zein bestea esan. Ez dira zuek lako guzurtiak. Kanpotarrok iruzurtiak ziran baina hala eta guztiz be, ez

nabe guztiz engainatu. Orain badakit nortzuk diran zintzoak eta nortzuk ez. Nik neuk be ikasbide ederra izan dot. Amaitu dira jantzi barriak! Aurrera prozesioa!
(Musikea. Nor edo nork estaltzen dau enperadorea kapusai bategaz)

GAZTARIK ONENAK... ARANTZAZUKOAK

8. mailako ikasleak,
Josu Urrestillaren ardurapean
Komedia
Maria eta Jose ikastetxea
Zumaia
1991-92

GALIA

Arantzazuko fraileek, beraiek egiten duten gazta promozionatzeko, iragarki agentzia batera jotzen dute. Lana emateko baldintza bakarra jartzen dute: aktoreen aukeraketa fraile-etxeko gizon-emakumeen artean egitea. Aukeraketa eta grabaketa egiterakoan, gorabehera handiak izaten dituzte. Musika, abesti eta dantzaz laguntzen da muntaia.

INTERNATIONAL ADMINISTRATIVE

1950
1951
1952
1953
1954
1955
1956
1957
1958
1959
1960

1961
1962
1963
1964
1965
1966
1967
1968
1969
1970
1971
1972
1973
1974
1975
1976
1977
1978
1979
1980
1981
1982
1983
1984
1985
1986
1987
1988
1989
1990
1991
1992
1993
1994
1995
1996
1997
1998
1999
2000
2001
2002
2003
2004
2005
2006
2007
2008
2009
2010
2011
2012
2013
2014
2015
2016
2017
2018
2019
2020
2021
2022
2023
2024
2025

PERTSONAIAK

Idazkaria	Interina
Zuzendaria	Nagusia
Sukaldaria	Morroia
6 fraile	Jostuna
Frai Periko	2 kamera
Frai Pitagorin	2 dekoratzaile
Sor Katalina	Jendea
Sor Beti Bizkor	

1. EKITALDIA

(Ekitaldi hau iragarki ajentzia batean kokatzen da. Teloia irekitzerakoan, idazkari bat agertzen da, eszenatokiaren txoko batean lanean. Neska nahiko liraina eta atsegina da. Bere mahaiaren alboan, ajentziako zuzendariaren lan-mahaia. Idazkaria lanean eta bakarrizketan ari den bitartean, fraile bat sartzen da ajentzian)

Idazkaria

Hau da bizimodua nirea! Egun guztia jo ta ke lanean ibili behar beste batzuk bapo bizitzeko. Sikiera negozioa ongi joango balitz, zerbait kobratuko nuke baina, egun guztia lanean pasatu ondoren eskerrak ematen badizkidate... pozik! Norbaitek lan gehiago ematen ez badigu, berehala bidaliko dut nagusia pikutara eta ¡A vivir!

- 1. frailea** Egunon, andereño! Sar al naiteke?
- Idazkaria** Bai, jauna. Zer nahi zenuen?
- 1. frailea** Arantzazuko fraile-etxetik nator. Begira, anuntzio bat egi-teko asmoa dugu. Ajentzia honen iragarkia irakurri dugu egunkarian eta lan proposamenarekin etortzea bururatu zaigu.
- Idazkaria** Zeren iragarkia pentsatu duzue ba egitea?
- 1. frailea** Gure Arantzazuko gaztarena; bertako ardien esnez egina da. Gazta ona gero! ¡Sin conservantes ni colorantes! Baina, prezio merke xamarra egin beharko zenigukete, ez daukagu presupuesto handirik eta badakizu... (*Frailea hizketan ari den bitartean nagusia eta kamera sartzen dira bulegoan eta, harriturik, begira gelditzen dira*)
- Idazkaria** Egunon, nagusi jauna! Hau Arantzazuko frailea dugu eta beren gaztak promozionatzeko lan proposamen batekin etorri zaigu.
- Nagusia** Egunon, jauna! Nahi duzun horretarako tokirik aproposenera etorri zarela uste dut.
- Kamera** Bai horixe! (*Eta jendeari begira*) Pazientzia ederra badu behintzat!
- Nagusia** Orduan... zuen etxean egiten dituzuen gazta eder horiek promozionatu nahian, ez da? Beno, beno...
- Kamera** Beno, hasi beharko diagu ba lanean, ez? Porque, aquí no pasa nada.
- 1. frailea** Ezer gehiago esan aurretik galdera bat egin nahi dizuet.
- Kamera** Bota lasai, jauna! Galdetu nahi duzuna.

- 1. frailea** Posible izango al litzateke bertako fraile eta mojak agertzea iragarki horretan? Badakizue, ilusio handia egiten digu eta... eta gainera, horrela ez ote zaigu pixka bat merkeago aterako?
- Kamera** ¡Faltaría más, chico!
- Idazkaria** Baina edozein ezin dugu hartu. Horretarako froga batzuk egin beharko ditugu. Eta badakizue, joan lista preparamen.
- Nagusia** Ongi da, gu geu joango gara Arantzazura eta han hitz egingo dugu gehiago horretaz.
- 1. frailea** Horretan gelditzen gara orduan, eta badakizue, Jaunaren etxean ez dago arrotzik eta nahi duzuenean joan zaitezkete, ateak beti baitaude irekiak. Arratsalde ona pasa dezazuela!
- Ajentzikoak** Arratsaldeon!
(*Frailea joaten denean, hirurak pozaren pozez saltoka, abesten eta dantzan hasten dira*)

2. EKITALDIA

(*Dekoratua aldatu egiten da. Arantzazuko fraile-etxeko gela bat. Teloia irekitzean, musika erlijiosoa entzuten da. Hiru fraile sartzen dira. Bakoitza txoko batean jartzen da, irakurtzen*)

- 2. frailea** Jesus, Maria eta Jose! Hau da ilusioa daukadana! Azkenean gure gaztak mundu guztian ezagunak izango dira.
- 3. frailea** Bai, gizona, ni ere gauza bera pentsatzen ari nintzen. Egun guztian gauza bera dabilkit buruan biraka.
- 4. frailea** Isilduko al zarete! Liburua irakurri nahian nabil eta zuekin ezinezkoa da.



- 2. frailea** Jesus, gizona, ez da horrenbesterako.
(*Hirurek irakurtzen jarraitzen dute*)
- 3. frailea** Badakit zer gertatzen zaion horri. (*2. frailearengana hurbilduz*) Iragarkia egiteko ez dute aukeratu eta badakizu... tripako hazkurak izango ditu.
- 4. frailea** Zer esan duzu? Zer uste duzu, gorraizea dudala? Esan diozun guztia entzun dut eta dena gezur galanta da. Jakin ezazu niretzat ez dela ezinbestekoa iragarki horretan ateratzea. ¡Faltaría más!
- 2. frailea** Gaurko honetan ez dago gozoa gizon hau!
(*Hirurek irakurtzen jarraitzen dute*)
- 3. frailea** Guk onena, Urbi aldera pasiaratxo bat eginez solasean jarraitzea izango dugu.
- 2. frailea** Bai, gizona, arrazoi duzu. Horixe izango dugu onena. (*4. fraileari begira*) Gurekin etorri nahi baduzu?
- 4. frailea** Ez, ni hemen geldituko naiz, ea azkenean pake santua izaten dugun liburu hau irakurtzeko. Eta zuek, gogoratu etxe honetan arratsaldean errosarioa errezatzen dela.
- 3. frailea** Zerorrek nahi duzun bezala.
- 2. frailea** Gero arte orduan.
(*4. fraileak begirada bat eginez agurtzen ditu eta berriro irakurtzen jarraitzen du*)
(*Denbora asko baino lehen tinbrea entzuten da. Irakurtzen ari den fraileak entzuten du, baina ez dio kasurik egiten. Berriro entzuten da tinbrea eta atea irekitzera jaiki beharra izaten du*)
- 4. frailea** Kaixo, arratsaldeon! Pasa, pasa!
- Zuzendaria** Arratsaldeon! Iragarki ajentziatik nator.
- 4. frailea** A, bai. Ea azkar bukatzen duzuen, bestela, honek fraile-etxe bat eman beharrean zoroetxe bat emango du.

- Zuzendaria** Ba... besterik esan aurretik, honako hau da iragarkia grabatuko duen gizona.
- 4. frailea** Arratsaldeon. Bueno, otoitz egiteko garaia heldu zait eta ni banoa elizara. Berehala bidaliko dizuet guzti honen arduraduna. (*4. frailea gelatik ateratzen da*)
- Kamera** Bueno, tokia behintzat ederra duk! Orain, ea nolako iragarkia ateratzen zaigun! (*Kamerak hitz egiten bukatu bezain laster, fraileen arduraduna sartzen da*)
- 5. frailea** Arratsaldeon. Lanerako prest?
- Kamera** Bai horixe!
- Zuzendaria** Nahi duzuenean has gaitezke.
- 5. frailea** Hementxe dut partaide posibleen lista eta, nahi baduzue, oraintxe bertan deituko diet bi lehenengo hautagaiei.
- Zuzendaria** Konforme. Zerorrek nahi duzunean.
(*5. frailea eszenatokitik kanpo ateratzen da eta, berehala, Frai Periko eta Sor Katalinarekin sartzen da. Zuzendariak eta kamerak, ikusi bezain laster, biek batera agurtzen dituzte*)
- 5. frailea** Hauek Sor Katalina eta Frai Periko ditugu.
- Zuzendaria** Oso ongi. Lehenengo gizona zkoarekin hasiko gara. Beraz, Sor Katalina, nahi baduzu hortxe eser zaitezke.
(*Sor Katalina esertzen den bitartean, Frai Periko zutik gelditzen da*)
- Zuzendaria** Frai Periko, eman bira bat eta zerbait esan; baina kontuan izan poliki, ozenki eta ongi ahoskatuz hitz egin behar duzula. Badakizu, nik bezala, poliki, ozenki eta ongi ahoskatuz. (*Azkenengo hiru hitzak oso poliki, ozenki eta ongi ahoskatuz esaten ditu*)

- Frai Periko** (*Hiztotela da*) Ka-ka-kaixo! Ikusten du-duzuen bebezala, ni Fra-Frai Periko na-naiz eta i-i-ilusio handia da-daukat iragarki ho-honetan par-parte hartzeko.
- Zuzendaria** Ongi, baina eragozpen txiki bat dago. Hitz bera gehiegi-tan errepikatzen duzu.
- Frai Periko** Ba-ba-bale, ba-badakizu nire bi-bihotza paketan egoten ohitua da-da-dagoela; be-beraz, be-beste ba-ba-bati utzi-ko diot au-au-ke-ker.
- Zuzendaria** Sor Katalina, orain zure txanda da; ea nola moldatzen zaren.
- Sor Katalina** Kaixo, ni Sor Katalina naiz. Ikusten duzuen bezala, itxuraz euskaldun kutsua dudan emakumea naiz (*Sudur handia du*) eta, baserritarra naizenez, gaztak egiteko teknika-ren ezagupen handia dut. Guzti hau kontuan izanik eta protagonista izateko dudan gogoia ikusirik, paper hau egiteko aproposena naizela uste dut.
- Kamera** (*Zuzendariari begira hitz egiten du*) Emakume aparta bai, baina horrek telebistan atera behar badu, jendeak bi edo hiru telebista segidan jarri beharko ditu.
- Zuzendaria** (*Sor Katalinari begira*) Bai, bai, ados nago, baina horretarako zer moduz egiten duzun ikusi beharko dugu.
- Sor Katalina** Ongi da. Gazta hau ni bezain goxoa eta liraina da eta...
- Zuzendaria** Ez, ez, ez, ez... Hemen helburua gazta aurkeztea da, eta ez zeure burua.
- Sor Katalina** Ez, ba. Ikusten dut material ona bereizten ez dakizuela.
- Zuzendaria** Bueno, guk onena aurrera jarraitzea. Zein da hurrengoa?
- 5. frailea** Martin du izena, baina gure artean Frai Pitagorin deitzen diogu.

- Zuzendaria** Bueno, ea izenak esaten duen bezala, besteak baino argiagoa zaren.
- Fr. Pitagorin** Sekula ez naiz aurkitu horrelako momentu kritikoetan, baina nire inteligentzia hedatu honi esker, inprobisaketa sakon eta burutsu bat egiten saiatuko naiz eta ziur egon lortuko dudala, nik oztopo guztiak gainditzen baititut.
- Kamera** Bueno, kolega, hau hartu beharko diagu. Gehiegi enroilatzen duk, baina beronek ematen dik argiena.
- Zuzendaria** O.K. Zerbaitetarako balioko du. A, eta orain joan zaitez idazkariarengana eta berak esango dizu zer egin. Bueno, eta orain Sor Beti Bizkor.
- S. Beti Bizkor** (*Azkar hitz eginez*) Hementxe nauzue, telebistan ateratzeko ilusioarekin betidanik, baina ez dakit zergatik ez nauten hartzen, aparteko gauzarik ez daukat behintzat...
- Zuzendaria** Ixo, Ixo! Hau da belarriko mina! Tinpanoak hautsiko dizkidazu. Polikiago izanez gero, ondo!
- S. Beti Bizkor** Bueno, saiatuko naiz nire koinatak bezain lasai hitz egiten! (*Orain poliki*) Arantzazuko gazta oso ona da, gainera bertakoa...
- Zuzendaria** Orain ongi. Zu ere etor zaitezke.
- Kamera** Jo, tío. ¡Vaya rollo que se traen estos!
- Zuzendaria** Benga, benga, «corta el rollo» eta... hurrengoa (*Jende pila sartzen da builaka. Ni, ni, ni, ni...!*)
- Sukaldaria** Ixooo! Sukaldaria ni naiz eta, dena neuk prestatzen dudanez, orain neure txanda da. Zuzendari jauna, zer egin behar dut?
- Zuzendaria** Hemendik bira bat ematen duzun bitartean, zerbait esan ezazu.

Sukaldaria *(Emakume harroa da. Hitz egiten duen bitartean, egiten duen lanarekin oso harro dagoela nabaritzen da)* Ikusten duzuen bezala, nik egiten dudan gazta oso kalitate onekoa da. Errezeta joan zen urtean telebistan ikusi nuen eta, badakizue nork eman zuen? Ba... Argiñano jaunak. Egia esan, hau da inguru hauetan dugun sukaldaririk ospetsuenetakoa, baina hala eta guztiz ere, ni askoz hobea naiz sukaldean. Eta badakizue zergatik?

Zuzendaria *(Oso urduri)* Ez dakigu eta ez eta jakin nahi ere. *(Orain patxada gehiagorekin mintzatuz)* Beno, beno, orain joan zaitez zure sukaldera eta gero hitz egingo dut gehiago zurekin.

Sukaldaria Jo! Telebistan ateratzeko nik daukadan ilusioarekin!
(Sukaldaria eszenatokitik ateratzen da eta berarekin batera beste guztiak. Bertan iragarkiaren zuzendaria eta kamera bakarrik geratuko dira. Ikusi dutenari buruz mintzatzen ari diren bitartean, ajentziako bi dekoradore eta beste kamera bat iristen dira)

Kamera Hau da papeleta daukaguna! Jende hau bere lanean ona izango da baina, egia esan, eskuetan daukaguna bezalako lanak egiteko ideiarik ere ez daukatela iruditzen zait.

Zuzendaria Oraintxe esan duk egia baina, azkenean berauek nahi duten bezala egin beharko dugula uste diat. Badakik... esaera zaharrak ere, ordaintzen duenak agintzen duela esaten dik. *(Zuzendaria hitz egiten bukatzen ari den unean, atea entzuten da)*

Zuzendaria Bakarrik gaudek eta geuk ireki beharko diagu atea!

Kamera Behar bada gure lankideak izango dira. *(Erlojuari begiratu)* Ordu honetan etorriko direla esan didate eta seguraski beraiek izango dira. *(Jaiki eta atea irekitzera zuzentzen da)*

Kamera Kaixo! Zuek al zarete? Pasa, pasa.

Zuzendaria Oso une egokian etorri zarete. Oraintxe bukatu ditugu frogak eta nor aukeratu pentsatzen ari ginen.

Kamera Aukera handiegirik ez dago, baina dagoenarekin konpondu behar.

1. dekorad. Puuufa! Ez zeukaat bat ere lan egiteko gogorik.

2. dekorad. Bai, arrazoia duk. Atzo egin genuen parrandarekin, ni neu ere ez nagok bat ere lanerako moduan.

Zuzendaria Zertan ibili zineten ba, gizonak?

1. dekorad. Atzo, lanetik irten ondoren, zerbait hartzera joatea pentsatu genuen...

2. dekorad. Eta bai joan ere!

1. dekorad. Bai ba, eta beste honek gose handia zuenez, alde zaharrra joan ginen banderilaren bat jateko asmotan.

2. dekorad. Taberna batean sartu ginen eta, lehenik edaria eta gero jateko zerbait ere eskatu genuen. Tabernariak, pintxoak oraindik prestatu gabe zeudela eta, nahi bagenuen, gazta ederra bazuela...

1. dekorad. Hura gazta! Oraindik ez nuen horrelakorik dastatu.

Zuzendaria Baina zer, ona ala txarra zegoen?

1. dekorad. Ez dakit ona edo txarra zen baina, bizitza osoan ez dut horrelako gazta bizirik jan. Pusketa txiki bat ahoan sartu eta gorputz guztia sutan bezala jartzen zen. Eta guk, badakizu...

2. dekorad. Sua itzaltzeko gauzarik onena zer? Ba ardo xurrutada ederra!

1. dekorad. Eta xurrut eta xurrut eta xurrut eta xurrut... azkenean mozkor galanta harrapatu eta ia gaupasa eginda etxera.

- 2. dekorad.** Hau da bakailaua harrapatu genuena! Oraindik ere itzeleko buruko mina daukat.
- Kamera** Bai, baina gazta nolakoa zegoen?
- 2. dekorad.** Gaztak ez zuen bat ere balio, baina ardoa zoragarria!
- 1. dekorad.** Bai horixe!
- Zuzendaria** Nahikoa da. Egonean egon eta gero, nagusia etortzen denean eta zer egin dugun ikustean, orduantxe kontuak.
- Kamera** Ai, ai, ai... Hasi beharko dugu lanean!
- Zuzendaria** Bai, goazen, eta mugi ipurdi horiek, azkenengo gauzak prestatzen oraindik lan ederra daukagu eta.
(Guztiak eszenatokitik ateratzen dira eta, hauek aldegin orduko, fraile-etxeko interina eta jostuna sartzen dira berrikeretan)
- Interina** Zer narrazak diren hemen ibiltzen diren zenbait!
- Jostuna** Ez da egia izango! Etxe honetan bizi diren guztiak asko ikasitakoak ditun eta ez ninan sekula pentsatuko horrelako gauzarik entzuterik!
- Interina** Asko ikasitako jendea dun, horretan ez ezan dudarik izan. Behar bada lanean onenak eta serioenak izango ditun.
- Jostuna** Nik hori ninan entzuna behintzat.
- Interina** Bai, guzti hori beren lanean, baina etxera etorritakoan, beste edozein gizon bezalakoak ditun. Tripa bete eta gauzak non eta nola uzten dituzten axolarik gabe ibiltzen ditun. Eta gero, badakin zer? Ba azkenean etxe guztia hankaz gora gelditzen dun eta emakumetxo honek dena garbitu behar!
- Jostuna** Ez egidan horrelakorik esan. Hire lana oso gogorra izango dun, baina nirea ere ez dun atzean gelditzen.

- Interina** Hik badarik ere lana eserita egiten dun.
- Jostuna** Eta ongi eserita gainera! (*Kexati esaten du*) Oraintxe hankak zertarako ditudan ere ahaztu zaidan eta gainera, horrenbeste denbora eserita egon beharrarekin, ipurdia Azpeitiko zezenplaza baino borobilagoa gelditu zaidan. Begira, begira!
- Interina** Kontxo, egia! (*Barre algara egiten du*) Orain arte ez nindunan konturatu nolako ipur masail handiak hituen. (*Barrez jarraitzen du*)
- Jostuna** Komungarbitzaile! Niri ez zidan bat ere barregurerik ematen eta hik ere hobe dun isildu, ezpainak jostea nahi ez badun. (*Haserre*)
- Interina** Barkaidan, baina ez ninan sekula santan horrelakorik entzun eta ikusi. (*Jostunak begirada zorrotza botatzen dio*). A, eta ni ez naun komungarbitzailea, garbitasuneko «asistentia» baizik. (*Azken hau serio eta ongi azpimarratuz esaten du*)
- Jostuna** (*Kasurik ez egiteko imintzioa eginez*) Bueno, lehengoari jarraituz... etxe honetan zeharoko jatunak ditun. Aurrean harrapatzen duten guztia barrura sartzen dinате eta gero denak borobil-borobil jartzen ditun. (*Eskuez keinua eginez*) Eta noski, gizentzen direnean, guztien arropak handitu behar!
- Interina** Hori dun guztia? Zer dun ba noizean behin arropa batzuk handitzea?
- Jostuna** Hori bakarrik izango balitz, ezer ez. Denak potolo-potolo egiten direnean, bakarren bati pisatzea bururatzen zaion eta, linea galdu duela ikustean... (*Muekak eginez*) zer bururatuko eta sekulako errejimena egiten hasten dun. Eta berriro gure jostuntxo arropak txikitzera.
- Interina** Emakumea, fraile baten arropak berehala txikitzen ditun. Ez dun asko behar keitzeko!

- Jostuna** Bat balitz... hauek tximuak bezalakoak ditun, neska! Bat errejimenaren egiten hasten badun, beste guztiak atzetik... beste egitekorik ez balute bezala. Eta jostuntxoaren urte guztia arropak handitu eta txikitu, handitu eta txikitu.
- Interina** Baditun ba hauek holakoak! Bueno, alper-alperrik ari garela uste dinat. Guk nahi duguna esango dinagu, baina bizi guztian berdin jarraitu beharko dinagu. Ni txukuntzan eta hi josten.
- Jostuna** Bai neska, arrazoi dun. Hobe izango dinagu isiltzea eta gure lanarekin jarraitzea.

Gure lanak (abestia)

Egunsentian jaikitzen naiz txorien kantuarekin.
 Jainkoari eskaintzen diot jaio den eguna.
 Hementxe ditut arropak, hainbeste, hainbeste;
 gaur tokatzen zait estutuz, bihar agian zabalduz.
 Orratza lan eta lan, gora eta behera.
 Kristalak garbitu eta orain lurra tokatzen zait.
 Zertarako balio ote dit, denek zapaltzeko.
 Pazientzi ederra dut, gehiegi, gehiegi.
 Hau ezinezkoa dela, horixe pentsatzen dut.
 Nik garbitu, horiek zikindu, inoiz, inoiz ez, ez, ez.
 Joango gara Urbi aldera biok pasiatzera,
 usain ederrak usaintzera ta haizea hartzera.
 Eliz dorreko kanpaiak entzungo ditugu,
 nik dantzatu egingo dut ta nik abestuko dut,
 Nik abestu egingo dut, nik dantza egingo dut.

(Musika: Imanol Urbietza)

(Letra: Antzerki taldea)

(Hauek atera bezain laster, berriro iragarkiaren zuzendaria eta bi kamerak agertzen dira eszenatokian. Bi azkenak bere lanerako behar dituzten tresnak gainean daramatzate eta zuzendaria esku hutsik doa)

- 1. kamera** *(Zuzendariari begira)* Zuk ere zertxobait lagunduko bazenu, denok hobeto joango ginatke.

- Zuzendaria** Zuek karga fisikoa daramazue, baina nik, karga psikikoa eta horrek gehiago nekatzen dik.
- 2. kamera** Hemen pisatzen duen gauza bakarra zeure aurpegia da.
- Zuzendaria** Ez zaitetze horrenbeste kexatu eta prestatu lanerako. (*Bi kamerak eszenatokiaren alde banatan jartzen dira filmaketa egiteko. Prestatzen ari diren bitartean, 6. frailea agertzen da*)
- 6. frailea** (*Motel-motel eta eskuak igurtziz*) Zer, hemen al zarete berriro? Dena prest? Nahi baduzue aukeratutakoei deitzera joango naiz.
- Zuzendaria** Ez baldin bazaizu inporta. Mila esker!
(*6. frailea bere tokitik mugitu gabe gelditzen da*)
- Zuzendaria** Aizu, nahi duzunean joan zaitzke deitzera.
- 6. frailea** A bai, berehala noa. Egia esan niri tresna hauek izugarri gustatzen zaizkit (*Kameretara gerturatzen da*) eta ikusten ditudan bakoitzean, liluraturik gelditzen naiz.
- 1. kamera** Ez egidazu esan. Ba kamera hau japonesa da.
- Zuzendaria** (*Nahiko haserre*) Horixe bakarrik falta zitzaigun, orain kontu horietaz mintzatzen hastea.
- 6. frailea** Ez duzue gizon goxoa ekarri! Lasai gizona, oraintxe joango naiz eta deitzera. (*Eszenatokitik kanpo ateratzen da*)
- 2. kamera** Eskerrak moztu diozun. Bestela gabonetako mahatsak hemen harrapatuko gintuen. (*Hitz egiten bukatu bezain laster, aukeratutako guztiak sartzen dira: sukaldaria, 7. frailea eta bi morroi. Bakoitzak bere gidoia eskuetan darama*)
- Zuzendaria** Ederki. Iragarkiaren gidoia eskuetan duzuela ikusten dut. Berehala hasiko gara grabaketa egiten eta, nahi baduzue, zertxobait errepasatzen has zaitzketekete. Momentu batean hasiko gara lanean.

- 1. kamera** Bueno, tronko, ni listo!
- 2. kamera** Bai, ni ere bai, kolega.
- Zuzendaria** Antzezleok, prest? (*Denak batera baietz erantzuten dute. Frailea eta sukaldaria erdian jartzen dira eta morroia aldamen batean. Grabaketa hasten da*)
- Zuzendaria** Lehenengo toma. Kamera! Ekin!
- Frailea** Arantzazun baditugu zenbait aberastasun, eta beraien artean garrantzitsuena, Ama Birjina. Bertako mendietan belardi asko ditugu eta belardi hauetan ibiltzen diren ardiek emandako esnearekin, mundu guztian parekorik ez duen gazta egiten dugu!
- Morroia** Berau egiteko, lehengai naturalak bakarrik erabiltzen ditugu eta hauen artean nagusia, gure ardi berezien esnea da. (*Sukaldaria mintzatzen hastera doanean, Sor Katalina sartzen da eta hitza ahoan duela uzten du*)
- S. Katalina** Kaixo! Hemen nauzue denerako prest!
- Zuzendaria** Moztu, moztu! Ez al dizute esan ezin duzula parte hartu? Alde hortik!
- S. Katalina** Bueno, bueno... horrela nahi baduzue, oraintxe joango naiz. (*Sor Katalina ateratzen da eta berriro hasten da iragarkiaren grabaketa*)
- Zuzendaria** Bigarren toma. Kamera! Ekin!
- Frailea** Arantzazun baditugu zenbait aberastasun, eta beraien artean garrantzitsuena, Ama Birjina. Bertako mendietan belardi asko ditugu eta belardi hauetan ibiltzen diren ardiek emandako esnearekin, mundu guztian parekorik ez duen gazta egiten dugu!
- Morroia** Berau egiteko, lehengai naturalak bakarrik erabiltzen ditugu eta hauen artean nagusia, gure ardi berezien esnea

da. (*Sukaldaria hitz egiten hastera doanean, fraileari duro bat erortzen zaio lurrera eta ateratzen duen iskanbilarekin esan beharrekoa eten egiten dio*)

Frailea E! Duro bat erori zait lurrera! Nora joan den ikusi duenik badago gelan?

Zuzendaria Moztu! Moztu! (*Oso haserre*) Eroturik al zaude? Berrito toma hondatu duzu.

Frailea Barkatu, baina Jainkoak emandako duro bat da eta jendea goseak hiltzen ari den bitartean, gu dirua lurrera botatzen ibiltzea ez da legezkoa.

Zuzendaria (*Desesperaturik*) Ongi da, ongi da. Berrito hasiko gara eta ea oraingoa azkena den! Hirugarren toma. Kamera! Ekin!

Frailea Arantzazun baditugu zenbait aberastasun, eta beraien artean garrantzitsuena, Ama Birjina. Bertako mendietan belardi asko ditugu eta belardi hauetan ibiltzen diren ardiek emandako esnearekin, mundu guztian parekorik ez duen gazta egiten dugu!

Morroia Berau egiteko, lehengai naturalak bakarrik erabiltzen ditugu eta hauen artean nagusia, gure ardi berezien esnea da.

Sukaldaria Honezaz gainera, azken ukitua nire esku trebe hauek ematen diote gure gazta ospetsu honi. (*Jendea sartzen da gazta eskatuz*)

Jendea Gazta nahi dugu! Gazta nahi dugu!

Frailea Ikusten duzuen bezala, Arantzazuko gazta hau Jainkoak gogokoen duen janaria da. (*Hau esaten duen bitartean, eskuak zerurantz altxatzen ditu*)

Zuzendaria Oso ongi. Bikain dago! Ez dago gehiago errepikatu beharrik. Mila esker guztioi. (*Kamerak gauza guztiak jasotzen hasten dira eta, pelikula jasotzerakoan...*)

2. kamera Aiiii! Izan ditugun presekin pelikula jartzea ahaztu zait!

Zuzendaria Hau ezinezkoa da. Zer egin dut nik guzti hau niri gertatzeko! (*Erdi negarrez, kexaka*)

S. Katalina

Nik banekien horrelako zerbait gertatu behar zuela, eta badaezpada ere... nire iragarki berezia prestatu dut. Gero esan batzuek ez dugula balio.

(Argiak itzaltzen dira eta berehala musika hasten da; berriro argiak pizten dira. Antzerkiari bukaera emateko, abesti bat abestu eta dantzatzen da. Abestiaren letrak Arantzazuko gaztaren propaganda egiten du)

Urbi aldean (abestia)

Urbi aldean ni nabil.
Di, aladio, aladio.
Nire bordan lasai nago.
Di, aladio, aladio.

Di, aladio, aladio, aladio,
aladio, aladio, aladio, lai, lai!
Di, aladio, aladio, aladio,
aladio, aladio, aladio.

Bildots eta arkumeak.
Di, aladio, aladio.
Zaintzen ditut gailurrean.
Di, aladio, aladio.

Leloa

Gazta ona nahi baduzu.
Di, aladio, aladio.
Bordan eskainiko dizut.
Di, aladio, aladio.

Leloa

Sutondoan jezarririk.
Di, aladio, aladio.
Kaiku esnea harturik.
Di, aladio, aladio.

Leloa

(Musika eta letra: Imanol Urbietta)

HARAGI EGOSIA SALTSAN

BBBko 3. mailako ikasleak, txikientzat,
J. Kruz Larrañaga eta Mikel Leundaren ardurapean
Txotxongiloa
Alkartasuna lizeoa
Beasain
1993-94

GALA

Antton txikia zela eta jende guztiak barre egiten zion.
Behin Maitagarri bat aurkitu eta honek erraldoi bihurtu
zuen; hemendik aurrera hasiko dira Antton eta bere
inguruko buruhaustak.

PERTSONALIAK

Antton (mutil protagonista txikia)
Kepa (Anttonen burlatzailea)
Anttonen ama (etxekoandrea)
Maitagarria (gaztea eta esperientziarik gabea)
Maitagarriaren irakaslea (adintsua)
Detektibea (gizon zahar eta zakarra)
Baserritarra (Anttonen laguna)
Maialen

(Antton eszenatokira sartzen da, poliki eta triste)

Antton Gaur ere beti bezala. Hau bizitza aspergarria!
(Kepa, bere ikaslaguna, sartzen da)

Kepa Kaixo, arkakuso txiki, zertan zabilta, arkakuso! Ez al dizute ikastolara joaten uzten txikiegia zarelako? Ja, ja, ja!

Antton Ez! Tonto ale hori! Ikastolara nahi dudanean joan naiteke eta gainera ez naiz arkakusoa, entzun?

Kepa Barkaidazu, inurri hori! *(Kepa barrez joaten da)*

Antton Bene-benetan, nazkaturik nago; txiki xamarra naizela eta denek burla egiten didate. Zuek hala uste al duzue? Txi-

kia al naiz? Handia banintz... (*Negarrez joaten da. Maitagarri bat azaldu eta hurrekin hizketan hasten da*)

Maitagarria Haurrok, ikusten al duzue nola dagoen Antton? Pena ematen du, ez da?

Ea, ideia bat daukat, dei egin diezaiogun, ea, ea... Baina nola? Mmmm. Badakit! Ni Maitagarria naizenez, majiaren bidez zertxobait handi dezaket! Ez al da hala? Dei egin diezaiogun. Antton, Antton! Ez du entzuten, ozenkiago dei egin diezaiogun. Antton, Antton! (*Antton korrika eta urduri azaltzen da*)

Antton Bai, ama, zer nahi duzu? Oraingo honetan ez dut ezer ere hautsi, ez ditut gozoki asko jan eta hortzak garbitu ditut eta...

Maitagarria Baina Antton, lasai, lasai, mutil!

Antton E! Baina nor zara? Zu ez zara nire ama! Haurrok, nor da hau? Nola? Zer? Nire ama dela? Gezurra! Hau ez da nire ama! Ezetz! Oso gezurtiak zarete. Ez duzue ezertarako balio.

Maitagarria Ni Maitagarria naiz eta zuri laguntzera etorri naiz, zure arazoaren berri bai baitut...

Antton A! Eskerrik asko! Baina nire arazoak ez du irtenbiderik! Bizi guztirako txikia izango naiz.

Maitagarria Ez, ez! Zu lasai jar zaitez eta ez mugitu.
(*Antton oso urduri jartzen da eta asko mugitzen da*)

Maitagarria Baina, lasai egoteko esan dizut. Gaurko ume hauek ez dakite geldi egoten! Ez da, haurrok? Begira, horko hori ere mugitu egiten da. Geldi egoteko! Bueno, majia burutzeko zuen laguntza beharko dut. Haurrok, nirekin batera «Abra kadabra, zakurraren buztana! Bat, bi eta hiru!» esan, ados? Ea ba. Bat, bi eta hiru. «Abra kadabra, zakurraren buztana. Bat, bi eta hiru!!!»

(Kea azaltzen da eta Antton desagertu egiten da. Eszenatoki azpitik norbait azaltzen da Anttonena egiten)

Antton Baina zer egin didazu, erraldoi bihurtu nauzu? Orain zer egingo dut?

Maitagarria Barkaidazu Antton, oraindik majia ikasten ari naiz eta urduri jarri naizenez... Ulertuidazu, inor ere ez da hemen akatsik gabea.

Antton Akatsa? Bai noski, akats bat edozeinek du, baina ez horrelako akats larririk, hau gehiegizkoa da. Eta orain nik zer egin behar dut? Haurrok, zuek ba al dakizue zer egin dezakedan? Zer? Ez dakizue ezer? Ai ama, ez dakit zer egin eta dena zeure erruz izan da, zeure erruz!

Maitagarria Zu lasai, neure irakaslearengana joango naiz konponbide bila.

Antton Bai, bai, zu joan, baina azkar etorri, bestela ikusiko duzu. *(Maitagarria joan egiten da eta Antton zain gelditzen da. Maialen azaltzen da)*

Maialen Hara! Zein zara zu?

Antton Ni Antton naiz, ez al nauzu ezagutzen?

Maialen Ez, zu ez zara Antton. Antton nire laguna da, eta oso ona gainera. Eta nik ongi ezagutzen dut. Nire sekretu guztiak dakizki eta nik bereak. Gainera askoz txikiagoa da. Mesedez, ez egidazu gezurrik esan. Nor zara zu?

Antton Baietz, ni Antton naizela. Gogoratzen zara nola Kepa gustatzen zitzaizula esan zenidan, udan, ibai ertzean geundela, Kepa bainujantzian ikusi ondoren?

Maialen Zuk nola dakizu hori? Hori Anttonek bakarrik daki. Zerri hori! Nire lagunik onena zela uste nuen eta nire sekretu guztiak zabaltzen ditu. Ez da gehiago nire laguna izango.

- Antton** Baina Maialen! Neu naizela!
- Maialen** Ez, zu ez zara Antton. Hurrei galdetuko diet. Haurrok, nor da hau?
(Hurrek erantzuten dute)
- Maialen** Nola? Ez dut ulertzen. Haurrok, garbiago hitz egin eza-zue. Bestela ez dut ezer ulertuko. Ea, nor da hau?
(Hurrek berriz erantzuten dute)
- Antton** Ikusten? Neu naiz Antton.
- Maialen** Ba, ez dut sinisten. Denok gezurretan ari zarete. Haurrok, gezurra esan didazuela?
(Hurrek erantzuten dute)
- Antton** Maialentxo, sinestu, bestela ezingo naiz gustora egon, mesedez!
- Maialen** Sinestu beharko! Bestela, lagunik gabe geldituko naiz eta!
- Ama** *(Kanpotik)* Antton, etor zaitez etxera, enkargu bat dut zuretzat.
- Antton** Ai ama! Eta orain zer egingo dut? Ezin naiz etxera joan, amak ezin nau horrela ikusi, Maialen. Zer egingo dut? Lagunduidazu.
- Maialen** Ez dakit zer egin dezakegun, ea, ea... Ez zait ezer bururatzeko, hurrei galdetuko bagenie?
- Antton** Ongi da. Haurrok, zer egingo dugu?
(Hurrek erantzuten dute)
- Maialen** Ez dakizuela ezer? Ba, Antton, ez dakit zer egingo dugun!
- Antton** Mugi, nire ama dator.
- Ama** Antton! Mugitu! Ez dut egun osoa zure zain egoteko!

Antton Zer bait egin behar dut, eta azkar gainera!

Maialen Baina ez zaigu ezer bururatzen.

Antton Eta orduan zer egingo dut, amak ezin nau horrela ikusi.

Maialen Zu izkuta zaitetz eta, bitartean, nik zure amarekin hitz egingo dut.

Antton Ongi da. Gero arte!
(*Anttonen ama azaltzen da eszenatokian, nahiko haserre*)

Ama Baina Antton! Non sartu zara? Ez al didazu entzun?

Maialen Kaixo, andrea!

Ama A! Kaixo Maialen, Antton ikusi al duzu?

Maialen E, beno, ez dakit... beno....

Ama Zer duzu, Maialen? Zer bait gertatzen zaizu?

Maialen Ez, ez, ondo nago.

Ama Ba, ez dirudi oso ondo zaudenik.

Maialen Lasai, andrea, ni oso ondo nago, ez dut ezer, galdetu haurrei.

Ama Haurrok, Maialen ondo al dago?
(*Hurrek erantzun*)

Ama Nola? Ez dut ongi entzun!

Maialen Ondo nagoela esaten dute.

Ama Beno, berdin dio, ni nire semearen bila nenbilen.

Maialen Zure semea? Ba nik ez dut ikusi.

Antton (*Barrutik, ahots batek, azaldu gabe eta oso baju*) Tss...
Tss... Maialen.

- Maialen** *(Barrurantz begiratzen du)* Beno, andrea, enkargu bat egin behar dut eta ezin naiz geratu.
- Ama** Bueno, nik ere joan beharra dut, ea nire semea aurkitzen dudan...
- Maialen** Gero arte. *(Ama joan egiten da)*
- Maialen** Baina Antton, zer duzu? Zergatik azaldu zara?
- Antton** Ongi pentsatu dut eta onena amari dena esatea izango da.
- Maialen** Ziur al zaude?
- Antton** Bai, beno ez... eta hurrei galdetuko bagenie?
- Maialen** Bai, ongi deritzot.
- Antton** Haurrok, lagunduko al didazue?
(Hurrek erantzun)
- Antton** Ongi da. Galdera bat dut. *(Poliki-poliki hitz eginez)* Jarri nire lekuan eta zer egingo zenukete, amari esan oso handi egin naizela, ala ez?
(Hurrek erantzun)
- Maialen** Zer esan dute? Nola? Errepikatu mesedez, ez dut entzun.
(Hurrek erantzun)
- Antton** Beno ba! Amatxorengana noa, baina zuek ere lagundu, konforme?
(Hurrek erantzun. Anttonek erdi aldera joan eta amari deitzen dio)
- Antton** Ama! Ama! Haurrok, nirekin batera deituiozue. Ama!
Ama!
- Ama** *(Anttoni begiratzen dio eta garrasi egiten du)*
Baina, Antton, zu al zara? Deabruen biboteak! Zer egin dizute? Semea aldatu didate!

- Antton** Ez, ama, neu naiz.
- Ama** Zu ez zara nire semea! Nire semea askoz ere txikiagoa da.
- Antton** Bai, ama, neu naiz. Maitagarri batek erraldoi bihurtu nau eta bere irakaslearengana joan da konponbide bila.
- Ama** Baina zergatik handitu nahi zenuen? Ez al zeunden gustora zeunden bezala.
- Antton** Ez ama, denek iseka egiten zidaten eta ezin nuen gehiago! Ez nuen txikia izan nahi!
(*Maitagarria azaltzen da*)
- Ama** Zuk egin al diozu hori nire semeari? Ikusiko duzu!
(*Maitagarriari segika hasten da ama*)
- Ama** Nire semeari ez zaio horrelakorik egiten!
- Maitagarria** Baina ez da nire errua izan!
- Ama** Nola ez dela zure errua izan? (*Maitagarriaren irakaslea azaltzen da*)
- Maitag.-aren irakaslea** Geldi! Ez da bere errua izan! Oraindik oso gaztea da eta kurtsoa ez darama oso ongi. Berehala konponduko dugu arazo txiki hau. Ez da ezer.
- Ama** Horri deitzen al diozu arazo txikia? Nik munduko arazorik larriena dela esango nuke.
- Maitag.-aren irakaslea** Jesus, emakumea! Ez da horrenbesterako.
- Ama** Ez dela horrenbesterako?... Zure semea jarriko nuke ni-rearen tokian.
- Maitag.-aren irakaslea** Barkatu baina, jakin nahi baduzu, ez dut semerik.

Ama Berdin zait zuk semea eduki ala ez. Baina nirearekin dagoen arazoa konpondu beharra dago.

Maitag.-aren irakaslea

Begira, horko etxe horretan haragi egosi berezi bat dago. Hamar mendetik behin bakarrik sortzen den txahalarena, hain zuzen ere. Oso berezia da. Hori lortu eta saltsa goxo batean jartzen baduzue, Anttonek hartu eta bere lehengo tamainura itzuliko da. Baina bi baldintza bete behar dira: lehena, Anttonen familiakoek ezin dutela haragi hori ikutu eta berak gutxiago; bigarrena, Anttonek, haragi egosia saltsarekin batera hartu ondoren, korrika hasi behar duela.

Ama Baina orduan nork hartuko du haragi egosia. Ea, ea... Badakit, detektibe bat kontratatuko dut.
(Oihalak itxi egiten dira eta, irekitzean, eszenatokian ama azaltzen da, detektibearekin batera)

Ama Ongi ulertu duzu ideia, ez da hala?

Detektibea Bai, zu lasai egon, haragi egosia segituan egongo da eta nire eskuetan.

Ama Oso ongi, bitartean ni haragi egosiarentzako saltsa pres-tatzera noa. Eta zuei, haurrok, gustatzen zaizue saltsa, ez da?
(Ama joan egiten da eta detektibea geratzen da)

Detektibea Lehenbizi haragi egosiaren jabea nor den jakin behar dut. Txirrina joko dut, ea nor azaltzen den.
(Detektibea eszenatokiaren beste ertzerantz abiatzen da eta, han, txirrina jotzen du. Itxura txarreko baserritar bat azaltzen da)

Baserritarra Bai, nor zara?

Detektibea Detektibea naiz, baserritar jauna. Arazo bat daukat eta zure haragi egosia behar dut.

Baserritarra Nola? Nire haragi egosia zuri eman? Ezta pentsatu ere, munduko urre guztiagatik ere ez nizuke emango.

- Detektibea** Baina baserritar jauna, behar dut. Begira... *(Eta belarrira xuxurlatuz, istorio guztia kontatzen dio)*
- Detektibea** Ulertzen duzu orain?
- Baserritarra** Ja, ja, ja! Hori bai ipuin polita! Baina ez dut ezer ere sinesten.
(Baserritarra etxera sartzen da, barrez)
- Detektibea** Ipurterre hori! Ikusiko duzu, ba, nor naizen ni. Haurrok, zuek ez esan inori, baina neska baserritarrez mozorrotuko naiz eta horrela berehalako batean kenduko diot haragi egosia. Konforme? Anttonengatik!
(Detektibea joan egiten da eta oihalak ixten dira. Baserritarra irteten da, eskuan haragia duela. Ondoren, detektibe mozorrotuarekin egiten du topo)
- Baserritarra** Kaixo, andere, zertan zabilta? Bakarrik ikusten zaitut. Lagun diezazuket?
- Detektibe mozorrotua** Ba, ba... beno, enkargu bat egin beharrean nago.
- Baserritarra** Eta, zer motatako enkargua?
- Detek. moz.** Haragia erosi beharrean nago. Ez da hala, haurrok? *(Detektibe mozorrotuak eskuetara begiratzen dio baserritarrari eta haragi egosia ikusten du)*
- Detek. moz.** Ui! Zer duzu eskuetan, jaun agurgarri hori?
- Baserritarra** Ba, begira, hau ere haragia da, oso berezia eta primera-koa, baina ezin dizut saldu.
- Detek. moz.** O! Bai, egia, oso itxura ona dauka; ea, ea... *(Haragia ikusten hasten da detektibea eta, baserritarrari zaplasteko bat emanaz, haragia kendu eta joan egiten da. Baserritarra atzetik segika hasten zaio)*
- Baserritarra** E! Ezagutu zaitut! Zu ez zara andere bat, zu lehengo detektibea zara, ez al da hala?

- Detek. moz.** Bai! Bai! Baina ez nauzu harrapatuko!
(*Azkenean, detektibea bakarrik geratzen da eszenatokian*)
- Detek. moz.** Lortu dut, orain Anttonen ama bilatu behar dut. (*Irteten hasi eta Anttonen amarekin txoke egiten du*) Zure bila nenbilen, lortu dut haragi egosia. Salda egin duzu?
- Ama** Baina, nor zara zu?
- Detek. moz.** Detektibea naiz, mozorroturik.
- Ama** A, bai. Salda hemen dakart. Orain nahastea bakarrik falta da. (*Goilare batekin nahastu ondoren...*)
- Ama** Orain Anttoni deitu behar zaio. Lagunduidazue, haurrok. Antton! Antton!!!
- Antton** Zer nahi duzue?
- Ama** Edan ezazu edari hau eta hasi korrika berehala!
- Antton** Ongi da. (*Edan ondoren eszenatokiaren atzeko aldetik buelta osoa ematen dio eta txikiturik agertzen da*)
- Antton** Aupa! Aupa! Lortu dugu! (*Kepa azaltzen da*)
- Kepa** Kaixo, inurri. Zu berriz?
- Antton** Berdin zait horrela deitzen badidazu, artaburu! Ni neu harro bainago nire itxurarekin.
- Kepa** Beno, nik uste dut onena lagun izatea dela.
- Antton** Konforme; agur, haurrok, eta badakizue, lagun izan denekin, altuerak, lodierak, koloreak eta abar gorabehera!

HERENSUGEAREN BURUA

R. M. del Valle Inclán
Elena Egearen itzulpena
5. mailako ikasleek antzeztua
Ipuin antzeztua
Ikasbidea ikastola
Durana
1991-92

GAIA

Herensugeak neskak jaten ditu. Zozketa egin eta printzesari tokatu zaio. Printze bat aurkezten da jauregian bufoi itxuran. Azkenean printzeak hiltzen du herensugea, baina beste zaldun batek dio berak hil duela. Bufoiak, herensugearen mingaina ateraz, hiltzailea bera izan dela frogatzen du. Azkenean, printzea dela frogatu ondoren, printzesarekin ezkontzen da.

PERTSONAIAK

Printzesa
Verdemar printzea
Artzaina
Dukesa
Micomicon erregea
Espandian suharra
Fierabras jenerala
Mangucian errege handia
Dama eta galaien korua

(Musika. Micomicon erregearen jauregiko lorategian. Har-maila eta larrosadun lorategia. Bertan, bi paumak beren buztana zabaltzen dute. Iturriaren ondoan erregearen alaba negarrez dago. Bat-batean Verdemar printzea, bufoiz maskaratuta, bere begien aurrean agertzen da)

Printzea Printzesa!

Printzesa Nor zara?

Printzea Zergatik galdetzen didazu nor naizen? Bufoia naiz.

Printzesa Malkoek itsutzen ninduten eta ez zidaten uzten zu ikusten. Zer nahi duzu?

Printzea Soldadu batzuen bidez zure zorigaitzaren berri jakin nuen, printzesa. Bufoi barik zeundela ere esan zuten eta, hemen

nauzu zu zerbitzeko. Hartuko nauzu zure zerbitzura, andere? Nire kriskitinak ez zaizkizu inoiz behar gabekoak izango.

Printzesa Denbora gutxi egongo zara nire zerbitzura. Gaur nire heriotzeko eguna da! Erresuma salbatzeko herensugearen atzaparren artean hil behar dut.

Printzea Zu ez zara hilko, printzesa. Bihar, lorategi honetan, beste larrosa bat moztuko duzu zure bufoiarentzat, eta honek bere urrezko kriskitinen musika alaienez agurtuko zaitu.

Printzesa Nahiz eta lurpean egon, uste dut entzungo ditudala. Zein soinu miragarria duten zure kriskitinek! (*Micomicon erregearen erresumako mila urteko baso batean, printzesa bakarrik geratzen da, urretxindorren habia eta abestiz betetako zuhaitz baten ondoan eserita*)

Printzesa Errege eta erreginak! Munstroaren haserreari ni bezala sakrifikatutako printzesa zuriak! Lagun nazazue, hiltzen jakin dezadan! (*Arkaingeru bat bezala, armadura distiratsu batekin, Verdemar printzea agertzen da*)

Printzea Nire ametsetako printzesa, zure edertasunarekin maitemindua naiz eta urrutitik nator herensugea garaitzeko.

Printzesa Herensugea garaitezina da, zaldun noblea.

Printzea Diozun bezala balitz, nire aintzarako nahikoa izango litzateke zure defentsan bizia ematea. Hor dago herensugea! (*Zuhaitzen adarrak apurtzen eta txoriak beldurtzen entzuten da herensugearen hegaldia. Zaldiaren eta sugearen heredentzia duen munstroa da, saguzaharraren hegoekin*)

Printzesa Nik ez dut nahi horrelako bizitza noblea galtzea heriotza seguruan. Ihes egin ezazu, paladin eskuzabala.

Printzea Zure patua eta nirea anaiak dira. Bat izan dadila gure zoria, eta orain zeruan jaiotzen den izarrak, gure zorigaitza ala gure zoriona ikus dezala.

(Verdemar printzeak borrokatzen du herensugearen aurka. Herensugearen ahoak zazpi hortz ilada erakusten ditu. Momentu batean paladinak ezin du gehiago. Baina maitasunak adore ematen dio, eta esku biek ezpata hartuta, zeinek eguzki izpi bat dirudien, herensugea hiltzen du)

Printzesa Nor zara, diamantezko ezpata duzun hori? Zure bizitza nirea da, gerlari adoretu. Eraman nazazu nire aitaren gortera eta nire erresuma zurea izango da.

Printzea Bakarrik hiriko ateraino eramán zaitzaket.

Printzesa Gutxienez zin egidazu beste behin ikusiko zaitudala.

Printzea Zin dagizut.
(Elkarrengandik urruntzen dira eta bata bestearen begietan bilatzen dute bidea. Horrela, itzalez betetako basoan sartzen doaz. Urretxindorrek beraien habietan abesten dute. Artzain bat abesten pasatzen da)

Herensugea hiltzen duena,
printzesarekin ezkonduko da!
Sugea hiltzen duena,
Micomicon erresuman egongo da!

(Jauregiko lorategian. Printzesa gondola batean dago. Dukesa berarekin dago. Marmolezko harmailan lehorreratzen dira. Bufoiz jantzita, Verdemar printzeak agurtzen ditu, artazi bat eginez)

Printzesa Garaiz heltzen zara ni dibertitzeko.

Printzea Goibel zaude, ene andere? Zeren penak dituzu?

Printzesa Ez daukat penarik. Bakarrik oroitzapenak, eta ahaztu nahi ditut.

Printzea Ahaztu duzu nola eman zenidan larrosa hau?

Printzesa Egia da. Zu izan zinen nire bihotzean itxaropena piztu zuen bakarra, ez nintzela herensugearen biktima izango segurtatuz. Nola zenekien?

- Printzea** Txiribita bati galdetu nion, hostokatuz.
- Printzesa** Eta ez diozu galdetu egunen batean nire lorategira itzuliko den?
- Printzea** Galdetu diot.
- Printzesa** Eta zer esan du loreak?
- Printzea** Itzuliko dela. (*Micomicon erregea katazurizko mantua, koroa eta zetroa jarrita agertzen da. Bere atzetik, gortesauak doaz*)
- Erregea** Ene alaba, Lore Zuri, zure nahia bete da. Mezulari batek iragarri dit herensugea garaitu zuen zalduna datorrela. Turuta horren soinua entzuten duzu? (*Espandian suharra agertzen da. Sudurpekoen gida eder eta okerrek ia belarriak ikutzen dizkiote. Bere kapelaren hego azpitik, bere begietako batekin begirada ikaragarriak zuzentzen ditu, bestea txapla-ta batez estalita baitauka*)
- Espandian suharra** Erregearen alaba, emaizkidazu eskuak, mun emateko.
- Printzesa** Bizitza zor diodan paladin adoretsua, non da?
- Esp. suharra** Ni naiz paladin hori. Ez nauzu ezagutzen, une haietan malkoek itsutzen zintuztelako. Begietan amaraunak izango bazenitu bezala zen.
- Printzesa** Hura zaldun ederra zen!
- Esp. suharra** Ez naiz ni ederra zuretzat?
- Printzesa** Zu iruzurti bat zara! Ene aita, zeha dezaten agin ezazu.
- Erregea** Zer froga duzu herensugea hil zuena zu zarela jakiteko?
- Esp. suharra** Munstroaren burua. (*Lau bidelapur aurkezten dira, andetan dakartela herensugearen burua. Ikusterakoan, dama ba-*

tzuk begiak estaltzen dituzte eta esku artetik begiratzen dute)

- Erregea** Ene alaba, ez dago zalantzarik. Nik neure hitza eman nuen herensugea hiltzen zuenarekin ezkonduko zinela.
- Printzesa** Oi! Ni zoratu egingo naiz! Zergatik ez nintzez basoan hil? Ene aita, hilko naiz, ez baitut maite. Gainera bihotzak iruzurti bat dela diost.
- Printzea** Errege, agin ezazu harakin bat, zirujau bat, hiltzaile bat edo buru asko moztu duen jeneral bat etor dadin.
- Erregea** Datorrela Fierabras jeneral heroikoa.
(Fierabras jeneral heroikoa etortzen da lorategiko hondotik. Adineko burusoila da. Sudurraren punta tantaka du)
- Printzea** Zuk, erresumako heroia zaren horrek, buru asko moztuko zenuen?
- Fierabras** Ez, ene seme!
- Printzea** Fierabras deitzen dizute!
- Fierabras** Nire emazteak jarri zidan izena, etxean oso jenio txarra nuelako.
- Printzea** Nik galdetu nahi nizun ea inoiz mingainik gabeko bururik moztu duzun.
- Fierabras** Buru guztiek dute mingaina.
- Printzea** Ba buru honek ez du mingainik.
- Erregea** Ahutzak zabalduizkiozue. A! Ez du mingainik!
- Printzea** Baina izan zuen. Ikus ezazue hemen.
- Erregea** Zer esan nahi du?
- Printzea** Ni naizela herensugea hil duena.

Printzesa Horregatik zorutzen zuen zure ahotsak nire belarria eta zure begiradak nire bihotza tauparazten! Orain ezagutzen zaitut!

Erregea Ene alaba, gizon horren emaztea izan zintezke, baina ezin zara bufoi baten emaztea izan. Bufoi bat ezin da erregetza baten enborra izan.

Printzea Baina printze bat, bai. Ni Verdemar naiz, zure lagun Mangucian erregearen semea.

Erregea Oi, Verdemar printzea! Zu izango zara erresuma honetako erregea!

Printzea Printzesa, ene anderea, zure bufoiarekin zorretan zaude. Larrosa bat zor didazu.

Printzesa Nire lorategiko larrosa guztiak emango dizkizut.

Printzea Eta zure eskuetako liliak, mun emateko.

Esp. suharra Printzesa, nik herensugea garaitu nahi nuen. Baina zoriak bestela erabaki zuen eta berandu heldu nintzen.

Printzesa Barkaiozu, ene aita!

Erregea Nire alabak eskatzen didanez, barkatzen dizut bizitza. Baina astingailuen pena sofrituko duzu.

*(Micomicon erregearen jauregia. Arku guztietatik ezkontzako segizioa agertzen da. Errege-erreginak mantu eta koroekin. Atzetik, jarraigoa. Mangucian erregea Micomicon erregearen eskumaldean jartzen da. Verdemar printzea eta printzesa, eskutik helduta, belaunikatzera doaz erregeen aurreko alde-
ra. Beraien ahotsak elkartuta entzuten dira)*

Biak Bedeinka gaitzazue!

Erregeak Zeruak ere bedeinka zaitzatela, gure dinastiak zabal ditzazuen gizaldi eta gizaldietan.

Gonbidatu guztiak Amen!

ITSASOAN GALDUAK

Joxe Martin Urrutia
8. mailako ikasleek antzeztua
Abenturak
Kurutziaga ikastola
Durango
1992-93

GAIA

Gobernuak gazte talde bat gerrarik ez dagoen toki batera eramatea erabaki du. Zoritxarrez, zihoazen untzia hondoratu egin da, ekaitz beldurgarri baten ondorioz. Hala ere taldetxo bat salbatu egiten da eta hamaika egoerari aurre egin behar izango dio.

PERTSONALIAK

Liburu saltzailea	Maribi
Egunkari saltzailea	Txomin (agurea)
Agurea	Poseidon
Karmelo	Neska
Zuriñe	Mutila
Asier	Kontea
Jose Ramon	

(Butaka artean edo jende artean egunkari saltzaile bat sartzen da)

Egunkari saltzailea

Goizeko egunkaria!... Goizeko egunkaria!... Goizeko egunkaria! Albiste fresko-freskoak, hain freskoak dira letrak, salto egiten dute esaldietatik!

Albiste fresko-freskoak! Bost pezetagatik munduan suertatu diren berri guztiakin enteratuta egongo zara. Barruko orrietan orain dela bi urte hondoratu zen «Polifemo» unziaren historia kontatzen da. Gerratik ihesi zihoazen neskamutilen historia kontatzen da. Milaka aldiz egin dituzuen galderak erantzuna izango dute. Albiste fresko-freskoak! Hain freskoak dira, letrek salto egiten dute esaldietatik! Bost pezetagatik jabetzen ahal zarete historia harrigarri honekin. *(Publiko artean egunkariak banatzen hasten da)*

Eskerrik asko, jauna! Mila esker! Nola ez!...

(Ia guztiak eskuetatik kentzen dizkiote. Egunkari saltzaileak egunkariak banatzen dituen bitartean, liburu saltzailea bere produktuen propaganda egiten hasten da)

**Liburu
saltzailea**

Olerkiak, nobelak, prezio onean!!! Olerkiak, nobelak, prezio onean!!! Eros itzazu eta altxorrik preziatuena eraman-go duzu etxera!!! Zure etxeko butakan, itsaso zabalak, basamortuak, oihanak ezagutuko dituzu, prezio harri-garran. Bi erosten badituzu, gutxiago kobratuko dizut; ez zaitetz lotsatu eta eraman itzazu altxor preziatu hauek etxera. Olerkiak, nobelak, prezio onean!!! Olerkiak, nobelak, modu onean!!!

(Eszenatoki aurrean elkartzen dira bi saltzaileak. Lehenak dena saldu du; bigarrenak, aldiz, ezertxo ere ez)

Lib. saltzailea Pozik ikusten haut!

Eg. saltzailea Nik hi burumakur!

Lib. saltzailea Ez duk gutxiagorako, bi aste zeramatzat liburu bat saldu gabe. Hiri, aldiz, eskutik kentzen dizkiate egunkariak.

Eg. saltzailea Egia duk, baina ez ezak pentsa eguneroko kontua denik. Gaur egun espeziala duk. Erraz saldu ditiat «Polifemo» untziaren historia kontatzen delako. Bestela, jai.

Lib. saltzailea Kontxo!!! Historia horrekin nik ere bai! Dena dela, argi zegok morboa duten historiak errazago saltzen direla.

Eg. saltzailea Egia esan, historia honek morbo gutxi dik, baina jendeak hori ez dakienez, ba erosi egiten dik.

Lib. saltzailea Klaro! Jendeak batak besteari belarriak jan dizkioten jakin nahi dik. Eta... ez zian horrela izan?

Eg. saltzailea Ke ba! Hik ere historia jakin nahi duk.

Lib. saltzailea Noski!!!

Eg. saltzailea Ba etorri hadi nirekin hor alboan dagoen antzokira, Durangoko neska-mutilek antzezten baitute.

Lib. saltzailea Ongi zegok, baina nik ez diat dirurik sarrera ordaintzeko.

Eg. saltzailea Lasai, zuzendaria nire laguna duk eta sarrera batzuk eman zizkidak.

(Agure zahar bat sartzen da eszenatokian marmarioka. Eskuan liburua darama. Eszenatoki aurrean jartzen da, lanpararantz eta siloi handi baterantz hurbilduz. Atzean ortzea soma daiteke)

Agurea

(Atzera begiratzuz) Kaguen la letxe! Etxe honetan ezin da lasai irakurri! Etxera sartu orduko telebista aurrean jarri eta lelokeria bat bestearen atzean ikusi, lelotu arte. Ez dago denborarik batak besteari ipuinak kontatzeko; makina hori martxan ez bada ipintzen, beste bat atera poltsikotik eta jo ta ke botoiei sakatzen. Begiak okertuko zaizkie egunen batean eta pake santua.

(Butaka handian jartzen da eta alboan duen lanpara pizten du. Esku artean duen liburua zabaldu eta irakurtzen hasten da. Jendea aurrera eta atzera paseoan. Batzuk lanera; beste batzuk, aldiz, jolasean edota umeekin bueltatxo bat ematen. Euren artean betiko gauzak gertatzen dira: baloiarekin norbait jo eta hau haserretu; umea lehen aldiz ikusten duen lagun batekin topo egin eta horrelako gauzak. Pakea eta egunerokotasuna ageri da eszenan. Baina tutu hotsak entzuztean, jendea asaldaturik korrika hasten da babes bila, umeak izan ezik. Ondo aprobetxatu nahi dute futboleko jolas egiteko duten aukera bakarra. Ortzean abioiak agertzen dira eta bonbak botatzen dituzte euren gainera; eztaizkandak entzuten dira han-hemenka. Bitartean umeek euren jolasekin jarraitzen dute. Presaren presaz kotxea ahaztuta utzi duen ama bere bila bueltatzen da eta pertsona nagusi batek, harrituta, mutiko biei belarritik ebatu eta toki ziur batera eramaten ditu)

Mila bederatziehun eta ez dakit zer urte, eta gutxiago oraindik zer hilabete eta egun... Aspaldidanik ezin gara kalera irten eta, irteten garenean, zulo handi batzuetan

sartzen gara, eztanda handiak isildu arte. Bertan dugu lagunak ikusteko aukera bakarra eta, jolaserako keinu bat egiten dugunean, beti dago norbait belarrietatik ebatzeko prest. Kaka zaharra!!! Batzuetan beldurra dut, baina jolaserako gogoia ere bai. Nagusien begi zorrotz horiek ikusten ditudanean, ordea, joan egiten zait. Gauero eskatzen dut hau aldatzea eta lehengo bizimodura bueltatzea, baina ez dago modurik, egunak joan eta egunak etorri, berdin jarraitzen du.

(Bietatik bat etxean agertzen da, abioien erasoak bukatu denean. Ama sukaldean dago platerak garbitzen eta zerbait esaten dio. Umeak pozaren pozez baloia goraka botatzen du. Amak trapua aurpegira hurbiltzen du begietako malkoak sikatzeke asmoz. Umea nahasturik uzten du. Ama desagertzen da eta umea eszenatokian etzaten da; gero, jaiki eta leihotik begira gelditzen da)

Gaur goizean ama negarrez sartu da eskaratzean eta maletak egin behar ditudala esan dit. A zer nolako poza, bagoaz hemendik, esan diot nik, eta berak neu bakarrik noala erantzun. Nahastuta utzi nau, baina joateko gogoak beste galderei bidea itxi die eta maleta prestatzen hasi naiz. Afaltzeko orduan denak daude... eta nik ez dakit, triste edo pozik... ez dakit, ez dakit... Isilean afaldu dugu. Zarata guztiak primeran entzun dira. Nik, isiltasuna apurtzeagatik, nora noan galdetu dut eta, itsasoz beste aldera, gerrarik ez dagoen toki batera, erantzun didate. Uauuu!!! Itsasoz beste aldera, gerrarik ez dagoen toki batera, errepikatu dut nire barnean. Poztu egin naiz, baina mahaietan daudenei ez zaizkie aurpegiak alaitu. Ohera joan naiz, bihar goiz jaiki behar dut eta. Sartu baino lehen, kalera begira gelditu naiz, ilunpean. Ez da polita, baina zerbait sentitu dut estomagoan azkenengo aldiz begiratzerakoan. Ezin izan dut lorik egin, gauza pila bat ibili ditut buruan bueltaka eta ama sukaldean sentitu dut gau guztian. Ama nire gelara sartu baino lehen sukaldean azaldu naiz. Zerbait gosaldu eta prest nago bidaiari hasteko. Denak sukaldean azaldu dira, inoiz ez bezala agurtu dugu elkar eta negarrari ezin izan diot eutsi.

(Ama maleta eskuan sartzen da eta, umeari eskutik gogor ebaturik, eszenatokitik desagertzen da. Alde batetik desagertzen da)

tzerakoan, beste ama bat azaltzen da eszenan ume batekin eta horrela bikote bat, eta gero bestea. Denak eszenan gel-dirik daude une batean, publikoari sorbalda emanaz. Poliki-poliki ume bakoitza amaren eskutik sartzen da eta eszenatokian dagoen eskilara batetik igo eta desagertu egiten da. Azkena desagertzean, barkuaren txistua entzungo da eta emakumeak zapi zuriak aterako dituzte, barkua agurtuz)

Amak gogor hartu nau eskutik eta porturantz abiatu gara. Bertan, ni bezalako neska-mutil pila bat dago euren amen eskuei gogor ebatuta. Aurrean, itsasontzi handi bat. Denok urduri gaude eta batak besteari begiratzen diogu zer-bait bilatzen arituko bagina bezala. Untziko tximinietatik kea irteten hasi denean, kaja batzuen gainean dagoen emakume batek izenak oihukatzen ditu. Poliki-poliki neska-mutilak arrapala batetik untzian sartzen dira. Amak eta biok elkar besarkatu dugu, ia saihetsak apurtu dizkit. Handik gutxira denok gaude barruan eta, txistu handi bat entzun ondoren, itsasontzia mugitzen hasten da. Behean, eskuek haizeari eragiten diote. Portua zuriz estalirik ikusten dugu eta ahalegin handiak egiten ditugu gure begiak euren zuloetatik irten ez daitezen. Handik gutxira puntu txiki-txiki bat ikusten dugu gure atzean. Kosta egiten zaigu aurrera begiratzea, mantxa urdin handi horretara, baina barkua ezagutzeko gogoa sartu zaigu eta bertako marinelak mareatzen hasi gara.

(Argia, poliki-poliki, zaharrarengandik aldentzen da eta eszenatokia osotara hartzen du. Bertan zerua eta itsaso zati bat ikusten dira. Barku baten txistua eta itsasoaren zarata entzuten da; urrunean ikusten da untzia)

Barkuko zirrikitu guztietan nire adineko neska-mutilak daude. Ez dakit zein legeri jarraituz, taldeak egin dira eta denbora ahal duten moduan pasatzen dute. Ni oraindik barandilari ebatuta nago, mantxa urdinari begira, hodei ertzak aztertzen. Harrigarria da nolako formak hartzen dituzten eta nola aldatzen diren kolorez. Noizbehinka norbait hurbiltzen zait, baina ez diot jaramon handirik egiten. Liluraturik jarraitzen dut hodeien kolore eta formekin. Gaur goizekoak, adibidez, txuri-txuriak ziren, portuko zapiak bezalakoak eta, eguna aurrera joan ahala, beltz bilakatzen joan dira, gure auzoko tunelen antzeko

tunelen antzeko kolorea hartuz. Itsasoak ere, bekaiztuta edo, kolorea aldatu egin du goizetik hona. Lehen urdinberde kolore argitsua zuen, orain berde ilun bihurtu da. Goizean lasai ibili diren marinel horiek presaka mugitzen dira gainaldetik, solte dauden gauza guztiak ongi lotuz. Barkua eta itsasoa lehia bizian jarri dira, nor gehiago mugitu. Guk, «Montaña Rusa» batean bagenbiltza bezala, pozez hartzen ditugu barkuaren mugimenduak. Baina lehenengo tximistak eta trumoiak entzun ondoren, barreak isilune handi bilakatu dira. Altabozetatik aginduak ematen dizkigute, auzoan abioiak azaltzen zirenean bezala. Ohitura hau ongi ikasita genuenez, denok berehala bete ditugu aginduak. Marinel handi batek lasai egoteko esan digu, untxi honekin zazpi itsasoak gurutzatu dituela eta. Denok bere gorputz-beso sendoei begiratzen diegu, beraiekin milaka ekaitz baretu dituela pentsatuz. Bere lasaitasunak gehienok lasaitu gaitu.

(Eszenatokian untxiaren eta itsasoaren arteko borroka bortitza azaltzen da. Norgehiagoka hau dramatikoa izan arren, plastizitatez beteta dago. Mutilak alde dramatikoa azpimarratuko du eta irudiak plastikoa. Borroka honetan itsasoa ateratzen da garaile eta untxia hondoratu egiten da. Hau gertatu ahala, isiltasuna nagusitzen da eszenatokian —itsasoan— eta, poliki-poliki, urrunetik itsaso zaratak nagusitzen dira eta Txomin Kabreja agurearen ahotsak egoera kokatzen du. Hau gertatzen ari dela, eszenatokiko eskuma aldetik almadia edo baltsa bat agertzen da emeki-emeki, bertan daudenak lo)

Txomin

(agurea)

Marinelaren besoek ezin izan dute ekaitza baretu eta zazpi itsasoak gurutzatu dituen untxia itsas hondoan dago, olagarroen eta itsasoko beste animalien egoitza berri. Almadian gaudenok gaua amets gaizto bat bezala gogoratzen dugu eta ezin izango genuke kontatu nola gertatu den. Ura, oihuak, burni zaratak, aginduak... buruan nahaspilatzen zaizkigu. Lo, lo egin nahi dugu, egun berri bat etor dadin.

(Piskanaka eguzkiaren izpiak, banan-banan, bizkarrean jotzen hasten zaizkie. Lehenengo, Txomini, gero Jose Ramo-

ni, Maribiri... eta beste guztiak ere esnatu egiten dira. Batak besteari begiratzeko diote, harrizta; gero ingurura begiratzeko dute eta dena urdin, handi eta era batean ulertezina egiten zaie. Horrelako egoeretan beti dago norbait hitz egiteko prest)

Karmelo *(Bere itxura apaintzen du hitz egiten hasi baino lehen)* Argi dago ez gaudela egoera onean, baina behintzat salbatu egin gara! Egun batzuk elkarrekin pasatu behar ditugunez, onena aurkezpenak egitea izango da. Beno, eta neu hasi naizenez berbetan... Karmelo Mendieta naiz. Hamalau urte ditut eta Bilbotarra naiz.

Zuriñe Ni Zuriñe Arana, Leioarra, eta 13 urte ditut.

Asier Ni Asier Gonzalez naiz, Gallartakoa, eta 12 urte ditut, amak ez banau engainatu.

Jose Ramon Jose Ramon dut izena, Mutrikuarra naiz eta hamabost urte ditut.

Maribi Maribi Juaristi dut izena, Bermiotarra naiz eta 14 urte ditut.
(Txomini aurkezpena egitea tokatzen zaionean, hodei ertzei begira dago)

Karmelo E!!! Hodeiei begira dagoena! Zure txanda da!

Txomin E... nire... e, ba, ni... Txomin Kabreja naiz, Durangarra, eta hamalau urte ditut.

Karmelo Beno, geure burua aurkeztu ondoren, taldeburu nor izango den erabakitzea izango da bidezkoena, gure artean ondo konpontzeko.

Maribi Nola egingo dugu hori ez badugu elkar ezagutzen? Zu ez zaude ondo burutik!

Karmelo Ez zaizu arrazoirik falta; beno, bakoitzak egiten dakiena erakuts dezala eta horren arabera erabakiko dugu jefea zein den.

- Asier** La letxe! Egoera honetan ez dakit hori ote den lehenengo konpondu beharreko gauza. Ni, bestalde, nazkatuta nago aginduak entzuten. Hemen nahi duguna egin dezakegu eta nire lehen gogoia jeferik ez edukitzea da.
- Zuriñe** Ni egon naizen tokietan beti egon da agintea duen norbait. Eskolan maisu-maistrak, kalean poliziak, etxean gurasoak...
- Maribi** Bai, arrazoia duzu, neska! Baina hemen ez dago eskolarik, ez kalerik, ez eta etxerik ere, itsaso urdin eta zabala baizik.
- Txomin** *(Lainoetatik jaitsiko balitz bezala)* Nik uste dut inork nabegazioaz ezer ba ote dakien galdetzea dela zuzenena. *(Denak harrituta begiratzeko diote).*
- Asier** Kontxo, badirudi norbaitek ideak garbi dituela; benetan poztekoa da.
- Karmelo** Berrero ere txandaka hasteko, nik aitortu behar dut ez dakidala ezertxo ere.
- Maribi** Ez dago hainbeste txanda egin beharrik; inork ezer jakitekotan, Jose Ramonek jakin behar du. Gainera, oraindik ez du ahoa zabaldu.
- Jose Ramon** Jakin, jakin... zerbait badakit.
- Karmelo** Beno, egoera honetan, ba eskola historialik onena duenak, edota horrelako zerbait, izan beharko luke taldeburu, nik uste.
- Zuriñe** Ongi iruditzen zait, horrela jakingo dugu gure artean nor den argiena.
- Asier** Beno, beno! Bi hauek burutik jota daude. Nork esaten digu matematiketan bikain denak hemendik aterako gaituela?
- Maribi** Nire auzoko neska batzuk eskolara joaten dira eta gero sardinak garbitzeko ere ez dira kapaz.

- Txomin** Nire ustez gauzak korapilatzen ari gara. Gainera, orandik ez dakigu Jose Ramonek zer dakien.
- Jose Ramon** Beno, aitak zerbait erakutsi dit. Izarrak begiratzuz norabidea jakiten, untzia olatuen arabera gidatzen...
- Txomin** Nik uste dut nahikoa dugula aginduak nork eman behar dituen jakiteko.
- Jose Ramon** Neuk aginduak eman?
- Karmelo** Norbaitek eman beharko ditu! (*Aurpegi txarrez*)
- Asier** Ni ez nago ados. Norbaitek traste hau gidatu behar duela... ongi da. Baina erabakiak denon artean hartu beharko genituzke.
(*Denak elkarri begira eta isilune bat*)
- Maribi** (*Adoretsu altxatzen da*) Barkua gidatzeko buru Jose Ramon! Elkarbizitzako kontuak denon artean. Denok ados???
- Denok** Bai!!!
- Maribi** Jose Ramon kapitain!
- Denok** Bai!!!
- Maribi** Erabakiak denon artean!
- Denok** Bai!!!
- Maribi** Untzia zeure eskuetan, kapitaina! (*Jose Ramonek, harri-dura keinuak eginez, espero ez zuen egitekoa hartzen du*)
- Jose Ramon** Marinelak!
- Denok** Bai, kapitaina.
- Jose Ramon** Batzuk telak jostera, bela egiteko!

- Asier eta Maribi** *(Konplizitate keinu bat eginez) Zure esanetara! (Traste artean zerbaiten bila mugitzen dira)*
- Jose Ramon** Norbait mastara, begirale.
- Txomin** Bai, kapitaina!
- Jose Ramon** Gainerakoak jatekoa topatzen saiatuko dira eta euren kargu geldituko da zaintzea.
- Karmelo eta Zuriñe** Bai, kapitaina *(Gogo txarrez)*
- (Almadia gainean izugarrizko mugimendua dago; batzuk alde batean bela josten eta prestatzen, besteak kajetan zer janari dagoen begiratzen eta zenbat egunetarako duten kalkulak egiten. Txomin, mastan, liluratuta dago bere hodeiekin eta txori bat dirudi. Bela prest dagoenean, denak begira gelditzen dira, izugarrizko ikuskizuna ikusi behar balute bezala)*
- Asier** Kapitaina! Bela prest!
- Zuriñe** Janaria pilatuta eta ongi gordeta, kapitaina!
- Maribi** Zure aginduen zain, kapitaina!
- Jose Ramon** Igo belak! Ipar alderantz abiatuko gara. Beste barkuak norabide horri jarraitu behar ziola esan zidan aitak eta harantza joango gara geu ere.
- (Nabegazioa. Bakoitza bere tokian kokatzen da eta ipar alderantz mugitzen dira. Eszenatokiko argia ahultzen doa eta, aldi berean, agurearen tokian indarra hartzen)*
- Agurea** Almadia batean ez dago gauza askorik egiteko. Bakoitzak asmatzen du nola pasa denbora. Batzuei ez egite hori primeran datorkie, nahi duten bezala moldatzen baitira. Makila bati punta atera eta hari batekin kainabera egin, edota hodeien joan-etorriari liluraturik begiratu. Besteak lasai daude baina, egun pare bat pasatu ondoren, euren urduritasuna azaleratzen doakie.

- Karmelo** *(Kapitainari begira)* Beno, argi dago erabaki duzun norabidea ez dela egokiena. Bi egun daramatzagu itsaso honetan eta ez dugu ikusi ez lurrik, ez itsasontzirik, ez eta txanalik. Nire ustez bide okerrean gabiltza eta norabidea aldatu beharko genuke.
- Zuriñe** Arrazoia du. Norabide ona balitz, barku gehiagok egingo zuten bidaia hau eta honez gero ikusi beharko gintuzten.
- Asier** Garbi dago bizimodu gogorra ez dagoela batzuekako egina. Itsasoa, pinpilinpauxok, ez da zuen auzoko piszina.
- Zuriñe** Aspertuta naukazu; bidaia hasi zenetik ez zara garbitzen ez apaintzen eta jaterakoan zarata nazkagarriak egiten dituzu.
- Maribi** Lasai, neska-mutilok, denok elkartuta jarraitu behar dugu hemendik bizirik irtengo badugu.
- Karmelo** Bai, arrazoia duzu, baina norabide honetan jarraitzen badugu, gureak egin du.
- Jose Ramon** Lasai, motel, aitak garbi asko esaten du; itsasoan norabide bati jarraitu behar zaio. Aldatzen hasten bazara, bueltak ematen dituzu, eta orduan bai ez zarela inora iristen.
- Asier** Eta norabideren bati jarraitu behar eta iparrari, hondoratu zen barkuak jarraitzen zuenari, listillo! *(Karmelori begira)*
- Karmelo** *(Amorruz beterik)* Hurbildu zaitez, txerri halakoa, eta listillo hitza letraz letra tragatuko duzu!
- Asier** *(Hurbilduz)* Marrazoetara!!!
- Txomin** Untzi bat baboretik!!!
(Hau entzundakoan denak seko geldi geratzen dira)

- Txomin** Ez da untzia, txalupa baizik!!!
(*Denak baborrerantz begiratzen dute, txalupa bilatu nahian*)
- Txomin** Ez da txalupa!
- Maribi** Zer demontre da ba orduan!
- Karmelo** Ziur betaurrekoak behar dituela.
- Asier** Zabaldu ahoa, akademikoak!!!
(*Berriro ere borrokan hastera doazenean*)
- Txomin** Kutxa bat!!! Kutxa bat da!!!
- Jose Ramon** Hartu arraunak, marinela, eta ekin gogor baborrerantz.
(*Kutxarantz hurbiltzen ari direla*)
- Zuriñe** Ziur dena janariz beteta dagoela!
- Jose Ramon** Behar bada, mapak eta nabegazioko tresnak izango ditu.
- Asier** Edota arrainak harrapatzeko aparejuak eta sareak.
- Karmelo** Akaso bengalak, seinaleak egiteko!
(*Bakoitzak bere nahiak azaltzen ditu, kutxara hurbiltzen diren bitartean. Almadiara altxatzen dute eta izugarritzko misterioarekin zabalduta. Bertan arropak aurkitzen dituzte, baina nahiko bitxiak. Badirudi piraten arropak direla. Arropak ateratzerakoan, bakoitzak hartu eta probatu egiten ditu, lehenengo ilusio handi barik; baina, disfrazaren zatiak ondo kokatu ahala, aurpegiak piztu egiten zaizkie*)
- Asier** Kapitaina! Gizonak azken abordaiako rona eta dirua gatatua dute jokoan eta borrokarako gogo bizian daude.
- Jose Ramon** Ongi da, marinela. (*Kapitaina zubira igotzen da*)
- Jose Ramon** Marinela beldurgabeak!

- Denak** Bai, kapitaina!!!
- Jose Ramon** Borrokarako ordua heldu da!!!
- Denak** Ongi !!! Bazen garaia, aspertzen hasia nintzen!!! Galeoi gose naiz!!!
- Jose Ramon** Ixo! Marinel trebeak!!!
- Maribi** Zein da gure plana, kapitaina?
- Karmelo** Zer izen du untziak?
- Jose Ramon** Isiltzeko esan dut, ahozikin halakoak!!! Plana hau da!
- Zuriñe** Arin, kapitaina, nire ezpata odol egarri da!
- Denak** Grr, eta gureak ere bai!
- Jose Ramon** Isiltzeko!!! Beste inork bere aho zikina zabaltzen badu, marrazoetara botako dut eta bere hezurren bat itsaso gainean gelditzen bada, neuk jango dut!!!
- Denak** Ongi, kapitaina!
- Jose Ramon** Mexikotik orain dela hamabost egun irten zen itsaso gainean inoiz izan den urre kargamenturik handiena, Palosko porturantz. San Felipe galeoia da eta hori izango da gure hurrengo untzia.
- Denak** Ongi, kapitaina!
- Asier** Ezpatak abordaia egiteko prest ditugu!
- Karmelo** Baina, kapitaina! Nola egingo dugu abordaia? San Felipe itsaso gainean dagoen galeoirik handiena bada eta gure untzia haren erdia ozta-ozta?
- Jose Ramon** Galdera zuzena, marinela. Hamar egun daramatzagu bere atzetik eta laister egongo gara bere muturren aurrean.

- Zuriñe** Baina, aurrez aurre erasotzen badugu, ez dugu ezer egitekunik, kapitaina!
- Denak** Hori! Hori! Txorakeria da, horrela ez dugu aukerarik...
- Jose Ramon** Ixo! Lasai zaitetze, ez naiz ero bat eta ez dut asmorik aurrez aurre erasotzeko. Eguzkia sartzen hasten denean eta berari begiratzea ezinezkoa denean, eguzkia dagoen aldean kokatuko gara, ezin izango gaituzte ongi ikusi eta, eurak konturatu orduko hain hurbil egongo gara, ezin izango dituzte kainoiak erabili eta guk, aldiz...
- Denak** Ongi, kapitaina!!!
- Jose Ramon** Ez dakizue horrelako borroketan piratak garela marinel trebeenak?
- Asier** Denok borrokarako prest!
- Karmelo** Galeoi espainiarra abordatzeko prest!!!
- Maribi** Zure aginduen zain, kapitaina!!!
- Jose Ramon** Horrela gustatzen zait, marinelok, baina orain presta itazue abordaiarako behar diren gauzak eta erne eta isilik zeuen tokietan.
- Txomin** Kapitaina!!!
- Jose Ramon** Bai, begirale?
- Txomin** Galeoi espainiar bat gure muturren aurrean!
- Jose Ramon** Ongi da! Bakoitza bere tokian abordaia egiteko prest. Denok batera nire agindua entzun ondoren.
(*Isilune bat egiten da eta...*)
- Jose Ramon** Orain!!! Denok batera!!! (*Almadian, binaka, hil ala biziko borroka batean hasten dira. Borroka luzatu egiten da, galeoia euren eskuetan eduki arte.*)

- Asier** Kapitaina! Galeoia gure eskuetan dago!
- Zuriñe** Altxorra lortu dugu eta benetan diot inoiz ez dudala ikusi hainbeste urre nire bizitza osoan!!!
- Maribi** Kapitaina!!! Hornidurak ez ditugu inondik inora ikusi.
- Karmelo** Hornidura???
- Asier** Bai, papeoa???
- Maribi** Badirudi gu ikusterakoan kareletik bota dituztela!!!
- Jose Ramon** Kaka zaharra!!!
- Karmelo** *(Burutik zapia kenduz)* Ba hola jarraitzen badugu, ez dugu asko iraungo.
- Asier** Lasai mutilak, nire kainaberarekin behar adina arrain harrapatuko ditut.
- Denok** Ba, isil zaitez!!!
- Maribi** Benetan penagarria da, ze izugarrizko gosea dut.
- Zuriñe** Bana dezagun hornidura, ni ere gose naiz.
(Denak borobil bat eginez jartzen dira eta duten janari apurra banatzen dute. Gaua gainean dute eta piskanaka lokartzen joaten dira. Eszenatokiko argia apaldu egiten da eta agurearengan indartu)
- Agurea** Ahal bezala pasatzen dugu denbora, baina sabela oihuka hasten denean, ez dago nola isilarazi. Kapitainaren ahotza edo mehatxuak ere ez dira kapaz marinel bihurria isilarazteko. Hornidura bukatzen ari da eta hala edo hola partitzen dugu daukaguna. Gauean, eskua sabelean, izugarrizko banketeekin egiten dugu amets, eta beste gauza batzuekin...
(Argia agurearen tokian apaldu egiten da eta eszenatokia argitzen doa. Denak lokartuta daude eta urrunean zaratak entzuten dira. Poliki-poliki, txalupa bat agertzen da eszena-

tokian. Arraunean, marinel itxura duen bat. Almadiara hurbiltzen denean, izen bat oihukatzen hasten da)

- Poseidon** Karmelo! Karmelo! Esna zaitez, hemen nago!!!
- Karmelo** E? Zer gertatzen da? Nondik irten zara ? Nor zara zu?
- Poseidon** Lasai, motel, erantzungo ditut zure galderak. Poseidon naiz, itsasoaren jainkoa, eta neure etxetik nator.
- Karmelo** Poseidon!!! (*Harrituta*) Baina zu ez zara ba ibiltzen izurde baten gainean eta sardeska eskuan?
- Poseidon** Egia da, horrela imajinatzen naute, baina ikusten duzunez, nahiko tipo normala naiz. Beno, Karmelo, esaidazu zer nahi duzun, ez baitut gau guztia zuri begira egoteko.
- Karmelo** Zer nahi dudan? (*Aurpegia alaitu egiten zaio*)
- Poseidon** Bai, motel! Zertarako uste duzu nagoela ni hemen? Gainera, zeu egon zara gau guztia niri deika.
- Karmelo** Ba ez dut gogoratzen. Baina hemen zaudenez, sinestu egin beharko dizut.
- Poseidon** Ea motel, bota! Itsasoa zabala da eta lan handia dut gaur gauean.
- Karmelo** Lehenengo, lehorrera bueltatu nahi nuke! Hori! Lehenbailehen!!!
- Poseidon** Lasai, nik ezin ditut gauzak aldatu, bakarrik lagundu egin dezaket egoeretatik irteten. Ez naiz magoa.
(*Dezepzioa somatzen da Karmeloren aurpegian*)
- Karmelo** Beno, orduan, norabide zuzenean gabiltzan jakin nahi nuke.
- Poseidon** Zuzen zabilzate, ipar alderantz lurra dago, arinago untziren batekin topo egiten ez baduzue.

- Karmelo** Aizu, Poseidon! Benetan ez duzu ez izurde eta ez sardeskarik?
- Poseidon** Ez!!!
- Karmelo** Ba makaleko piura daukazu itsasoaren jainkoa izateko.
- Poseidon** Utz itzazu lelokeriak eta jarraitu galderekin, bestela banoa. (*Arraunean hasteko keinua egiten du*)
- Karmelo** Itxoin! Badut beste bat! Hornidura eta ura amaitzen ari zaigu eta horrela ezin izango dugu luzaz iraun.
- Poseidon** Arrain poltsa handi baten gainean zaudete, aprobeitza ezazue.
- Karmelo** Baina esaidazu trukotxoren bat; Asier hor ibiltzen da bere kainaberarekin, baina ez du ezertxo ere harrapatzen.
- Poseidon** Erabil dezala zerbait distiratsua. Itsasalde honetako arrainek ez dakite trukotxo hau eta ongi aterako zaizue.
- Karmelo** Eta ura?
- Poseidon** Bihar egun osoan euria edukiko duzue, atera ontzi guztiak eta bete. Besterik?
- Karmelo** Ez zait bururatzen.
- Poseidon** Beno, orduan agur eta zorte ona izan!!!
(*Poseidon arraunean hasten da, almadiatik urrunduz*)
- Karmelo** (*Lokartu baino lehen*) Nik buruan dudan Poseidon izurde baten gainean ibiltzen da, koroe-sardeskekin eta arrain gorte batez inguraturik. Eta hona hemen, txalupa batean, marinel arrunt baten itxuran.
(*Aho zabalka hasten da eta lokartu egiten da berriro ere. Dena lasai dago eta zurrunkak entzuten dira soilik itsaso zabalean. Gero, zurrunkak zaldien arrapaladekin nahasten*)

dira eta, poliki-poliki, gero eta arrapalada gutxiago entzuten dira. Asierrek entzun egiten ditu eta esnatu egiten da. Hasieran ezin du ulertu zer diren zarata horiek. Laguntza bila, Zuriñe esnatzen du)

Asier Zuriñe! Zuriñe!

Zuriñe E? Zer gertatzen da?

Asier Nik entzuten dudana, entzuten duzu zuk ere?

(Zuriñe adi gelditzen da eta baietz esaten du buruarekin)

Asier Zaldien arrapaladak dira, ez da?

Zuriñe Bai, egia !!!

(Momentu horretan bi neska-mutil gazte sartzen dira eszenatokian, eskutik ebatu-rik. Korrika etorri dira eta arnas estuka daude. Mutilak eskuan ezpata darama eta biok atzeraka begiratzen dute, beldurrez)

Zuriñe Itsas gainean dabilta! Ez da posible!

Mutila Hemen ez gaitu aurkituko *(Ingurura begiratu-z)*

Neska Ez dakit dakizun, baina kontea gizon azkarra da. Ez nago seguru.

Asier *(Zuriñeri)* Badirudi arriskuan daudela.

Neska *(Eszenatokiaren alde batera begira)* Hor dator kontea! Aurkitu gaitu!

Zuriñe E, sar zaitetze almadian eta denok egingo diogu aurre konteari.

Asier Hori, etorri hona! Denok egingo diogu aurre, guk ere baditugu ezpatak eta! *(Baina neska-mutilek ez diete jaramonik egiten. Badirudi ez dutela entzuten)*

Mutila Ipini zaitetz nire atzean, aurre egingo diogu. *(Kontea sartzen da)*

- Kontea** Ja, ja, ja, topatu zaituztet, bikotetxo! Eta aitortu beharko duzue ez duzuela ihesbiderik. Emaidazu neska eta ihes egiten utziko dizut.
- Mutila** *(Atzerapauso bat emanaz)* Pentsatu ere ez! Bera eramán nahi baduzu, borroka egin beharko duzu.
- Neska** Ni ez noa zurekin, basurde!
- Zuriñe** Horrela hitz egiten da.
- Kontea** *(Ezpata ateraz)* Pentsaizu zeure azken deseoá, zureak egin du eta!
- Asier** Aupa mutila, emaiok gogor!
(Biak borrokan hasten dira. Neskak, bigarren plano batean, beldurturik jarraitzen du borroka. Almadian, ikuskizun bateko publikoa balira bezala, mutilaren mugimenduak animatu eta txalotu egiten dituzte)
- Asier** Hori duk, mutil, emaiok gogor asto horri!
- Zuriñe** Hirea duk, animo!
- Asier** Eskumatik, ondo egina!
- Zuriñe** Kontuz! Ongi da!
(Kolpe handi baten ondoren, kontea eta mutila aurrez aurre gelditzen dira euren ezpatei ebatuta. Norgehiagoka izugarria da, alde batera, bestera, bata bestearengandik askatu nahian. Konteak adina, indarra eta gogortasuna ditu bere alde eta espata kentzen dio mutilari. Une larria da benetan, mutila esku hutsik dago eta konteak dena bere alde du borrokari amaiera emateko)
- Kontea** Ja, ja, ja! Aitortu behar dut azkarra zarela espata erabiltzen eta denborarekin erreinuko zaldunik trebeena izango zinatekeela, baina okerreko bidea aukeratu duzu.
- Neska** Ez ezazu hil, zurekin joango naiz!!!*(Mutila burumakur)*

- Kontea** Beranduegi, laztantxo!!!
- Zuriñe** *(Zeharo urduri)* Hartu ezpata, neska, eta ez ezazu hiltzen utzi!
- Asier** Hori da! Defenda ezazu!
(Tentsio une handia dago. Konteak mutila aurrean du, ezpata hotzaren ziztada itxaroten eta neska bere bizitza salbatu nahian. Neskak, Zuriñeri entzun balio bezala, mutilaren ezpata lurretik altxatzen du eta kontea erasotu. Kontea defendatu egiten da eta harriduraz hartzen du lehenengo kolpea; bigarrenean, bere abantaila edo lasaitasuna erakutsi nahian...)
- Kontea** Ja, ja, ja! Horrelako neskatilak gustatzen zaizkit niri.
- Zuriñe** Oso ondo, kendu erditik, txerri hori!*(Neskak denok espero zuten baino hobeto erabiltzen du ezpata eta inguruan duen jendearen indarra bere besoetan pilatu balitz bezala, kontea baztertzen ari da...)*
- Neska** Basurde nazkagarria! *(Zas!)* Ahozikina! *(Zas!)* Inozo arraioa! *(Zas!)* Harroa! *(Zas!)* Buruhandia! *(Zas! Eta kolpeak behar den tokian emanaz, konteari ezpata esku artetik kentzen dio eta hil egiten du. Mutilak, hurbildu eta besarkatu egiten du. Asier eta Zuriñek berdin egiten dute)*
- Mutila** Ken dezagun zerri honen gorpua erditik. Eta goazen hemendik azkar. Kontearen soldaduak ez dira urrin ibiliko eta.
- Neska** Hala da, goazen hemendik!
- Zuriñe** Agur!!!
- Asier** Kontuz ibili!!! *(Neska-mutilek konteari hanketatik heldu eta eszenatokitik ateratzen dute. Bitartean almadian...)*
- Asier** Benetan, emozioek nekatuta uzten naute. Eta zu, Zuriñe?
(Panorama ikusita, berak ere lotarako bidea hartzen du. Almadian zurrunkak eta itsasoaren zaratak dira nagusi.

Egunarekin batera, trumoiak eta tximistak agertzen dira, Poseidonek esan bezala. Lehenengo tantek Txomin esnatzen dute)

Txomin Kapitaina! Kapitaina! *(Ez dio jaramonik egiten)* Jose Ramon! Jose Ramon!

Jose Ramon E? Zer gertatzen da, Txomin?

Txomin Ekaitza gainean dugu.

Jose Ramon Marinelak, gora ipurdi horiek, ekaitza gainean dugu eta almadia gobernatu behar da.
(Jendea poliki-poliki altzatzen doa)

Jose Ramon Ongi lotu gauza guztiak, eta zeuek ere lotu zaitezte almadia, olatuek norbait almadiatik kanpora atera dezakete eta! Asier eta Maribi, bildu belak!
(Jendea arin mugitzen da gauzak eta euren gorputzak almadia lotuz. Karmelok, bitartean, guardasol batzuk jartzen ditu mastan gora begira, denak harrizuz)

Txomin Zertan zabilta?

Karmelo Euria batu behar dugu, ez baitugu ia urik edateko!

Txomin Primeran, oso ideia ona.

Asier Bai, badirudi ilustratua izateak zerbaitetarako balio duela.

Karmelo Isildu eta lotu ongi zeure burua! *(Denak prest daude ekaitzari aurre egiteko. Eszenatokian almadia eta gure neska-mutilak, ekaitzari aurre egiten. Argiak, poliki-poliki, agurea-rengana egiten du)*

Agurea Egunak aurrera doaz eta beraiekin gauza mordoa. Ekaitzak, gauetako ametsak, asperraldi handiak... eta inguruan ez da agertzen ez lurrik, ez barkurik. Baina almadian gauza harrigarriak gertatu dira. Denok talde baten moduan funtzionatzen dugu eta lehen mesfidantza eta mes-

pretxua zegoen tokian, adiskidetasuna lortu da. Karmeloren aholkuei esker, ura eta janaria badugu; eskas, baina aguantatzeko beste. Asier eta Zurineren artean harreman bitxi bat sortu da. Jose Ramonen agindu eta aholkuak, behar adinbatekoak izaten dira, ez gehiago, eta lehen marinel lotsatia zena, kapitain dotore bihurtu zaigu. Maribi eta neu, bakoitza bere airera; bera beti gauzak ikasi nahian eta ni beti txoriengandik gertuago eurengandik baino.

(Agureak irakurtzen duen bitartean, nabegazio eszena desberdinak azaltzen dira almadian, gutxi-gorabehera kontatzen dituen gauzen arabera. Eszena hauek flashak izango dira, diapositiba saio baten antzera. Agureak irakurketa saioa bukatzen duenean, berriro akzioa)

Txomin Kapitaina!!!

Jose Ramon Zer berri, marinela!!!

Txomin Urrunean zerbait ikusten dut!!!

Jose Ramon Lurra! *(Denek erne jarraitzen dute elkarrizketa)*

Txomin Ez, ez da lurra, barku bat da. Barku bat.

Denok Barku bat!!!

Txomin Bai, eta keinuak egiten ari dira. Ikusi gaituzte!!!

Denak Salbatuta gaude!!! Lortu dugu!!!

Jose Ramon Marinelak!!!

Denak Bai, kapitaina!

Jose Ramon Barkurantz!!! *(Pozaren pozez arraunak hartzen dituzte eta barkurantz abiatzen dira. Almadia eszenatokia poliki-poliki lagatzen doa eta agurea liburua irakurtzen hasten da)*

Agurea Inoiz ez nuen imajinatu zein pozik sentitu zaitezkeen momentu batzuetan. Gure poza hain da handia, ezin dugu

ia arraunean egin. Barkurantz hurbiltzen garenean, heroiak bagina bezala agurtzen gaituzte, sinestezina! Marinelen komentarioak entzuten ditugu, eta guk, feriako behiak legez, ez dakigu nora begiratu. Hor behean gelditu da almadia eta bertan gure historia, gure mundutxoa. Hemendik aurrera, batek daki nora joango garen! Sukalderantz hurbildu ahala, almadia erabat desagertu zaigu burutik, usain ezagunak sudurretik sartzen zaizkigunean. Ustekabean, gainaldera igo naiz, almadiari azken agurra ematera. Han, urrunean, itsasoaren erdian, piratak, Poseidon, kontea eta neska-mutilak agurka ari dira. Barkuak egiten dituen zaraten artetik, nire izena entzun dut eta buelta emanez sukalderantz abiatzen naiz. Mahaian denak nire zain daude eta zertara joan naizen badakit. Hasierako alaitasuna isilune konplize bihurtu da, baina oilaskoa patatekin mahaira iritsi denean, eztanda egin du eta, berarekin, beste historia bat hasi da.

(Agureak liburua isten du eta aho zabalka hasten da)

De dio! Goizeko ordu biak! Ohera joan beharko dut. Bihar fresko egon behar dut ergel-inozo kuadrila hau aguantatzeko.

ITSUAK

Patxo Landa
7. eta 8. mailetako ikasleek antzeztua
Komedia
Lauro ikastola
Loiu
1993-94

GAIA

Zientzilari jakintsu bat berri-berria den medikamentua frogatzen ari da, itsuek ikusmena berreskura dezaten itxaropenez. Bitartean, itsuak bere ametsak egia bihurtzen saiatzen dira.

PERTSONAIAK

Zientzilaria	Sebas
1. laguntzailea	Casimiro
2. laguntzailea	Rogelio
1. lapurra	Itsuak
2. lapurra	Miren
Mirentxu	Besteak
Erramuna	

1. ESZENA

- Zientzilaria** (*Laborategi txiki batean, laguntzailearekin*) Eureka!
- 1. laguntz.** (*Konkorduna eta tonto itxurarekin*) Zer, doktore?
- 2. laguntz.** (*Atzetik sartuz*) Zer gertatzen zaio, doktore?
- Zientzilaria** Azkenean... azkenean lortu dut! Lortu dut!
- 2. laguntz.** Baina, lortu zer?
- Zientzilaria** Hau, hau! (*Esku artean daukan ontzia seinalatuz*) XX. mendeko asmakizuna! Azken 50 urteetako formularik iraultzaileena.
- 1. laguntz.** Baina, mesedez, doktore jauna... esango al digu behingoz zer den?

- Zientzilaria** Zer? Nire azken 10 urteetako lanaren ondorioa... Itsumenaren kontrako erremedioa!!!
- 2. laguntz.** Bai? Harrigarria!!!
- 1. laguntz.** Benetan? Ba, oraintxe bertan frogatu nahi dut!
- Zientzilaria** Baina zer diozu?
- 1. laguntz.** Bai, (*Oso serio*) Robert Reford-en itxura eduki nahi dut...
- Zientzilaria** (*Moztu egiten dio*) Hau kokoloa! Itsumenaren aurkako formula dela esan dut eta ez itsusitasunaren aurkakoa!!!
- 2. laguntz.** Eta zer egingo du orain?
- Zientzilaria** Lehendabizi itsuengan frogatuko dut eta gero, eta gero, (*Emozionatuz*) eta gero egunkarietara joango naiz emaitzekin, eta irratietara, eta telebistara, eta ONUra eta azkenik Suediara, Nobel-a jasotzera. (*Hitzaldia mahaiaren gainean bukatzen du. Besteak txaloka hasten dira*) Baina bizkor, bizkor, ONCEra deitu eta ea bost itsu bidaltzen dizkiguten...
- 1. laguntz.** Bai, jauna. (*Badoaz*)
- Zientzilaria** Bihartik aurrera ez da itsurik izango gure artean. Bihartik aurrera itzala eta iluntasuna argi eta kolore bihurtuko dira betiko...

2. ESZENA

(*Itsuak — Rogelio, Mirentxu, Erramuna, Casimiro eta Sebas — sartzen dira. Apurka-apurka jezartzen doaz, baina aulkiak aurkitzen dituzten bitartean, hainbat barregarrikeria egiten dituzte. Esate baterako, konturatu barik aulkia kendu, mahaiekin borroka, eszenatokiaren aurreko partetik ia jausten dira eta abar. Jezartzen direnean, batek puzker bat*)

botatzen du! Eskumatik ezkerretara, usaintzen eta aurpegi txarrak jartzen hasten dira guztiak)

- Mirentxu** Baina nor izan da kakalardo hori?
- Erramuna** Batek daki! Baina usainagatik, gizon bat izan da, hori ziur!
- Mirentxu** Ez dakit ba! Zaratagatik, gaztea, oso gaztea.
- Sebas** Eta lodi samarra. Gainera orain dela bi ordu baino gutxiago indabak, zuriak ziur aski, jan ditu.
- Casimiro** Traiektoria eta ailegatzeko behar izan duen denbora kontuan hartuz, nire ezkerretik hiru bat metrora sortu da. Beraz, ez dago dudarik. Rogelio zikin horrek bota du.
- Rogelio** Je, je, je... (*Ondo-ondoan Erramuna dago*)
- Mirentxu** Baina Rogelio, zikin-zikin daukazu alkandora. Indaba mantxa ederrak dituzu.
- Rogelio** A, bai? Non? Non?...
- Mirentxu** Hemen, txerri handikon! (*Kokoteko bat ematen dio*)
- Zientzilaria** (*Bat-batean sartuz*) Beno, beno, badirudi guztiak ailegatu zaretela... Pozten naiz, pozten naiz. Zeren, beitu...
- Itsuak** Ezin dugu, ez dugu ikusten. Itsuak gara! (*Desafioka*)
- Zientzilaria** Ba... tira. Hitz egiteko era bat besterik ez da.
- Itsuak** A, horrela bada...
- Zientzilaria** Berdin dio. Zera esan nahi nuen. Dakizuenez, medikamentu berri bat frogatzeko zaudete hemen. Dena ondo edo behintzat (*Emozionatuz*) nik espero dudan bezala badoa, gutxi, baina ikusi egin ahal izango duzue. Bai, bai, nik ikusten dudan moduan, nik ikusten zaituztedan moduan.

- Mirentxu** *(Gutziz eszeptiko, desilusionatuta)* Ja, betiko leloa.
- Rogelio** Hainbat gauza frogatu dugu...
- Erramuna** Eta guztiak emaitza berarekin...
- Sebas** Nik neuk nire «jarabe» partikularra nahiago dut.
(Petaka ateratzen du eta edaten hasten da)
- Zientzilaria** Bai, bai, ulertzen dizuet! Baina oraingo honetan fedea izatea eskatuko nizueke. *(Laguntzaileek edabea ematen diete)*
- Zientzilaria** Gainera, lehenengo emaitzak agerzen diren bitartean, etxean bezala egotea espero dut. Are gehiago, bitarte txiki honetan, zuen ametsak, zuen itsu bizitzan buruan izan dituzuen ametsak hain zuzen ere, egia bihurtzea gus-tatuko litzaidake. Beraz, hasi pentsatzen eta geroago iku-siko dugu zer...
- Itsuak** *(Etsituta mozten dio)* Ez dugula ikusten...
- Zientzilaria** Barkatu, baina esateko modu bat besterik ez zen...
- Itsuak** Aaaa!
- Zientzilaria** Beno, ikusi arte.
(Badoa eta, azken hitz hauek entzutean, itsuak desesperatu egiten dira)

3. ESZENA

- Casimiro** Ametsak, ametsak... Guk behin ere ez dugu ametsik. Ez daukagu zerekin amets egin! Itsuak gara eta kitto!
- Mirentxu** Nola ezetz? Nik, egia esaten badizuet, beti izan dut izku-tuko desio bat.
- Besteak** Bai?
- Rogelio** Aberatsa izatea?

- Sebas** Tom Cruiseekin triki-triki?
- Mirentxu** Ez! (*Altxatzen da*) Nire betiko ametsa abestea da.
- Besteak** Buu! Buu!
- Mirentxu** (*Oso serio*) Benetan, abestea, abestea da niri gustatzen zaidana. Pavarotik bezain ozenki, Jon Lennonen abestiak bezain politak, Aretha Franklinenak bezain dibertigarriak... (*«Respect» abestia hasten da eta Mirentxuk abesten duen bitartean, besteak «soul»aren erritmoarekin dantza egiten dute. Bukatzean, txaloak eta barreak. Mirentxu jezaritzen saiatzen da eta, Erramunarekin topo egitean, judoko giltza baten oihuak egiten ditu*)

4. ESZENA

- Erramuna** Beno, animatu garenez gero, nik ere neurea kontatuko dizuet. Berezia da. Arraro xamarra agian, baina eske... txikia nintzenetik, etxe gainetik pasatzen entzuten nituenetik, beti izan dut abioi gidari izateko gogoia. (*Hau esaten duen bitartean abioiarena egiten hasten da aulki gainean. Bukatzen duenean, aulkia hartzen du eta aurreratzen da, besteak bi iladatan jartzen diren bitartean...*) Zoragarria izan behar du, zerutik gauzak txiki-txiki ikustea, abiadura bizian joatea... (*Martxan jartzen du abioia*) Gora! Behera! (*Denak abioi batean doazela eman behar du: mugimenduak, oihuak...*) Benga, abioi hori aurreratuko dugu! Agur! Baina, zer da hori? Kontuz bihurgune horrekin! (*Orain guztiak aulkiaren gainean daude, parakaidasean jaisten bezala. Azkenean, denak lurrera. Berriro barreak*)

5. ESZENA

- Zientzilaria** (*Bakoitza bere lekura bueltatzen den bitartean*) Zer, zer moduz?
- Itsuak** (*Pozik*) Primeran... ederto.

- Zientzilaria** Bai? (*Emozionatuta*) Ze-zen-zenbat hatzamar ikusten dituzue hemen? (*Lau jartzen ditu*)
- Erramuna** Zazpi!
- Miren** Ez, ez, bederatzi!
- Sebas** Ke ba... bi baino ez dira!
- Zientzilaria** Ba, (*Etsituta*) igoal goizegi da eta oraindik ez du efektua egin! (*Badoa. Isilunea*)
- Rogelio** Niri ere batzuetan itsu izateak amorrua ematen dit. Eta badakizue zergatik batez ere? Ba, telebista ezin dudalako ikusi! (*Musika suabea hasten da*) Barre egingo duzue, baina ez duzue uste aparailu hori mirari bat dela. Botoi bati sakatuz, mila gauza desberdin ikus ditzakezu. «Zapping-a» egitea, hau zortea! Zer emango nuke nik «mandoaren erregea» izatearren... (*Mando bat ateratzen du eta kateak aldatzen hasten da.*) Bat, bi, hiru, lau bost, sei, zazpi, zortzi.
- Guztiak** Mando!!! (*Dantzatzen hasten dira serpentina, konfeti eta matasuegrekin...*)

6. ESZENA

- Casimiro** Sebas, animatuta ikusten zaitut! Arren, kontaiguzu zeurea.
- Besteak** Hori, hori, hasi mutil!
- Casimiro** Benga, zein da zure desio izkutua?
- Sebas** Zein? (*Oso triste*). Zein den galdetzen al didazue? Ba, nire pena guztien erremedio bakarra. (*Zutik jartzen da, botila erakutsiz*) Imajinatu! Behien errapeek sagardoa emango balute, eta emakumeen bularrek txanpaina, jakina. Etxeko txorrotetik ura atera beharrean «Bailey's» eta dutxatik kalimotxoa... Imajinatu! Xirimiria patxaran bihurtu, eta itsasoa... itsasoa kupel handi bat ardo izatea

gustatuko litzaidake. Haitz batera igo eta salto egin...
(*Aulki gainetik jauzi egiten du, besteek aidean hartzen dute eta Sebas igeri egiten hasten da*). Eta igeri egitea... (*Ahoa irekitzen du*) Zer goxoa! Eta behin eta berriro murgildu paradisu horretan eta, azkenik, hil, itota, ardotan itota, hori da zortea, hori! (*Besteek gainean eraman dute denbora guztian eta, hiltzen denean, eszenatokiaren erdian uzten dute. Isilunea eta musika tristea*)

Sebas (*Bat-batean zutik jarriz*) Zer, zer iruditzen zaizue?

Casimiro Ba, neuri behintzat, egia esan behar baldin badizut, oso tristea.
(*Argia amatatzen da*)

7. ESZENA

Erramuna (*Argirik gabe*) E! Lagunak! Aldaketaren bat nabaritu al duzue? Nire ustez, mediku zoro horrekin ez gara inora iritsiko...

Rogelio Ez, lehen ikusten nuen hainbeste ikusten dut oraindik.
(*Bi linterna ikusten dira*)

1. lapurra Etorri, etorri! Bide onean gaudela uste dut. Diru usaina dago. Diru mordoa, kolega, dirutza ederra hemen non-bait.

2. lapurra Bai! Ideia ona zurea! Laborategiko argiak emendatu eta ekin lanari, inolako oztoporik gabe!
(*Beste atetik irteten dira*)

Miren (*Baju hitz eginez*) Aizue, entzun duzue hori?

Rogelio Bai. Ez dira konturatu hemen gaudela!

Casimiro Noski! Jende arrunta normalean oihuka hasten baita argia itzaltzen denean.

- Sebas** (*Mozkortuta*) Eta urduri jartzen dira gainera...
- Erramuna** Ixo, isilik! Badirudi berriro datozela. (*Argia pizten da berriro. Zientzilaria eta laguntzaile bat agertzen dira; lapurrak, zaku eta pistolekin, mehatxuka*)
- 1. lapurra** Aurrera! Benga... (*Bultzaka*) edo hementxe bertan garbituko zaituztet.
- 2. lapurra** Eta hasi kantari! Non daukazue dirua? Non dago kaja-fuerte?
- 1. lapurra** (*Itsuak ikusten ditu*) Baina, eta hauek?... Nortzuk dira hauek?
- Zientzilaria** Ez, ez, ez egin tiro! Itsuak dira, ez dute ikusten. (*Eskuarekin keinu bat egiten die*)
- 1. lapurra** Ja, ja, ja... itsuak dira, eta ni beldurtuta. Hauek ez dira gai ez eta eurak bakarrik defendatzeko ere! Inutil halakoak! (*Bizkarra ematen die. Bat-batean batek makilarekin argiaren giltzari sakatzen dio eta argia itzaltzen da*)
- Mirentxu** Kami-minoto! (*Zarata asko entzuten da eta, berriro argia itzultzen denean, laguntzailea eta zientzilaria lotuta agertzen dira*)
- 2. lapurra** Ja, ja, ja... Mila esker laguntzagatik. (*Berriro argia amatatzen da. Oraingo honetan ondo lotzen dute*)

8. ESZENA

- Zientzilaria** Ba, barkamenak eskatu nahi nizkizueke.
- Sebas** Zergatik, hip?
- Rogelio** Zure edabea hartu baino lehen bagenekien ez zuela arrakastarik izango.

- Sebas** Mirariak, inon ez!
- Zientzilaria** Ez, ez, barkatu pertsonak bezala ez tratatzearren!
- Rogelio** Ez kezkatu! Ohituta gaude! Kanean zehar goazenean, jendea isildu egiten da eta batzuek, kutsatzekoa balitz bezala, alde egiten dute.
- Zientzilaria** Beno, banoa. Badakizue hemen duzuela zuen etxea betiko eta eskerrik asko guztiagatik, batez ere begiak irekiaz didazuelako.
- Itsuak** Begiak ireki... Kanpora!
- Rogelio** Bai, lezio ederra hartu du horrek!
- Casimiro** Ez, ez du ahaztuko bizitza osoan!
- Erramuna** Eta guk ere ez!
- Mirentxu** Eta guk?
- Erramuna** Ez al da egia? Batzuetan zozoak beleari ipurbeltz! Bai, ze gehienetan geuk baztertzen dugu geure burua lehenengo, geu gara gure egoera onartu behar dugunak, eta hortik hasita, ahalik eta bizitza normalena egiten saiatu.
- Mirentxu** Bai, arrazoia duzu!

LORTUKO ETE DOGU?

Joseba Ormaza
5. mailako ikasleek antzeztua
Hezibidezko antzerkia
Sagrado Corazón ikastetxea
Bermeo
1993-94

GAIA

Herri bateko jendea gazteei buruz hitz egiten ari da. Pertsonaia berezi bat sartzen da eszenatokian eta, gaiari jarraituz, ingurugiroaren egoera aztertzen hasten dira. Azkenean, euren ingurugiroa zaintzeko ontzi bereziak egitea erabakitzen dute.

PERTSONAIAK

Dogartzi	Dendaria
Paule	Atso bat
Koldo (horien aita)	1. bezeroa
Karmen (horien ama)	2. bezeroa
Xurgin	1. gaztea
Leire	2. gaztea
Kosme (horien aita)	Ekologista
Kandelari (horien ama)	Alkatea
Tabernaria	Idazkaria

(Eszenatokia zati bitan dago banandurik. Alde batean tabernaria lau bezerorekin. Beste alderdian dendaria hiru bezerorekin)

Dogartzi Gure etxean betiko kontua. Aitak dino: «Hamarrak dira. Paule eta Dogartzi, ohera. Bihar eskolara joan beharra daukazue».

Paule Egia da. Beti esaldi berbera. Zer pentsatzen ete dabe, hamar urte daukaguzela?

Xurgin Gurean, barriz, ez da gertatzen horrelakorik. Txikitatik ondo ikasi dogu egin behar doguna eta ez da sortzen horrelako iskanbilarik.

Leire Beno, beno. Noizik behin zerbait...

- Dogartzi** Hori suertea zuona! Zuen etxean biziko bagina... (*Pauleri begira*)
- Leire** Ezin gara kexatu. Gure gurasoak onak dira, ez da?
- Xurgin** (*Buruaz baietz esanda*) Egunen batean ikusiko dozue eta zuen eritzia emongo dozue.
- Paule** Ia ba, gureak aldatzen diran eta beste egoera bat ikusten dan gure etxean.
(*Une batez euren artean berbetan jarraitzen dabe*)
- Tabernaria** Zer, ez dozue etxerik ala?
- Dogartzi** Gurelako aita!
- Tabernaria** Oso gazteak zaree eta hemen nahiko ordu emon dozue.
- Xurgin** Nahi dozu gugaz mintzatu?
- Tabernaria** Beno, ideia ezberdinak izango doguz, baina tira.
(*Beste alderdian dendaria produktu batzuk saltzen ari da*)
- Atso bat** Gaur egungo gazteak zer ilusio daukiez?
- 2. bezeroa** Ilusioak? Hori bai ez jakela falta!
- 3. bezeroa** Lan egiteko gogorik ez, baina parrandarako... askotan!
(*Dendaria jiratu egiten da astiro-astiro*)
- Dendaria** Zuek seme-alabarik badozue?
- 3. bezeroa** Hau komentario bat besterik ez da izan, motel!
- 2. bezeroa** Uste dot gaizki hitz egin dogula.
- Atsoa** Begira, begira. Hortxe doaz gazte bi. Aizue! Hona etorri zaitez, mesedez!
(*Gazte biak sartzen dira eszenatokian*)

Gazte biak	Egunon, zer pasatzen da?
2. bezeroa	Ba... gazteei buruz hizketan gengoan eta konturatu gara, jakin barik, zuetaz txarto hitz egin dogula.
Dendaria	Ilusiorik, behar egiteko gogorik, ba ete daukazue?
Gazteak	<i>(Alkarri begira)</i> Bai, noski.
1. gaztea	Mundu honetan gertatzen dana argi eta garbi dago. Ez deuskue emoten aukerarik, ezin dogu lanik egin esperientziarik ez badogu.
2. gaztea	Ez dogu askatasunik besteen aurrean gure eritziak aldarrikatzeko.
Dendaria	Horixe da ikusten dodana egunero nire etxean. <i>(Paule eta Dogartziren gurasoak, Koldo eta Karmen, tabernara joaten dira)</i>
Koldo	<i>(Bere seme-alabei)</i> Zer egiten dozue hemen?
Dogartzi	Berbetan gagoz.
Tabernaria	Ni zuen edadekoa naz eta euren berbak entzunda aho zabalik geratu naz.
Karmen	Paule, erosketak egin dozuz?
Paule	Bai horixe!
Karmen	Azkar bukatu eizue, etxera joan gaitezan.
Dogartzi	Lasai, ama.
Xurgin	Arrazoia daukazu. Bai guraso petardoak!
Leire	Begira, hor datoz gureak. <i>(Xurgin eta Leireren gurasoak, Kosme eta Kandelari, tabernan sartzen dira)</i>
Kosme	Arratsaldeon, neska-mutilok!

Kandelari Edari goxoak dozuez, e?

Leire Bai, ama. Lagun batzuekin alkartu gara.

Xurgin Nahi badozue jezarri zaitekez.

Kosme eta Kandelari Ez, mila esker.

Koldo Zertan ari zaree?

Tabernaria Gazteen egoera aztertzen ari gara.

Karmen Eta zerbait kontatzeko? (*Ekologista bat sartzen da. Tabernan dagozanak berari buruz berbetan hasten dira*)

Ekologista Arazoren bat niri honela begiratzeko?

Tabernaria Zer uste dozu gazteetaz?

Ekologista Munduaren etorkizuna gazteon esku dago.

Karmen Zelan? Etorkizuna?

Ekologista Bai, andra.

Koldo Kontuz, nire andra da ta. Distantziak errespetatu!

Ekologista Nik bizia maite dot. Munduaren hondamendia ikusten dot. Zer egiten dot beraren alde, mundua salbatzeko? Begira eizue zuen mahaian. Alde batetik botila bat eta beste aldetik tetra brick bat.

Leire Ontzi ezberdinak dira bakarrik.

Ekologista Baina botilak birziklatu daitekez eta tetra brick-a oster, ez.

Paule Eta horretan, zer egin daikegu ba gazteok?

Ekologista Lehendabizi zuen gurasoei irakatsi.

- Karmen** Oraintxe ulertzen dot.
- Ekologista** Birziklapen lanean gazteok, eta noski umeok, erantzunkizuna hartu behar dogu. Lana ez da erreza. Sastarrak pilatzen ari dira edonon. Ez dago lekurik. Nora botako ete dabez gure seme-alabak?
- Dogartzi** Arrazoia daukazu. Eskolan betetzea nahiko erraza da, baina gero zer?
- Xurgin** Dakigun guztia txikitatik ondo ikasita daukagu. Gauza danen sustraia gogoia da.
- Ekologista** Horixe da. Gogoaz gain maitasun pixka bat ez letorke gaizki. Maitatzen daigunean lortuko dogu natura bera salbatzea. Ados zagoze?
- Besteak** Bai!
- Paule** Hemengo hitzak haizeak daroaz ez baditugu zabaltzen.
- Leire** Zergatik ez goaz kalez kale, dendaz denda, hauxe zabaltzen?
- Besteak** *(Txaloka)* Bai! *(Danak dendara joaten dira eta han dagozanakaz alkartzen dira)*
- Dendaria** Zer dala ta hainbeste jende? Sukalki eguna ala Aratuste eguna da gaur?
- 1 gaztea** Manifestazino bat dirudi.
- 2. gaztea** Gauza da jakitea zeren ala noren manifestazinoa.
- 2. bezeroa** Aizue *(Gazteei begira)* Nahiko berba egin dogu orain arte. Zerbait hartzera joango gara alboko tabernara.
- Tabernaria** Ez dot uste joango zareenik. Taberna itxita dago eta.
- 1 gaztea** Itxita? Zer jazo da? Grebaren bat?
- 2. gaztea** Institutuan ez dabe esan tautik be baina...

- Koldo** Esan dozue berba asko egin dozuela. Geuk be nahiko ordu emon dogu hizketan.
- 3. bezeroa** Zuen gaia interesgarria izango ete zan? (*Ia barrez*)
- Kandelari** (*Boltsa batez joteko keinua eginez*) Zuena baino interes handiagokoa, kaiku hori!
- Kosme** Lasai, Kandelari! Horko tabernan berbetan egon gara. Guraso eta seme-alabak alkartu eta gazteei buruz hitz egin dogu.
- Atsoa** Gazteei buruz? Hau kasualitatea! Gai berbera izan dogu hemen eta.
- Koldo** Hobeto esanda, gazteak abiapuntutzat hartu doguz. Berba asko egin ondoren, akordio batera heldu gara. Gazte honi esker, (*Ekologistari begira*) nahiz eta aburu ezberdinak izan, gure arteko hartu emonak beste modu batean ikusten ditugu.
- Ekologista** Lasai, lasai. Nik dodazan ideiak zabaldu besterik ez dot egin. Gauzak argi daukadaz. Badakit zer egin behar dodan mundua salbatzeko. (*Harro-harro*)
- 1. gaztea** Hemen gure salbatzailea! (*Iseka*)
- 2. gaztea** Mundua hil zorian ete daukagu?
- Ekologista** Honela jarraitu ezkerro, gure seme-alabak ez dabe luzarorako izango mundua.
- 1. gaztea** Ez da izango horrenbesterako!
- 2. gaztea** Orduan minutu guztiak aprobeixatu behar ditugu. Goazen hortik harrantz!
- Leire** Oraindik aukeraren bat badogu. Gu gazteok, danok saiatuz, lortu daikegu.
- Xurgin** Egia da. Gure etxetik, herritik... hasita.

- 1. gaztea** Zer egin daiket nire etxean mundua salbatzeko?
- Ekologista** Natura maite dozu?
- 2. gaztea** Oraindik ez dogu andragairik. Zer edo nor maite izango dogu gehiago ba!
- Ekologista** Orduan lana erreza da. Guretzako ez da izango lan nekezik. Etxean doguzan beirazko botilak behar dan lekuan jartzen hasiko gara.
- 1. gaztea** Nire osabaren tabernan botila guztiak sastarrontzietara botatzen dabez.
- Dogartzi** Hor dago koxka! Zuk orain badakizu zer egin behar dan. Irakatsi eiozu! Gazteak nagusiei irakatsi behar! Hau da hau!
- Dendaria** Eta horregaz bakarrik, mundua salbaturik geratuko da?
- Paule** Ez horixe! Hau lehenengo urratsa izango da.
- 2. bezeroa** Eta gero zer gehiago egin daikegu?
- Karmen** Herri askotan, gurean izan ezik, pila ontziak aspalditik dagoz jarrita.
- 3. bezeroa** Pila ontziak, zertarako?
- Tabernaria** Pilak substantzia kutsatzaileak ditue, kadmioa eta... beste gauza bitxiren bat. Sastarrontzira bota ezkerro, itxasoan amaituko dabe eta azkenean.
- Atsoa** Guk edaten dogu!!! Ai ama, ai ama! Ez da posible, ez da posible!
- Xurgin** Baina hori ez da dana. Nik lehengo egunean egunkari batean papera eta kartoia birziklatu daitekezala irakurri neban.

- Ekologista** Danok sastarrontzietara jaurtitzen doguzan paperak birziklatuko bagenduz, urtean hogeita hamar miloi zuhaitz salbatuko gendukez.
- Leire** Horrenbeste? Papera bere lekuan behar dan moduan ixtearren?
- Kosme** Irratian edo telebistan, ez dakit ziur, behinola esan eben urtean zehar zortzi pertsonak erabilitako paperak kotxe baten pisua eukala.
- Tabernaria** Bai datu harrigarriak eta kezkarriak. Baina guri interesatzen jakuna jende guztiak jakitea da.
- Dendaria** Nire dendan herritarrak, kaleko jendea alkartu gara. Guk jakitea ondo dago, baina ez legoke hobeto herriko besteren batek jakitea?
- 2. bezeroa** Horretarako egokiena alkatea da.
- 3. bezeroa** Nire beheko solairuan bizi da. Nahi badozue, deituko deusat eta...
- Koldo** Nik uste dot ezer egin aurretik... alkateari, zoro alenak, (*Besteei begira*) plan on bat prestatu behar gendukeala, alkateari edo beste norbaiti erakusteko eta azaltzeko. Bestela alkateak zer pentsatuko ete dau gutaz?
- Kandelari** Ados nago. Orain arte beiraz, kartoiez eta pilez hitz egin dogu, baina egongo dira beste ekintza batzuk edo ez dakit ba...
- Ekologista** Badakit nondik nora zoazen. Aipatu doguzan gauzak herrian bete daikeguz. Eta norberaren etxean?
- Atsoa** Nire etxean ez dago birziklatzeko tautik be. Dana jaten dot.
- Dogartzi** Hori ez da birziklatzea, garbitzea baino!

- Ekologista** Etxeko argi guztiak behar dan moduan erabilten ete doguz? Sarritan bizturik geratzen dira ordu askotan beharrezkoak ez diranean. Edota iturriko ura. Zenbat minutu eukitzen dogu «avante» garrantzi handirik emon barik?
- 1. gaztea** Hori ez da birziklatzea, baina energia aurrezte da eta, beraz, ingurugiroa zaintzea, ez da?
- 2. gaztea** Ondo ulertu dozu. Eta orduan, galtzeko arriskuan dagozan espezieak babestea naturari lan nabaria egitea da.
- Karmen** Alabaren liburuan irakurri neban. Astero hogeit hamar landara eta abere mota betiko desagertzen dira.
- Kosme** Beno ba, hori geroko lana da. Orain alkateari esango deusaguna prestatu behar dogu. Bestea auzoko lana da.
- 2. bezeroa** Baietz uste dot. Egunkari, aldizkari zein telebistak eragin handia daukie kasu honetan.
- Xurgin** Herrian ez gara asko. (*Astiro hizketan*) Gutariko batek, horrela onartu ezker, gauza bati buruzko ardurea hartuko leuke.
- Leire** Egia da! Badakit. Orain egin geinkeana hauxe da. (*Bes-teei kontatzen hasten da. Tarteetan musika bat entzuten da. Ontziak prestatzen ari dira. Alde batetik pila ontziak, beste-tik paperontziak eta bestetik beira ontziak. Egin ondoren, taldeka hasiko dira aurreratzen eta ikusle goari zertarako dan azaltzen. Tabernako taldeak pila ontzia egin dau*)
- Tabernaria** Lehenengo aldiz egiteko nahiko ondo dago.
- Paule** Orain herritarrei zelan erabili azaltzeko?
- Leire** Oso erreza da. Pilak sastarrontzietara bota beharrean, etxeko bazter batean gordetzea eskatzen da, kaxa, hautsontzi edo piper lata batean, bardin da.

Dogartzi	Kalera irteterakoan, erosketak egitera edo eskolara goazenean, ez jaku askorik kostatzen partikaran edo plastikozko boltsa batean sartzea eta pila ontzietara jaurtitzea.
Xurgin	Joku moduan egin daikegu. Ia nork botatzen daben pila multzorik handiena. Dendako taldeak eta ekologistak beirazko botilak eta poteak botatzeko ontziak egiteko ardu-rea hartu dabe.
Dendaria	Esperimentu bat besterik ez da izan.
Atsoa	Zer nahi dozu ba? Ez gara ingeniariak edo langile espezializatuak!
2. bezeroa	Ontzi honetan zer botako ete dabe? <i>(Barrez)</i>
3. bezeroa	Argi azalduta ez da egongo arazorik. Hori bai, batzuentzat maiuskulaz idatzi beharko da, ze bestela edozer botako dabe.
Ekologista	Botilak, azkenean gehien botako dana horixe izango da eta. Etxean plastikozko boltsetan eta taberna zein ikastetxeetan ontzi berezietan gordeko dabez pilaturik. Gainezka egon orduko, ontzietara eroango dabez. <i>(Beste guztiei, guraso eta gazteei, kartoi eta paperentzako ontziak egitea tokatu jake)</i>
Koldo	Herri honetan ez da asko irakurten, baina beno...
Kandelari	Hori zure etxean izango da, ze gurean...
Karmen	Egunkarientzat bakarrik ez da izango!
Kosme	Ez, andra. Kartoi eta paper mota gehienak bota daitekez.
1. gaztea	Opari paperak ezin dira birziklatu, esaterako.
2. gaztea	Etxe batzuetan astean kilo paper asko batuko da. Bestetan, osterara, bat be ez!

- 1. gaztea** Dana dala, uste dot astean behin beteko dala.
- Karmen** Hobeto, horrela diru gehiago aurreztuko dogu eta zuhaitz gitxiago moztuko dabez gure baso eta oihanetan.
(*Alkatea agertzen da bere idazkariagaz*)
- Alkatea** Zer gertatzen da hemen? Barrero hauteskundeak ete daukaguz?
- Tabernaria** Ez, alkate jauna.
- Dendaria** Hau gure proiektua da.
- Alkatea** Proiektua? Non betetzeko?
- Ekologista** Zuk onartuz gero, herrian.
- Alkatea** Azaldu arte ez dot piperrik be ulertzen.
- Dogartzi** Begiratu eizu, alkate jauna. Zure aurrean hiru ontzi ezberdin dozuz. Herritarrak lehenengoan pilak, bigarrenean botilak eta hirugarrenean paperak eta kartoia botako dabez.
- Alkatea** Zertarako? (*Orduan prozesu osoa azaltzen hasiko dira. Une batean alkateak idazkariari kopiatzeko dinotso. Bitartean musika entzuten da. Toki ezberdinetan jarrita, herritarrak ontzietara pilak, botilak eta paperak botatzen hasiko dira*)
- Idazkaria** (*Irakurriz*) Proiektu honetan gazte, nagusi, neska eta mutilak parte hartu dabe. Gure mundua salbatu nahi badogu, honelako jarrerak izan behar doguz. Danon ardurea da eta, horregaitik, danok bustiko gara. Danon laguntzaz lortu daikegu. Herri honetan egin doguna beste batzuetan egin ezkeru, dana hobeto joango litzateke. Egin behar doguzan lanetatik zati bat besterik ez da, baina puntu batzuetan ados jarrita eta helburu bat lortzeko alkarren ondoan egonda, buruhaustea leunago bihurtzen dira. Herri honetako jendeak beste herrietan gauza bera egitea eskatzen dau. Eskerrik asko.

MAGIA DELA MEDIO

Rosa M.^a Acero
Anabel Duandikoetxearen itzulpena
6. mailako ikasleek antzeztua
Ipuin antzeztua
Lamuza herri ikastetxea
Laudio
1993-94

GAIA

Lagun batzuk sorginaren etxera joaten dira gaua pasatzera. Gau horretan sorginak jai bat duenez, bakarrik geratzen dira bere etxea zaintzen. Sorginaren liburuen artean begiratzen hasten dira; bat-batean esaldi bat ahoskatzen dute eta ipuinetako pertsonaiak agertzen dira, oso haserre eta protestaka. Sorgina itzultzen denean, ez dakite nola konpondu gertatu zaiena. Azkenean, dena konpontzen da.

PERTSONAIAK

Jon	Edurnezuri
Miren	Berunezko soldadutxoa
Nekane	Superman
1. sorgina	Erpurutxo
Txanogorritxo	2. sorgina
Otsoa	3. sorgina

(Sorginaren etxeko gela batean mahai bat; ezkerrean aulki bat, atzean apalategia; eskuinean kakotegi bat, arropa arraro eta kapelekin. Alfonbra eta gortinak. Altzari guztiak zaharrak dira)

1. AGERRALDIA

(Sorgina entretenituta dago atean zarata entzuten denean)

1. sorgina *(Haserre)* Nor dabil hor?

Miren *(Barrutik)* Gu gara. Lagun batek arazoak ditu.

1. sorgina *(Lasaiago)* Sartu, sartu barrura!

Jon *(Aurkeztuz)* Hau Nekane da, herrira uda pasatzera etorri den neska... lagunak izan behar ditu.

- 1. sorgina** Ea! Zer gertatzen zaio Nekaneren txakurrari?
- Nekane** Nola dakizu txakurraren arazoa dela?
- 1. sorgina** Sorgina naiz, ez da?
- Nekane** Beraz, jakingo duzu zer gertatzen zaion.
- 1. sorgina** (*Maltzur*) Hain azkarra den neska batek zertarako behar du sorginaren laguntza?
- Miren** (*Lasai*) Pintto, bere txakurra galdu da; egun osoan bila ari gara eta ez da inondik ere ageri.
- Jon** Gainera bere amonak esaten du guk izkutatu diogula. Mesedez, lagundu!
- 1. sorgina** Ongi da, saiatuko naiz. (*Mahai gainean dagoen kristalezko bola baten aurrean jartzen da. Bitartean Nekane gela begiratzen ari da*) Geldi egon! Horrela ezin dut konzentratu. Hau oso gauza serioa da. Eta ez ukitu ezer! (*Berriro bola begiratzen du*) Hemen dago, gizajoa!
- Umeak** Non? Zer gertatzen zaio?
- 1. sorgina** Zubi zaharraren ondoan dauden sasietan harrapatuta geratu da. Hain txikia denez... (*Nekane*) Orain pozik zaudete?
- Nekane** Lehenengo ikusi egin behar dut; ez dakit benetako sorgina zaren.
- 1. sorgina** (*Haserre bizian*) Kakanarru hau! (*Bi eskuekin seinalatzen du, begiak zuri ipintzen ditu eta ahotsa aldatzen du*) NAPIEDRAIKASPULA! (*Nekane harrizko estatua bihurtzen du*)
- Miren** (*Ez da konturatu*) Joan zaitetz Pinttoeren bila, arin-arin! Gizajoa! Erdi hilda egongo da eta.
- Jon** Bai, zoaz, gero herrian ikusiko dugu elkar (*Ukitzean, zurrun dagoela konturatzen da*) Baina,... zer gertatzen zaizu? (*Mugitzen saiatzen da*)

- 1. sorgina** Utzi pakean! Harri bihurtu dut.
- Miren** (*Ikaratuta*) Zer esaten duzu?
- 1. sorgina** Ez nintzela benetako sorgina uste zuen, ez da? Ea enteratzen den.
- Jon** Baina ezin duzu hori egin; gainera, ezin dugu herrira itzuli bera gabe.
- 1. sorgina** Bere zaintzaileak zarete, ala?
- Miren** Ia ia; hiritik etorri denez eta ez duenez inor ezagutzen, ba... ala! (*Helduarena eginez*) «Jon, Miren, bere lagunak izango zarete, ez da?» Aspergarria da! Beti bere erruz oihu egiten digute.
- Jon** Ezin dugu horrela utzi. Ez duzu uste pasatu egin zarela?
- 1. sorgina** Ongi da, zuek ez zarete errudunak, baina ez ekarri berriro etxera eta horrela ez da arazorik izango. (*Nekaneren gainean eskuak jarritz*) SACAPRESDISCUNA!
- Nekane** Ai!
- 1. sorgina** Zer? Pinttoren bila joango zara, bai ala ez?
- Nekane** (*Ikaratuta*) Bai, bai, oraintxe bertan. (*Korrika ateratzen da*)
- Jon** (*Barrez*) Herria pasa egingo du.
- Miren** (*Barrez hau ere*) Hau ez duzu berriro hemen ikusiko. (*Sorgina esertzen den bitartean, neska-mutilek gelan bueltak ematen dituzte, ezer esan gabe; noizean behin keinuak egiten dituzte*)
- 1. sorgina** Zer gertatzen da? Gaur ez duzue presarik?
- Miren** Ez.

- Jon** Ba...
- 1. sorgina** Ba... zer?
- Miren** Ba... Nekanerekin irtengo ginela esan dugunez...
- Jon** Gurasoak...
- Miren** Horren ordeztu...
- Jon** Ba...
- 1. sorgina** Azkenik esango ote didazue zer gertatzen den? Urduri jartzen nauzue. (*Izkutatuz barre egiten du*) Badirudi ez duzuela inoiz euli bat hil.
- Jon** (*Bizkor-bizkor esanez*) Baimena eman digute lagun baten etxean lo egiteko.
- 1. sorgina** Pozten naiz. Gaur gauean oso ondo pasatuko dugu. Ni ere lagun batekin joango naiz. Ui! Oso berandu da eta oraindik ez dut festara joateko kapa jantzi. Ikusi nahi duzue?
- Umeak** (*Liluraturik*) Bai, noski!
- 1. sorgina** (*Kapa jantziz*) Bakarrik urtean behin jantzen dut.
- Miren** (*Bat-batean*) Gure laguna zeu zara!
- 1. sorgina** Badakit zuen laguna naizela (*Konturaturuz*) Zer? Gaur nirekin igaroko duzuela?
- Umeak** Horixe.
- 1. sorgina** Baina... Ezin da! Gaur gauean irten egin behar dut.
- Jon** Bagenekien.
- Miren** Ilargi bete denez.
- 1. sorgina** Orduan...?

- Jon** Etxea zaintzen geratzen ahal dugula pentsatu dugu; nor-bait etortzen bada... badakizu...
- Miren** Handi samarrak gara eta...
- 1. sorgina** Ongi da, ongi da. Ez didazue txantxaren bat egingo, ez da?
- Jon** Ez zara gurekin fidatzen?
- 1. sorgina** (*Mesfidati*) Bai, bai, zuekin fidatzen naiz. (*Sorginak kapela ipintzen du. Hau egiten duen bitartean abestu egiten du, umeak begira dituela*) Piska bat aldatu naiz, gustatzen zaizue?
- Jon** (*Keinuak eginez*) Sorgina izateko oso ederra egon behar duzu!
- Miren** (*Liluraturik*) Sorgin eta edonor izateko, harrituta geratzeko zaude!
- 1. sorgina** Banoa hegaka. Ez oheratu oso berandu.
(*Sorgina ateratzen da eta haize hotsa entzuten da*)

2. AGERRALDIA

- Miren** (*Ez da haizea entzuten; umeak oso pozik daude*)
Ongi! Lortu dugu!
- Jon** Azkenean bakarrik!
(*Eskutik loturik saltoka eta abesten*)
Zaskumalaba
naskigurrami
ilargia nekatuta
eta ni hemen, jolasean.
(*Txaloka errepikatzen dute*)
- Miren** Ideia bat daukat! Sorginez mozorrotuko naiz.
- Jon** Desio bat eskatzera datorren gizon inportantez mozorrotuko naiz.
(*Abestu egiten dute mozorrotzen diren bitartean*)

- Jon** (*Ahotsa garbituz*) Ba begira... ni desio bat eskatzera nator.
- Miren** Zeuk esan.
- Jon** Diru gutxi daukat... Nire herria pobrea da eta horregatik...
- Miren** Sorginek gauza batzuk egiten ditugu, baina ez gara Midas erregea bezalakoak.
- Jon** Ez, ez dut urrerik nahi, ez eta dirurik ere, baina gustatuko litzaidake nire herriko umeeek ipuinetako pertsonaien pareko bat edukitzea.
- Miren** Ulertzen dut! Eta ez dituzu nahi gezurrezko pertsonaiak, egiazkoak baizik.
- Jon** Posible bada...
- Miren** Bai horixe! Baina bada mila urte horrelakorik egin ez dudala eta formula ahaztu dut; liburuetan bilatu beharko dut (*Altxatuz*). Barkatu, itxaron minutu pare batean.
- (*Mirenek liburuak begiratzen dituela ikustean, beldurtu egiten da*)
- Jon** Baina, zer egiten duzu? Ez duzu egiazko formula bat esango, ez da?
- Miren** Ez, tontolapiko! Bakarrik begiratuko dut ea horretaz zedozer badagoen. Ideia ona izan duzu. Imajinatzen duzu aurkitzen dugula eta egun batean sorginari eskatzen diogula hona ekartzeko Txanogorritxu, Edurnezuri, Erpuru-txo...
- Jon** (*Liburuetan begiratzuz*) Bai, ondo egongo litzateke. Hemen zedozer ipuinei buruz.
- Miren** Erakutsi, erakutsi, begira zer ipintzen duen: ZUSLAKA-LLIBUADRAMACA. Zer zaila, ez da?

(Zarata handi bat entzuten da; umeak asko ikaratzen dira. Eszenatokian ipuinetako pertsonaiak agertzen dira, haserre eta zarataka)

3. AGERRALDIA

Txanogorritxo *(Otsoari)* Ea orain engainatzen nauzun! Banuen nik go-goa hau aldatzeko!

Otsoa Utz nazazu pakean! Kokoteraino naukazu! Beti nik izan behar dut gaiztoa! Gainera, ipuinean esaten dute oso goxoa zaudela, baina hori gezur hutsa da.
(Bazter batean jarraitzen dute).

Edurnezuri Sorgin andrea, nekatuta nago beti garbitzen, josten, sukaldeko lanean... zapaburu horientzat. Beraiek konpon dezatela! Ni banoa. *(Irten egiten da)*

Erpurutxo Ipuinetik atera nauzunez, zergatik ez nauzu handiagoa egiten? Edo zuk, Superman, zurekin eramango nauzu? Politagoa izango da mundua hegaka eginez ikustea bota batzuetan sartuta baino.

Superman Falta zitzaidana! *(Erpurutxori)* Ezta pentsatu ere! Beti hegaka egiten nekatu egiten naiz eta, gainera, beti gauza zailak egiten. Pakean utz nazatela! Mendian lasai bizi nahi dut.

Txanogorritxo Nire amonaren etxera joan zaitezke. Hain lasaia izanik, bertan ezin daiteke bi egun baino gehiago igaro.

Berunezko soldadutxoa Eta beste soldadua bilatu! Egun osoa arropa berarekin eta gainera tente ibili behar! *(Mireni)* Aizu! Eta ezin da hankarena konpondu?
(Eszena osoan oihuka umeen artean. Hauek, harrituta)

Otsoa Nik uste dut sorgin honek ez dakiela ezer eta ez digula ezer konponduko. Hoberena alde egitea izango da.

Guztiak Bai, goazen *(Guztiak ateratzen dira)*
(Laster umeen negarra entzuten da)

4. AGERRALDIA

- Jon** (*Ikaratuta*) Ikusi duzu zer egin duzun?
- Miren** (*Ikaratuta hau ere*) Nik ez dut ezer egin. Zuk zer uste duzu, majia formulak esatea baino ez dela! Gainera ez nuen bukatu.
- Jon** Eta sorgina etortzean zer esango diogu?
- Miren** Ez dakit. Nik, momentuz, hau kenduko dut. (*Arropa seinalatuz*) Ez dut jolaserako gogorik.
(*Jonek ere mozorroa kentzen du. Sorgina sartzen da*)
- 1. sorgina** Gau zoragarria izan da, baina oso goiz bukatu da. Ez dakit zergatik, umeen negarra hasi da entzuten. (*Jon eta Mirenek elkarri begiratzen diote*) Eta zuek, zer moduz? Segur aski ondo pasatu duzue, oraindik altxatuta zaudete eta...
- Miren** Guk... ondo.
- Jon** Bai... oso ondo, baina orain joan egin behar dugu. Gero arte! (*Korrika ateratzen dira*)
- 1. sorgina** Ui... Zelako presa! Hauek zedozer prestatu didate! (*Gelan zerbaiten bila, baina ez du ezer aurkitzen*) Ez dut ezer ikusten; zerbait egin badute, azalduko da. Oheratu egingo naiz, festak oso nekatuta utzi nau eta. (*Lurrean etzanda jartzen da; berriro umeen negarra entzuten da eta altxatu egiten da*). Hau bai dela arraroa, zer gertatuko ote zaie umei? (*Miren eta Jon egunkari mordo batekin sartzen dira, korrika*)
- Miren** Enteratu zara?
- Jon** Egunkari guztietan agertu da berria.
- Miren** Ipuinak hutsik daude, badirudi pertsonaiak beste norabait joan direla.

Jon Umeeek ezin dituzte ikusi eta helduek irakurri ere ez. Dena desagertu da.

1. sorgina Orain ulertzen dut zergatik negar egiten zuten umeeek.

Miren Ezin duzu konpondu?

1. sorgina Ezinezkoa da, bakarrik ipuinetatik atera dituenak konpontzen ahal du.
(*Miren eta Jonek elkarri begiratzen diote*)

Miren eta Jon (*Oso lotsati*) Ba... geuk egin dugu.

1. sorgina (*Sinestu ezinik*) Zuek? A! Badakit; gaur gauean, ni ez nengoenean, esperimentuak egiten aritu zarete.

Miren Ez, bakarrik... jolastu bitartean... zure liburuak begiratzen jardun dugu.

Jon Oso arraroa izan da; formula bukatu baino lehen oso haserre agertu dira, guztiek zedozer aldatu nahi zuten.

1. sorgina Noski! Ez zenuten ondo egingo eta pertsonaia heldu bihurtu dituzue.

Miren Eta zergatik zeuden hain haserre?

1. sorgina Ia-ia nagusi guztiek zedozer desberdina izan nahi dutelako.

Jon Horregatik dute holako aurpegi serioa!

Miren Eta beti asperturik daude.

Jon Ba nik ez dut heldua izan nahi.

Miren Ba horrela, ezta nik ere!

1. sorgina (*Barrez*) Hori ez da konponbidea, nahi baduzue eta ez baduzue, hazi egingo zarete. Helduak zaretenean, nahien duzuen aukeratu behar duzue.

- Jon** Zuri sorgina izatea gustatzen zaizu?
- 1. sorgina** Asko! Ezin nuen beste ezer izan. Eta txikitan baino gehiago gustatzen zait orain. Amak ez zidan esperimentuak egiten uzten, ez eta gauean ateratzen ere..., roilo bat zen.
- Miren** Horretaz beste egun batean hitz egingo dugu. Zer gertatuko da ipuinekin? Gu ez gara sorginak, gertatu dena istripu bat izan da.
- Jon** Irtenbideren bat izango da, ez da?
- 1. sorgina** Nik apur bat laguntzen ahal dizuet, baina lehenik pertsonaia guztiak hona ekarri behar dituzue eta hori zuek bakarrik egin dezakezue.
- Miren** Baina, ez dakigu non dauden eta!
- 1. sorgina** Bilatu egin beharko dituzue.
- Jon** Goazen! Ezin dugu denborarik galdu.
(Jon eta Miren ateratzen dira pertsonaiei deika. Argiak pizten dira eta pertsonaiak publikoaren artean azaltzen dira. Miren eta Jonek eszenatokira eramaten dituzte)
- 1. sorgina** Ongi, hemen daude guztiak! *(Pertsonaiei)* Bestelakoak izan nahi duzue, ez da?
(Guztiek batera azaldu nahi dute arazoa)
- Txanogorritxo** Bai, niri otsoa...
- Berunezko soldadutxo** Uniformea da, ba...
- Erpurutxo** Nik, Superman nahi ba...
- 1. sorgina** Bai, bai, bai, berehala konponduko dut. Jar zaitezte hor-maren kontra. *(Guztiak jarrita daudenean, sorginak besoak luzatzen ditu eta dio) NASPIEDRAKAPULA! (Eta estatua bihurtzen ditu)*

Jon eta Miren Horrela utziko dituzu?

1. sorgina Momentuz ezin dut beste gauzarik egin!

Jon Baina horrek ez du ezer konpontzen.

Miren Gaur gauean umeez berriro negar egingo dute.

1. sorgina Ez uste, zuek pertsonaien bila zenbiltzaten bitartean, nire lagunei deitu diet eta laster dira hemen. Guztien indarraz, berriro pozik egongo dira ipuinetan.

Jon Orduan guk ez dugu ezer gehiago egin beharrik?

1. sorgina Ez, zoazte etxera eta bihar itzuli.

Miren Ezin dugu ikusi nola egiten duzuen?

1. sorgina Ezta pentsatu ere!

Jon Ezingo dugu lorik egin!

Miren Eta nola jakingo dugu konpondu duzuela?

1. sorgina Umeez negarrari utziz gero, ipuinak ikusten ahal dituzte-lako izango da. (*Ahotsak entzuten dira*). Tira, tira... (*Ateraino bultz eginez*) Azkar, hemen dira eta!

Jon Bihar arte!

Miren (*Musu bat emanaz*) Oso ona zara. Agur!
(*Umeez irten direnean, beste sorginak hasten dira sartzen eta gortinak ixten dira, musika entzuten den bitartean*)

MAITE, HERRI TXIKI BATEKO NESKATOA

M. Luisa Zarrabeitia
Haur Hezkuntzako ikasleek antzeztua
Ipuin antzeztua
Barrutia herri ikastetxea
Gernika
1991-92

GAI

Maitek artaburuz egindako panpina bat zuen. Beti panpina zaintzen egoten zenez, etxeko lanak ahazten zituen. Amak panpina izkutatuko ziola esan zion. Maite, beldurrez, panpinarentzako gordeleku bat aurkitzen hasi zen. Dortokari galdetu ondoren, lur azpian gorde zuen. Neguko euriteak pasatu zirenean, panpinaren bila joan eta gordelekua artalandez betirik aurkitu zuen.

PERTSONAIAK

Kontalaria
Maite
Ama
Oiloak
Dortoka
Umeak

Kontalaria Golako ibaiaren haraneko erdi-erdian bazen herri txiki bat. Bertan bizi zen Maite, bere guraso eta aiton-amonekin. Herriska hartan ez zegoen aparteko gauzarik, baina jendea ongi bizi zen. Maiteren baserria ibai ondoan zegoen. Ibaigane zuen izena. Bere urtebetetzea zela eta, aitak artaburuz egindako panpina bat oparitu zion.

Aita Zorionak, Maite! Tori zure oparia.

Maite Panpin bat! Zein polita den! Eskerrik asko, aita! Kalera noa panpinarekin jolas egitera.

Aita Kontuz ibili! Zaindu panpina.

Maite Bai aita, ondo zainduko dut.

Kontalaria Maitek bere panpinari Lara ipini zion izena. Aitak panpina ondo zaintzeko agindu zionez, Maite ez zen une batez

ere harengandik aldentzen. Beti bainatzen, jazten, orrazten eta sehaskan kulunkatzen ibiltzen zen. Maitek etxeko lanetan laguntzen zuen; oilotegiko oiloei eta oilarrari jaten ematen zien, baina askotan ahaztu egiten zen eta amak gogorarazi behar izaten zion.

Ama Maiteee! Maiteee! Emaiezu jaten oiloei.

Kontalaria Baina Maite itsuturik zegoenez panpinarekin jolasean, ez zuen ezer ere entzun. Egun batean, hainbeste bider deitu ondoren, amak, haserre, honela esan zion:

Ama Maiteee! Emaiezu jaten oilo gixajoei, gosez hiltzen daukazu eta! Jolasean besterik pentsatzen ez baduzu, panpina kendu beharko dizut.

Kontalaria Baina amak benetan ez zion panpina kendu nahi, lanak egin zitzan baizik. Hori entzuterakoan, Maite ikaratu egin zen eta panpina izkutatzea erabaki zuen. Goiz hartan, oilarrari eta oiloei jaten ematera joan zenean, haiei galdetu zien ea bazekiten non zegoen izkutaleku on bat.

Maite Oilarra! Oiloak! Badakizue non izkutatzen ahal dudan nire panpina? Amak kendu nahi dit eta...

Oiloak Ba... guk ez dakigu, baina galdetu dortokari, jakin-jakinttua da eta.

Kontalaria Hartu panpina besoetan eta dortoka zegoen mendi alde-rantz abiatu zen. Han aurkitu zuen dortoka eta galdetu zion:

Dortoka Zeren bila zabilta hemen?

Maite Dortoka, mesedez. Badakizu non izkutatzen ahal dudan nire panpina? Amak kendu nahi dit eta...

Dortoka Hori gauza erraza da. Egin guk bezala. Lurrean zulo bat egin eta han gordetzen ditugu arrautzak. Aprobetxatzen

ahal duzu erreka ondoan dagoen lekua, horrela hobeto gogoratuko zara.

Kontalaria Maitek bere eskutxoekin lurrean zuloa egin zuen eta panpina lur beroaren azpian utzi zuen. Lurrarekin estali ondoren, disimulatzeko, hosto batzuekin babestu zuen.

Dortoka Lasai egon zaitetz, arraultzak zaintzen ditudan bitartean, zure panpina ere zainduko dizut.

Kontalaria Maite etxera itzuli zen. Negua zenez, beti bezala, euriteen ondoren errekek hazi egin ziren. Denbora asko igaro zen Maite panpinaren bila irten baino lehen.

Maite Eguraldi ona dagoenez, panpinaren bila joango naiz erreka ondora. (*Abestia bidean doan bitartean*) Ene! Non dago panpina? Uaa! Uaa! Non dago nire panpina? Panpina nahi dut! Dortoka, lagundu mesedez! Euriak dena aldatu du eta ez naiz gogoratzen non izkutatu nuen!

Kontalaria Maite ibai ertzean dortokari deika zegoen bitartean, hau sastraka artetik agertu zen.

Dortoka Zer gertatzen zaizu, Maite? Zergatik zaude negarrez?

Maite Panpina nahi dut eta ez dut aurkitzen. Euriak den-dena aldatu du.

Dortoka Nik lagunduko dizut panpina aurkitzen. Ondo gogoratzen dut non izkutatu genuen.

Kontalaria Leku hartan, bi esku berderen antzera, lurretik ateratzen ziren bi hosto txiki besterik ez zegoen. Maite belaunikatu egin zen ondo ikusteko. Negarrez hastera zihoan.

Dortoka Ez egin negarrik, Maite! Hosto horiek Lararenak dira. Oso landare handia egingo da eta artaburu asko emango ditu. Etor zaitetz uda aldera bila.



Umeak (*«Urtaroaren bertsoa» kantatzen dute*)

Kontalaria Uda iritsi zen eta Maite aitonaaren baratzerara itzuli zen berriro. Lara izkutatu zuen lekuan, artaburu asko zituen landare bat aurkitu zuen.


Maite Zelako politak diren! Artaburu bat hartu behar dut beste panpina bat edukitzeko... eta besteak... besteak oilotegiko oilar-oiloentzat, haiek ere ondo jan eta festa ederrak egin ditzaten.

Hezkuntza Saileko Liburutegia



1005980

891.69-2 ESK



Eskola antzerkia EK22090060

